

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-12-18
EGUBAKOITZA
665. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

"Eraso matxista guztiak" bukatzeko aldarria | 10

Bergarako ondarea dohaintza ugarirekin osatzen | 9

SANTAMASAK

Gehigarri berezia | Barruko orrietan



Juanje Alberdik astelehenean utziko du alkate kargua | 16



Debagoieneko selekzioa, Realarekin eta Athleticekin batera | 27



Motorrak berotzen

Abenduaren 28an egingo dute Tobera antzerki satirikoaren bosgarren edizioa | 29

Antzerki satirikoan parte hartuko duten atsoak eta abokatua, atzean Auzoko egitasmoko kide bat dutela, Eskoriatzako osoko bilkuran.

IDOIA DAVILA

Debagoiendarren botoen zain, berriro

Espainiako Gorteetarako jarlekuak daude jokoan

Alderdi eta koalizio politikoek azken mezuak entzunda, atzera ere zabalduko dituzte hauteslekuak etzi, domeka, Debagoienean. 50.000 lagun daude deituta botoa ematera, behin-behineko errolden arabera, eta Espainiako Kongresua osatzen duten 350 jarleku ze ordezkaritza politikorekin bete aukeratu beharko dute; gauza bera Senatua osatzen duten 208 jarlekuen kasuan ere. | **Ikus Debagoieneko orriak**



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Hotza eta elurra dela, neguan ere lan eta lan
- Jon Odriozola, 2018an Tourrean egoteko asmoz

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

SINADURAK

	URTZI AMIANO 7
	7 JON BEREZIBAR
	ENEKO FERNANDEZ 10
	15 MIKEL ARANBURU
	JAIONE CARPINTERO 17
	36 IDOIA ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9
KIROLA 26 | KULTURA 28
ZURE IRAGARKIAK 30 | ZORION AGURRAK 31
TELEBISTA-IRRATIA 32
ESKELAK 33 | NON-ZER 34

943 71 48 45

Hemen

GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

BOZKATU

UNIDAD POPULAR

Ezkerraren indarra

Alberto Garzón

Gobernuko presidentziarako hautagaia

Candyko langile ohien etorkizun iluna, berrindustrializazio proiektu bakoa

Batzuei bukatu zaie eta gainontzekoek bukatzeaz dute langabezia-prestazioa

M.T./U.M. | BERGARA

Hilabeteotan jasotzen ibili diren langabezia-prestazioa bukatzeaz dute Candy-Hooverren Bergarako planta itxi ostean kalean geratu ziren langile ohiek. 152 langile geratu ziren lan barik iaz urriaren amaieran. Harrezkero, 70 langile pasa berrindustrializazio proiekturen batekiko esperantzatsua egon dira. Azkenean, baina, ez da halakorik gorpuztu eta orain langile horiek kezkarakin begiratzen diote etorkizunari, berrindustrializazio proiekturik ez eta, gainera, aurki bukatuko zaielako prestazioa. "Emaztea lanean dago, eta eskerrak horri. Prestazioa hurrengo urteko urrira arte dut, eta gero, amaitu egingo zait. Ikasten hasi naiz eta jendea lan bila dabil ja", kontatu du Jesus Markez langile ohiak. "Orain arte ez gara askorik mugitu, proiektuekin gora eta behera ibili garenez... Orain, urtarrietik aurrera lan bila hasi beharko dut. Zaila ikusten dut, baina ez dago beste aukerarik", dio, berriz, 1994az geroztik Candy lanean ibili den Ane Irizarrek. "Hamar hilabete langabezia daukat (...) Baina batzuk langabezia sari gabe daude ja, eta pentsatzen dut orain gaizki egongo direla", gehitu du Kepa Castrok.

Egoera hori bizi duten langileek, bada, Eusko Jaurlaritzak huts egin diela sentitzen dutela azaldu diote Goienari oraingo astean: "Inplikatu ez dena Eusko Jaurlaritza izan da, eta falta sumatzen dugu; langileok pentsatzen



Ane Irizar, Jesus Markez eta Kepa Castro, Bergaran. | MAITE TXINTXURRETA

genuen proiektua sartuko zela, eta bat-batean egundoko disgustua izan zen", dio Markezek.

Kontrara, Bergarako herritarrengandik babes handia jaso dutela azpimarratu dute, eta asko eskertu dute laguntza hori. "Herriak uneoro babestu gaitu, oso pozik gaude herritarrekin, eskerrak eman dizkiegu eta behin eta berriz eman go dizkiegu, gainera", dio Irizarrek.

Diputazioarenak kale

Candy Hooverren Bergarako planta itxi zutenetik hainbat ahalegin egin dira bertan beste proiekturen bat abiarazteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen ahalegina: Luxenburgotik etorritako Optimizazio inbertitzailearen proiektua jarri zuten mahai gainean erretiro aurreratura edo bestelako lantokiren batera joan ez zirenei. 70 bat zeuden beste proiekturen batekin aurrera egiteko gertu.

Edozein modutan, Diputazioaren ahaleginak ez zuen aurrera

egin; izan ere, Optimizeren negozio-planaren bideragarritasuna "sakon eta arduraz" aztertu ondoren, ondorioztatu zuten proiektuak ez zeukala "nahiko heldutasun". Berehala iragarri zuen "beste aukera batzuk" aztertzen ari zela, Mondragon Unibertsitatearekin batera. Kritikak izan ziren orduan, Candyren langileek egindakoak. Haien ordezkarien iritziz, Foru Aldundiak ez zuen aurkeztu "aldez aurretik beraiekin adostutako baldintzak betetzen duen planik. Izan ere, proiektuak gutxi batzuekiko lanpostuak bakarrik proposatzen zituen".

Bideragarritasun falta

Edozein modutan, Foru Aldundiko aurreko gobernu-taldeak, berriz, ekainean aurkeztu zuen proposamen berria; tartean, Urbanext enpresarena. Baina horrek ere ez du aurrera egin, Elkargiren, Oinarriren eta Jaurlaritzaren iritziz bideragarria ez zelako.

Euskal ekonomia %3 inguru haziko da aurten eta 2016an

Laboral Kutxak ekonomiaren iragarpen txostena aurkeztu du, eta aurreikuspen onak egin ditu

L.K. | BILBO

Euskadiren ekonomia %2,8 haziko da aurten eta beste horrenbeste datorren urtean, Laboral Kutxak martitzenean aurkeztu zuen txostenean jasotzen den moduan. Langabeziak handia

izaten jarraituko du (%15,1 aurten eta %13,8 datorren urtean) baina jaisteko joerarekin, eta inflazioak beheranzko bidean segituko du, -0,3 aurten eta 1 datorren urtean. Espainiako ekonomia Euskadikoarenaren adina haziko

da, eta langabezia ere txikitzen joango da: %20,1 izango da datorren urtean.

Hazkunde tasa horiek Europako batez bestekoaren (%1,9) oso goitik egongo dira.

Jarraiko hazkundea

Laboral Kutxako ordezkariak azpimarratu zuten, EAeko ekonomia zortzi hiruhilekoz jarraian hazi da; azken hiruhilekoan, %0,8 hazi da. Hala ere, oraindik ez du bere gailur historikoa gainditu; 2008an izan zen hori. Nafarroan, ordea, ondu du marka hori.

Nepali laguntzeko 31.000 euro eman dituzte debagoiendarrek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Elkarheztzen erakundeak eta Debagoienez bizi diren 30 bat nepaldarrek indarrak batu zituzten apiril bukaeran Nepalen lehenengo lurrikara izan zutenetik, eta diru-bilketa kanpaina jarri zuten martxan. Bada, kanpaina hori bukatutzat eman dute eta, zehazki, 30.926 euro batu dituzte, martitzenean prentsaurrekoan Elkarheztzenetik eta nepaldarren ordezkari batzuek azaldu zuten. Debagoiendarrei eskerrak ere eman zizkieten.

Premiazko gauzak erosteko

Batutako diruaren zati handiena, 27.300 euro inguru, uztailean

bidali zuten Nepalera eta dagoeneko erabili dute. Hain zuzen, janariak -arroza, olio...- eta txapazko teilatuak egiteko materiala erosi dute horrekin. Izan ere, ehun milaka lagun behin-behineko bizilekuetan daude oraindik, eta etxebizitza horiek osatzeko materiala behar da. Gainerako dirua orain ailegatu dela jakinarazi diete Elkarheztzenetik. Dirua giza trafikoaren aurkako Maiti Nepal erakundeak kudeatzen du.

Prentsaurrekoan azaldu zuten, biktimen egoera hobetzetik urrutiko dago. Izan ere, orain, neguarekin, etxebizitzarik gabe geratu diren egoerak txarrera egingo du.



Nepaldarrek eskerrak emateko erabili zuten prentsaurrekoa. | L.K.

AP-1 autobideko hiru bide egokitu ditu Bidegik Gabon egunetarako

IDOIA DAVILA | DEBAGOIENA

Eguazten gauetik eguen goizera erabat itxi zuten autobidea, Eskoriatza eta Luku arteko tartean orain arte egon den *bypass*-a kentzeko.

Orain, saihesbide bat egokitu dute autobidearen espazioa berrerrabilita. Hala, Gasteizko noranzkoan bi bide zabaldu dituzte, eta beste bat Eibarko noranzkoan. Bi norabideko trafikoak hormigoi-hesiarekin berezitu dute egongo dira.

Zirkulazio handia

Datozen egun bereziei begira egin dute hori guztia. Izan ere, aurreikuspena da bihar, zapa-tua, zirkulazioa nabarmen

handiagoa izango dela, Gabon egunak direla eta. Horregatik egokitu dituzte hiru bide lur-erazketa gertatu zen autobidearen tarte horretan.

Konpontzen ere bai

Edozelan ere, zirkulazioa arintzeaz gain, ezponda egonkorreko obrak aurrera jarraituko duela bermatu du Bidegik. Hain justu, egunotan egin dituzten lan horiekin, trafikoaren joan-etorria eta ezponda egonkortzeko lanetan ari diren langile eta makineriak behar duten mugikortasuna bermatuko da, Bidegik adierazten duenez.



EROSKI

ARRASATE



Musakola auzoa z/g
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



**ONDO IBILI
SANTAMASETAN!**



Ikasleak iazko hitzaldietako bat entzuten. | JAKIUNDE

Ikasleentzako hainbat hitzaldi antolatu ditu Jakiunde akademiak

Arrasateko ikastetxeak 'Jakin-mina' programan parte hartzera gonbidatu dituzte

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Jakiunde akademiak Mondragon Unibertsitatean *Jakin-mina* izeneko hitzaldi programa bat egingo du 2015eko abendutik 2016ko martxora bitartean, eta parte hartzera gonbidatu ditu Arrasateko ikastetxeak.

Bosgarren urtez, programa honen bitartez, DBHko 4. mai-

lako ikasle motibatuek hainbat diziplinako adituak entzun ahal izango dituzte. Honela, lehen mailako jakitunen iritziak ezaugutzeko aukera izango dute.

Zikloak

Hainbat ziklo antolatu dira Euskal Herrian zehar eta ikasle bakoitza hautatzen duen zikloko

bost hitzalditara joan ahal izango da. Gipuzkoa osoan hiru ziklo antolatu dira: bi Donostian eta bat Arrasaten.

Arrasateko zikloko hitzaldiak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan izango dira, egubakoitzero, 17:30ean.

Programa gaur, abenduak 18, hasiko da eta LKS S. Coop Taldearen zuzendari nagusi Elena Zarragaren eskutik *Perfiles profesionales del futuro. Una visión desde la empresa* hitzaldia entzun ahal izango da.

Hitzaldietako gaiak askotarikoak dira eta zikloan zehar telekomunikazioen, lidergoaren, ikus-entzunezkoen eta elikagai-industriaren adituen hitzaldiak eskainiko dira. Azkena martxoaren 11n izango da eta ziklo osoan parte hartzen duten ikasleei diploma emango diete.

Akademia

Gizartearendako erreferentziako foro izateko helburuarekin sortu zen Jakiunde. Bertan, hainbat arlotan jakitunak diren pertsonak biltzen dira, eta, hain zuzen, kide guztiek elkarrekin egindako hausnarketak eskaintzen dituzte.

Parte hartzeko

Programan parte hartzeko asmoa duten ikastetxeek Jakiunde akademiaren bulegoan eman dezakete ikasleen izena, akademia@jakiunde.org helbide elektronikoaren edo 943 22 57 73 telefonoaren bitartez.

adierazi dutenez, "proiektuaren interesgarritasuna eta nola landuta dagoen" baloratu dute saria erabakitzeko orduan.

Dokumentala ikusteko, eskaneatu QR kodea sakelakoarekin.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Musika, dantza eta kantuz bete zen pilotalekua, Libre aldarrikatzeko

I.D. | BERGARA

Jendez bete zen Bergarako pilotalekua zapatuan, abenduak 12, 35/02 eta 04/08 auziak salatzeko eta auzipetuei babesa adierazteko.

Maddi Iñarra ibili zen aurkezpen lanetan musika, dantza eta kantuak izan zituen jai honetan. "Politika egitearren zigortu nahi gaitu Espainiak", esan zuten, eta, horregatik, ekimen batekin erantzun zuten: mosaiko koloretsu erraldoi bat osatu zuten ekitaldiaren lehenengo zatia amaitzeko.

Bigarren zatian hainbat pilota partidu jokatu ziren. Hauen ostean, kalejira egin zuten erraldoi, buruhandi, trikitalari, hankapalu, batukada, eta abarrekin,

eta, amaitzeko Anger, Montauk eta DJ Naken Selektor taldeek kontzertuak eskaini zituzten gaztetxean.

Babesa

Arrano tabernari, Artatse elkartari, Aitor Arantzabali, Mikel Zubimendiri, Mikel Garaiondori eta Ino Galparsorori adierazi nahi izan zieten babesa ekitaldian.

Aitor Arantzabalek salatu zuen horrelako ekimenetan eta prentsurrekoetan parte hartzeagatik zigortu nahi dituztela: "Oso prozesu gogorra izaten ari da". Horrez gainera, eskerrak eman zizkien herriarrei eta Libre ekimeneko antolatzaileei.



Mosaiko koloretsua osatu zuten herritarrek. | IMANOL SORIANO

Agifes elkarteak Goienaren 'Barruak astintzen' erreportajea saritu du

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkartearen eskutik iritsi da aitortza: *Barruak astintzen* erreportajea aukeratu du, Kazetaritza eta Buru Osasuna Saria 2015 lehiaketako telebistaren kategorian. Arrasateko San Juan de

Dios Ospitaleak, Arizmendi-Almen Ikastolak eta Goienak elkarlanean egindako erreportajea da. Arabako Arespalditza herrian lau egunez elkarrekin bizi izaten egon diren ikasleak eta buruko gaixotasuna duten pertsonak ditu protagonista; euren testigantzetan oinarritzen da lana. Agifasetik

Ordu aldaketak egongo dira hondakinen bilketan hilaren 24an eta 31n

Hondakinen bilketa zerbitzua- ren ordutegiak aldaketak izango ditu abenduaren 24an eta 31n. Egun horietan, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin errefusa 13:00etarako atera beharko da, iluntzean beharrean. Antzuolan gauza bera egin beharko da ontzi arinekin.

Nerea Larrañagak Gipuzkoako Erizaintza Kolegioaren saria jasoko du

Gaur emango diote Nerea Larrañaga bergararrari erizainen ibilbidea aitortzen duen saria. Larrañaga Mendaroko Ospitaleko erizaintza zuzendaria izan da 16 urtez eta pertsonarengan oinarritutako zaintzaren alde egin duen apustua azpimarratzen dute haren lankideek.

Gotzon Elizburu: "Memoria osoarekin dugu konpromisoa, oso eta inklusiboarekin"

"Biktima guztiei aitortza eta erreparazioa" defendatu dute EH Bildu koalizioko ordezkariak Arrasaten oraingo astean egindako ekitaldian

JOSU BILBAO | ARRASATE

Kulturateko Jokin Zaitegi aretoa jendez lepo bete zen EH Bilduren mitinean. Ander Rodriguezek eta Gotzon Elizburuk -Kongresurako hautagaiak- domekarako EH Bilduren aldeko botoa eskatu zuten, "herri berri bat" eraikitzeko bide bakarra koalizioaren alde bozkatzeko dela azpimarratuta. Hain justu, "emakume eta gizon librez osaturiko herri berri bat" eraiki nahi dutela azpimarratu zuten.

Horrekin batera, domekan parte hartzera animatu dituzte herritarrek, eta EH Bildu Madrileren "zutik" joango dela adierazi zuten, inoren aurrean "belarri jarri gabe eta inoren menpeko izan gabe", Ander Rodriguez hautagai arrasatearraren esanetan. "Independentzia itxaropena da herri berri bat eraikitzeko aukera".

Gotzon Elizburu soraluzetarrak, bestalde, koalizioa "memoria oso eta inklusibo" lortzearekin konprometitu dela azpi-



Gotzon Elizburu berbetan, lepo zegoen Jokin Zaitegi aretoan. | JOSU BILBAO

marratu zuten. "Herri honetan gehiegi sufritu dugu, hori guztia gertatu izan ez balitz bezala begiak estaltzeko, guk memoria osoarekin dugu konpromisoa, oso eta inklusiboarekin; biktima guztiei aitortza, erreparazioa, eta garrantzitsuena dena, berriro ez gertatzea bermatuko duen kontakizunarekin dugu guk konpromisoa. Hori baita etorkizun-

neko elkarbizitzarako oinarri sendoa jartzeko modu bakarra".

Hautura demokratikoa

EH Bilduk Espainiako Estatuarekin haustura demokratikoa lortu nahi duela eta, abenduaren 20aren ondoren koalizioko hautagaiak haustura hori lortzearen aldeko "konpromisoa" hartu dutela ere azaldu zuten Kulturaten.

Arriola: "PSOE gobernuan egon denean ondo joan zaizkigu gauzak"

UBANE MADERA | BERGARA

Miren Gallastegi -Senaturako PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburua- eta Iñaki Arriola -PSE-EEren Gipuzkoako idazkari orokorra- Bergaran izan ziren egunean, bertako militanteekin eta Mari Carmen Barrenexea zinegotziarekin batera programa sozialista partekatzen bergararrek. Ibargarai, Boni Laskuraingo erretiratuen etxea, Matxiategi... kalerik kale ibili zen karabana sozialista, Madrileren eraman gura duten bertakoen "ahotsa" jaso nahian. Ohi bezala, arrosak, gozokiak eta, bitxikeria moduan, pilulak gordetzekoak eman zituzten opari.

"Arima soziala"

Gipuzkoako idazkari orokorrak adierazi zuen Bergararendako hobe izango dela PSOEek irabazten badu: "Alderdi Sozialista gobernuan egon denean, behin eta berriro ikusi izan da ondo joan zaizkigula gauzak. Aldiz,

eskumak gobernatu duenean okerrago joan zaigu. Gaur-gaurkoz, gobernurako bi alternatiba erreal daude: Raxoiren PP edo Sanchezen PSOE, eta, duda barik, Bergararendako zein Gipuzkoarendako mesedegarriagoa litzateke Sanchezek irabaziko balu".

Gipuzkoatik Senaturako zerrendaburu Miren Gallastegik, berriz, azpimarratu zuen orain dela "aukera azkeneko urteetan galdutako eskubide sozialak berreskuratzeko eta etorkizun duina eraikitzeko. Lanpostu eta soldata duinekin, bizimodu duina ahalbidetuko dutenak; guztiondako izango den hezkuntza eredu publikoa berreskuratzeko, guztion eskubidea horixe delako, eta oro har, arima soziala duen gobernuaren izateko, herritarrei aurpegira begiratzeko aurpegia izango duena eta herritarren esanak entzuteko belarriak izango dituen. Eta hori guztia egingo duela erakusten duen eskarmentua badu Alderdi Sozialistak".



PSE-EEko ordezkariak, Matxiategin, eguaztenean. | UBANE MADERA

Hyundai Tucson berria
Aldaketa jokabidea da

Tucson

#changeisgood

Tucson berria 18.900 €tik aurrera.

Aldaketa gure bizitzari lotuta dago. Berari esker sentazio berriak ezagutzen ditugu eta une beteak gozatzeko, gure irudimenaren motorra baita. Jarrera hori esker jaino da Hyundai Tucson auto berria. Bere itxura eta berrikuntza teknologikoei zure gidatzeko era aldatzen lagunduko dizute. Saia zaitze aldaketaren indarra ezagutzen: www.hyundai.es-en.

Hyundai Tucson Gama: CO₂ (gr/km) emisioak: 119-175. Kontsumo mixtoa (L/100km): 4,6-7,5.

OARSO CAR
GIPUZKOAN DEALER BAKARRA
www.oarsocar.com

HYUNDAI | NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.



OIARTZUN
943 49 48 30
Lintzirin poligonoa 1
(Leroy Merlin ondoan)

BEASAIN
943 80 40 54
Errepide nagusia
(Hotel Castillo ondoan)

ELGOIBAR
943 74 14 80
Olaso poligonoa 17

IRUN
943 63 97 69
Behobia zubia

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2015eko azaroaren 26an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2016ko urtarrilaren 14a.

LEKUA: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

ORDUA: Lehen deialdia: 18:00. Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onspen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onspenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2014-2015 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2014-2015 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orrria, Diru Fluxuen Egoera-orrria eta Txostena), eta baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2014-2015 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2015-2016 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Soziala berritzatzea.
7. Kontu ikuskatzaileak izendatzea.
8. Kontseilu Errektorea ahalduz Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
9. Galde-erantzunak.

arizmendi
ikastola

Aitziber Arregi Iribecampas
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, Arrasate, 2015/11/26

A-20



Kongresurako hautagai Agirretxea, alboan hainbat jeltzale dituela. | MIRARI ALTUBE

"Erabakiak herri honetan" hartzen direla diote EAJkoek

"Autogobernuan aurrera egitea" dela lehen konpromisoa zehaztu du Agirretxeak, Bergaran

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Bergaran egin zuten jeltzaleek hauteskunde kanpainako Debagoieneko ekitaldi nagusia, martitzenean, eta han elkartu ziren Jaurlearitzako sailburu Arantxa Tapia eta Cristina Uriarte, legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeria, Aldundiko diputatu Maite Peña, Debagoieneko hainbat alkate eta beste jeltzale asko. Kongresurako Gipuzkoako hautagai Joseba Agirretxeak eta senaturako hautagai Maria Eugenia Iparagirrek lagun izan zuten Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar. Eta hark hauxe azpimarratu zuen: "Herri honen estrategia euskal erakundeetan erabakitzen da".

"Herri estrategia definitzea"

Ekitaldiko izarra izan zen Egibar, eta hasieratik utzi gura izan zuen argi "erabakiak herri honetan" hartzen direla: "Madrilen erabaki asko hartu arren, herri honen etorkizuna herri honetan erabakitzen da eta erabakiko da".

"Herri estrategia definitzean" dagoela gako adierazi zuen, eta Madrilerako doazenek zer defendatu behar duten argitu: "Euskal erakundeak, horiek sortutako tresnak,

kontzertu ekonomikoa, euskal erabakiak... Azkenean, da herri estrategia bat definitzea".

"Konpromisoak hartzeko" gertu Ezker abertzalea izan zuen berbeta-gai Joseba Agirretxeak, eta "ukazioaren munduan murgilduta" bizi izan direla esan zuen: "Independentzia aldarrikatu eta burua zuloan sartu; horixe da egin duten bakarra".

"Helmugaz" berba egiten dutela leporatu zien, baina bien bitartean ez dutela "ez egitasmorik, ez proiekturik, ezta proposamenik ere". EAJk, ostera, "konpromisoak" hartzen dituela esan zuen: "Autogobernuan aurrera egitea eta estatuarekiko harreman estatus politiko berri bat adostea izango da gure lehen konpromisoa". Horrekin batera, "euskal ekonomia ituna eta Nafarroako ekonomia hitzarmenak" defendatuko dituztela adierazi zuen, "geureak direlako", eta suspertze ekonomikoaren alde egingo dutela azpimarratu: "Geure eredu produktibo eta ekonomikoa erakutsiko dugu".

Bestalde, Debagoiena "eskualde eredugarritzat" jo zuen Gipuzkoarako, "arazoei buelta ematen" jakin duelako.

"Aniztasuna ospatzen" eta "bertako ahotsa erakundeetara eramateko" Arrasaten izan ziren Podemos-Ahal Duguko kideak

Herritarren "hitzak eta zalantzak" bertatik bertara jasotzeko eta "bertako ahotsa erakundeetara eramateko" helburuarekin, Podemos-Ahal Dugu alderdiko ordezkariak Arrasateko Herriko Plazan izan ziren joan den domekan. Kongresurako zerrendaburua den Nagua Albarekin batera izan ziren, besteak beste, Igor Urizar, gaur egun Arrasaten zinegotzi dena, Baleike alderdiarekin. Sahararren eskubideak aldarrikatzeko ere aprobeztatu zuten bisita.



Nagua Alba, ezkerretik hirugarrena, Arrasaten. | IMANOL SORIANO

50.000 bat lagun daude deituta botoa emateko

Trantsiziotik, Espainiako Gorteak osatzeko XII. hauteskundeak izango dira

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

50.000 debagoiendarrek dute domekan botoa emateko eskubidea eskualdeko bederatzi udalerrietan -Aramaio barne; edozein modutan, behin-behineko zentsua da adieazitakoa-. Betiko moduan, 09:00etatik 20:00etara arte dago horretarako aukera. Oraingo honetan, botoen bitartez izendatuko dira Kongresua osatzen duten 350 diputatuak, Espainiako presidentea tarteko. Eta baita ere Senatua osatuko duten 208 senatariak; azken horiek zuzenean aukeratuko dira.

Sei diputatu

Kongresuaren kasuan, probintzia bakoitzak aukeratzen dituen

diputatu edo parlamentari kopurua bere bizilagun kopuruaren arabera da. Hala, Gipuzkoari sei diputatu izendatzea dago; Bizkaiari, zortzi; Arabari, lau; eta Nafarroari, bost.

Senatuari dagokionez, lurralde ordezkarietako ganbera da. Hauteskunde bidez aukeratzen diren 208 senatariez gainera, erkidegoko ganberak senatari bat eta milioi bat biztanleko beste bana aukeratzen dituzte, guztira, 261 senatarira iritsi arte.

Milioi bat biztanleko, bat

Alderdiei edo koalizioei begirata, berriz, Gipuzkoatik 11 alderdi-koalizioak aurkeztu dituzte zerrendak Kongresurako: EH

Bilduk, EAJk, PSE-EEk, PPK, Ahal Duguk, Orain Batera-Ezker Anitzak (Unidad Popular), Euskadiko Alderdi Popularrak eta besteak beste, Herritarrak-Herritarron Alderdiak (Ciudadanos).

Internetez, egunean bertan

Goiena Komunikazio Taldeak hauteskunde eguna bertatik bertara jarraituko du; domekan, bozketaren jarraipena eginez eta emaitzen berri emanez, *Goiena.eus*. Interneteko ataria baliatuta; biharamunean *Goiena.eus*-en zein Goiena telebistan emaitzen gainera haien gaineko balorazioak jasoko dira, eta abenduaren 23an, eguaztena, GOIENA paperak laburpena jasoko du.





Debagoiendarrendako azkeneko mezuak

Programen arabera itunak egiteko gertu daude alderdiak zein koalizioak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Domekako emaitzek utziko duten erretratua zein den jakiteko azkeneko egunak dira, eta guztiak daude itunetarako gertu. Guztiak,

baina nork bere alderdiaren edo koalizioaren programarekin zerikusiren bat duten itunetarako gertu daudela azpimarratu dute, Debagoiengan ordezkaritza duten

alderdiek edo koalizioek Kongresurako izendatutako zerrendaburuek Goienari erantzundako galdereetan. Hortik aurrera, batzuek indarrak jartzen dituzte ezaugarri

edo berezitasun euskaldunak bermatzeko beharrean eta eurek horretarako hartzen duten konpromisoan, eta beste batzuek, berriz, garrantzi handiagoa ematen diete ekonomiarekin lotutako proposamenei.

Eskaiztasun eginda, gaur, egubakoitza, amaituko da Espainiako hauteskunde orokorren kanpaina.

Maiatzekoarekin alderatuta, nabarmen apalagoa izan dena. Bihar izango dute, bada, herritarrek hausnarketarako tartea. Inkesten arabera, oraindik halako kopuru handi samarra dago, gainera, botoa zeini eman erabaki barik duena. Alderdi tradizionalen batera, alderdi berriak ere sartu dira, oraingoan, kinielan.



MARIAN BEITIALARRANGOITIA
EH BILDU

"Madrilen inork ez digu gure etorkizuna erabakitzen utzi nahi"

Marian Beitialarrangoitia (Legazpi, 1968) aurkeztu du EH Bilduk Kongresurako zerrendaburu. Madril gaititu beharreko haresia dela dio.

Independentismoa da Madrilerako duzuen helburu bakarra?

Espainiatik datorren inposizio eta mehatxuen aurrean gure bidea egin behar dugu. Batzuek beste lau urte Madrili begira egotea proposatzen dute. EH Bilduk aldatzea proposatzen du, joko arauak erotikaldatzea: Madrili begiratzeari utzi eta Euskal Herrian erabakiak hartzen hasi. Inork ez baititu gure interesak, eskubideak eta erabakiak defendatuko, guk egiten ez badugu.

Zuek diozuen moduan, haustura demokratikoa eragiteraino?

Madril gaititu beharreko haresia da euskal herritarren eskaera demokratikoentzat. Katalunian ondo dakiten moduan, bide propioa egitea da uzten duguten bide bakarra. Erabakiak hartuz, egin beharreko bidea definituko duen gehiengoak sortu behar ditugu etorkizun hobea erabakitzeko, eta Madrili erabaki horiek errespetarazi.

Diozue "oraina eta geroa" daudela jokoan; zergatik?

Madrildik inposatutako ereduak ez digu balio, ez alde politikotik, ezta sozialetik ere, ez gatazkaren konponbiderako, ez herri gisa etorkizuna irabazteko. Aldaketa behar dugu; hori ez da Espainiatik etorriko. Ihes egiteko modu bakarra gure bidea egitea da, Euskal Bidea, independentziaraino, guk hartuz erabaki guztiak, txikiak eta handiak.

Itunetarako gertu zinatekete?

Erabakitze eskubidea errespetatzeko eta dispersioa amaitzeko konpromisoa hartzen ez duen itunik ez dugu onartuko. Baina ez gaitzezen engaina, Madrilen inork ez digu gure etorkizuna erabakitzen utzi nahi. Jarritu behar dugu horren alde borroka egiten eta erabakiak hartzen. Eta borroka egiten da kalean, erakundeetan eta igandean boto kuxkak independentziaren aldeko erabakiz betez.



JOSEBA AGIRRETXEAA
EAJ

"Guri dagokigu dugun erabakitze eskubidea defendatzea"

Joseba Agirretxea (Ondarroa, 1966) aurkeztu du EAJk Kongresurako zerrendaburu Gipuzkoatik. Kontzertu ekonomikoa arriskuan ikusten du.

Kontzertu ekonomikoa arriskuan ikusten du EAJk?

Arriskuan egon daitekeela uste dugu, batzuek egindako adierazpenen arabera. Edozein kasutan ere, arriskuan jarri baino lehen ere, EAJk kontzertuaren defentsa sutsua egiteko konpromisoa hartzen dugu; autogobernuaren eta ongizatearen oinarrietako bat delako. Kontzertu ekonomikoaren kontrako kritikak entzun dira, eta batzuek egindako adierazpenak ez zaizkigu batere gustatzen.

Ortzarrek dio: "Gure bila datoz!"

Argi dago zenbait alderdi politikotik berrik ere oso gustukoa dutela birzentralizazioa eta estatuak eskumen gehiago izatea. Guri dagokigu nazio izaeratik daukagun erabakitze eskubidea defendatzea.

Hori horrela bada, erreala da eskumen gehiago lortzeko esperantza izatea?

Bai, noski. Argi dago EAJren esku egon diren eta dauden instituzioek ondo kudeatzen badakitela, Euskadin ondo egiten badakigu. Eta ziur gaude guri dagokigun eta oraindik Estatuak kudeatzen dituen eskumenak guk kudeatuko bagenu, euskaldunen onurarako izango litzatekeela. Pentsioen kasuan, bermatuak egoteaz gain, hobeak ere izango lirateke.

Itunetarako gertu zinatekete?

Itunak beti dira elkarriketaren ondorio bat. Hitzaren ondoren datoz konpromisoak. Gu beti hitz egiteko prest gure programan dauden oinarriak onartzen dutenekin: nazio izaera, alde biktasuna eta erabakitze eskubidea. Autogobernu eta kontzertuaren defentsa.



ODON ELORTZA
PSE-EE

"Sozialistok gara Rajoy Moncloatik botatzeko boto eraginkorra"

Odon Elortza (Donostia, 1955) aurkeztu du PSE-EEK Kongresurako zerrendaburu Gipuzkoatik. Euskadiko eta Espainiako gobernuaren arteko urteetako harremanaren aldekoa da.

Ustelkeria amaitzea eta ongizate berreskuratzea gura duzue; egingarria da hori?

Rajoy da ustelkeriaren erantzule politikoa, eta PSOEk irabazita, gehiengoaren boto eraginkorra baliatuta, ahalbidetuko da elkartasunean eta giza kohesioan oinarritutako krisitik irtekeko modua. Sozialistok gara Gipuzkoan Rajoy Moncloatik botatzeko boto eraginkorra.

Kontzertu ekonomikoa arriskuan dago?

Ezta gutxiago ere. Moncloan izandako gobernu sozialistak etengabe izan dira harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin; euskal autogobernu garatu egin zuten eta beti errespetatu izan dute kontzertua eta kupoa. Gure aurrekoek moduan, Gipuzkoa plural, berritzaile eta elkarriketarako irekita dagoen ahotsa ordezkatu nahi dut Kongresuan, elkarren arteko ulermena bultzatu eta Euskadiren eta Espainiaren arteko elkarbizitza indartzeko.

Zelan txertatuko litzateke Euskadi defendatzen duzuen estatuaren erreforma federalean?

Hasteko, gure erreformaren balioak azalduz eta esplikatzu zelan bermatuko genukeen Euskadiren berezitasuna, bereziki kontzertuari eta kupoi dagokionez, horietatik dira eta euskal autogobernuaren oinarriko tresnak.

Itunetarako gertu zinatekete?

Legealdiko edo programaren arabera itunak ezinbestekoak dira gobernu berriaren egonkortasuna bermatzeko. A20ren ostean eta emaitzen arabera ikusi beharko dugu zeinekin berba egin. Dena den, gobernagarritasun itunak PPrekin baztertuta daude.



JON HERNANDEZ
UNIDAD POPULAR-ORAIN BATERA

"Langileen aldeko errepublika plurinazionala proposatzen dugu"

Jon Hernandez (Irun, 1978) aurkeztu du Unidad Popular-Orain Batera (EA, UPeC) alderdiak Espainiako Kongresurako zerrendaburu Gipuzkoatik; eraldaketa osoa du helburu. **Sistemekiko haustura proposatzen duzue; haustura zertan?** Trantsiziotik eratorritako eredu apurtzea. Guztiok modu duinean bizitzearrekin bateraezina da boterearen mesederako den monarkia parlamentario hau. Hortaz, laburbilduz, monarkiaren eta langileak matxakatzaren dituen eta ekonomia kapitalista oinarri duen eredu apurtzea.

Miloi bat lanposturen sorrera iragarri duzue; zelan eta non?

Larrialdiko proposamena da; gaurtzeko 9.000 milioi euroko inbertsioa egin beharko luke estatu zentralak eta udal bakoitzari eskaini lanpostuak sortzeko beharrezkoak diren esparruetan, sektore pribatuak arretarik jartzen ez dituen lanpostuetan, errentagarriak ez direlako. Dena den, gure proposamen osoak eredu produktibo osoaren eraldaketa du oinarri, ekonomiko sektore nagusien nazionalizazioa eta banka publikoaren sorrera. **Konstituzioarendako ze erreforma proposatzen duzue?**

Prozesu eratzaila, desberdintasunik ezaren eta guztiondako bizimodu duinaren bermatzaile izango den Konstituzio berria lantzeko. Errepublika federala, plurinazionala, solidarioa eta langileen mesedetan jardungo duena proposatzen dugu. **Itunetarako gertu zinatekete?** Julio Anguitarenak gara eta bat egiten dugu *Programa, programa, programa* bere leloarekin. Beraz, berba egingo dugu ezkerrekoak diren alderdiekin, ezkerreko proposamenen gainean. PPK ez gobernatzeko ahaleginduko gara, baina PSOE eta Podemosen ez gaitzaitela kontuan hartu ez bada errealitatea eta gizartearen eraldatzeko.



NAGUA ALBA
PODEMOS-AHAL DUGU

"PSOEn eta PPren bi lan erreformak baliogabetu behar ditugu"

Nagua Alba (Donostia, 1990) da Podemos-Ahal Dugu Kongresurako aurkeztu duen Gipuzkoako zerrendaburu. Autonomoen eta enpresa txikien alde egingo du.

Trantsizio energetikoa aldarrikatzen duzue, zer da hori?

Europar Banku Zentralaren arabera, gure ekonomia oso oztopo nagusienetako bat energiaren balioa (kostua) da. Guk arazo hau konpontzeko Trantsizio Energetikoko Plana aurkeztu dugu. Honekin, etxeak berriak genituzke energia galerak murrizteko, 200.000 lanpostu sortuz eta argindarraren fakturan 700 euro aurreztuz. Plan hau Alemanian aurrera eraman da jada arrakasta handiarekin.

Podemosen eraldaketa ekonomikoa egingarria da praktikan?

Gure programaren memoria ekonomiko eta juridikoa dakar, non aurrera eraman nahi ditugun neurri guztiak egingarriak direla justifikatzen dugun. PPK azkeneko lau urteetan aplikatutako austeritate politikak eta murrizketak ez dira ez bidezkoak, ez eta ekonomikoki eraginkorrak ere. PSOEren eta PPren bi erreforma laboralak baliogabetu behar ditugu, kalitatezko eta duina den lana sortuz, eta bereziki gure autonomoak eta enpresa txikiak babestu behar ditugu, hauek sortzen baitituzte lanpostu gehien.

Ze lekud erabakitze eskubideak Podemosen?

Podemos-Ahal Dugu erabakitze eskubidea Konstituzioan jasotzea proposatzen dugu. Demokrazian arazoak demokrazia handiagorekin konpontzen dira, eta hiritarrek erreferendum lotesle baten bitartez beraien etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute.

Itunetarako gertu zinatekete?

Helburua gobernatzea da; beraz, ez dugu aukera hori gogoan hartzen. Hala ere, legealdi hau ezberdina izango da gehiengo osorik ez delako egongo; proposamen konkretuen inguruko akordioak egon beharko dira.

ZABALIK



URTZI AMIANO
goiena.eus/komunitatea/

Olentzero maitea...

Gaztea naizen arren, zu baino dezente zaharragoa naiz. Izatasunak inoiz izan duen erditze handienetik nator ni. Atera kontuak, gogoratu ere ez naiz egiten. Antza, zuri eskatutako gurariak egia bihurtzen dituzula aditua daukat. Gizakiengan, haurrengan bereziki, kontzientzia pizteko ahalmena ere badaukazu. Hori diote, behintzat.

Azkenaldian, gaixo nago, oso. Burua altxatu ezinik nabil. Kristorenak eta bi pasatakoa naiz: izozteak, dardarak, erredu-rak, talka beldurgarriak... Denetarik jasandakoa naiz. Baina oraingo hau jasangaitza da.

Gaixotasunaren hasiera eramangarria zen, gorputzean zehar gutxi nituen, harmonian bizi ginen. Igarri ere ez nuen egiten. Baina azkenaldi honetan asko erreproduzitu dira, larregi dira. Kontrola galdu dute. Egunero daukat sukarra, garunean ere (iparrean), gutxi dauden arren, beraien efektua sumatzen dut, eta urtzen ere hasita nago jada. Larruzala zulatzen didate, nire zainak birbideratzen dituzte, askotan buxatzeraino.

Nire erraietako lehengaiak ere aurki xahutuko dituzte. Tatujak eta *pearcing*-ez josi naute. Isuri kutsakorrak etengabekoak dira, ia arnasa ez hartzeko bestekoak... ezin dut gehi-go. Jota nago.

Ez dizut ezer materialik eskatu nahi, baina betetzea oso zaila den guraria eskatu nahi dizut: gizakiengan kontzientzia piztea bakarrik eskatu nahi dizut. Bai, kontzientzia. Zaindu nazatela, berriz ere harmonian bizi gaitzkeela, ezer besterik.

Orain gutxi modan jarri naiz (Parisen), eta, nork daki, agian, hobetze aldera egingo dut. Denborak esango du. Baina ez dut uste. Ez naiz askorik fidatzen.

Honek horrela jarraituz gero, nire amaiera gertu izango delakoan nago, eta nirekin batera gizakiena ere bai.

Adeitasunez. Lurra.

Nire erraietako lehengaiak ere aurki xahutuko dituzte

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezipar@goiena.eus

Ero-haize

Hegoak jota, aztoramenduak bizi gaituela ematen du eta inork gutxik dirudi bere baitako. Berdin balio du eguraterako, Gabonei buruz jarduteko nahiz, bai, boto-kutxetara gerturatzeko garairako ere. Guztia batuko da datozen egunotan, baita loteria. Fede-jauzi ariketa bertsua egin da hel dakiok boletuari zein boto-paperari, zori hutsean sinesten duenik geratzen bada inon. Bat edo beste, ufadak, haize-orratzak nola, hegora begira jarriko gaitu. Madrilerak. Sari potoloa, irabazleak eta galtzaileak; banaketa egongo da. Txartel edo paper barik, jokoak guztiok joko gaitu. Haizeak bezala.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Gau islandiar bat

Zihara Enbeita
<http://goo.gl/GZ4Vh>

Islandian Gabon gauean liburuak oparitzeko ohitura omen dutela irakurri berri dut, eta Gabon gaua, gainera, irakurtzeko aprobetxatzen dutela.

Euskaldunok Durangoko Azokara begira liburuak ateratzen ditugun legez, islandiarrek gabon aurretik argitaratzen dituzte libururik gehienak, eta azaroan urte horretan argitaratutako liburuen katalogoa jasotzen dute denek etxean.

Eurentzako opor sasoi delako egiten dutela diote, eta, historiari erreparatuta, aspaldi opariak egiteko aukera bakarrenetako omen zelako liburuena. Papera merkea eta eskuragarria zelako.

Datu moduan, hamar islandiarretik batek inoiz libururen bat argitaratu omen du.

Gau-mahaiñoa estaltzen duten oraindik irakurri gabeko liburuei begira gelditu naiz.

Eta Enderen *Historia amaigabea*-ko protagonistaren legez, liburuak harrapatuta

(Islandiako elurra izango da irudi hori ekarri didana, ez baina literatura fantastiko zalea) irudikatu dut neure burua, literatur gaupasan.

Isiltasunean, eroso-eroso eseri, manta gozoz estali, eta jan eta edana eskuragarri. Eta hori luxua ez bada...

Izan ere, liburuak erostea bera askorentzat luxua bihurtu den legez (liburutegiez ahaztu gabe, noski, inor haserretu orduko), askorentzat irakurtzeko tartea bilatzea bihurtu da luxua.

Beti dago zeregin garrantzitsuagoren bat, eta, apurka-apurka, katalogoetako etxeetan legez dekorazioaren parte baino ez dira liburuak, dekorazio ederraren lagun. Edota jendeak irakurtzen dugula ikus dezan.

Espainiako eta Portugalgo unibertsitarien artean egindako ikerketa baten arabera, elkarrizketatuen laurdenak irakurtzen dutena baino gehiago irakurtzen duten itxura egiten dute. Eta %12-16k ez dute sekula irakurtzen edo oso gutxi.

Garik *egun finlandiar bat* baten legez, *gau islandiar bat* eskatzen dut nik. Luze-luze bat.

Beti berritua

Anjel Lertxundi
<http://goo.gl/vyrjfr>

Itsasoa inoiz ikusi ez bagenu bezala gelditzen garenean, horra momenturik ederrena. Itsasoak, ditxa da, lehorreko edozein begiraleku bihurtzen baitu eder, Elena Asinsen kuboak Zarauzko malekoian daudenetik, askotan begiratzen diot itsasoari osotasunetik hutsera eta hutsetik osotasunera doazen blokeen ilara luzeko harrien artetik. Ibilian-ibilian ordea, Paul Valéryren poemako miraria berritu nahian: *La mer, la mer, toujours recommencée* (Itsasoa, itsasoa, beti berritua).

Halatsu atzo ere: olatuek hondarra garbitzen eta berdintzen duten puntutik haien erpin apartsuetara joan zitzaizkidan begiak; handik itsasmugara egin zuten gero, eta bertan pausatu nituen, Elenak orain aste batzuk egin zidan azken deia gogoan: bakardadeaz mintzatu zitzaidan eta bisita bat agindu nion Gabonak baino lehen. Ez da posible izan. Baina atzo ere, atzo bereziki, lehenengo aldia balitz bezala ikusi nuen itsasoa Asinsen kuboan artetik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Fernando Lasaren sendiaren partetik

Juanma Lasa
(Fernando Lasaren sendia)
Bergara

Eskutitz honen bidez, gure aita Fernando Lasa Maiztegi azken agurra ematera etorri zinetenei eskerrak eman nahi dizkizuegu, lagun, senide, zaintzailea, lankide, etab.

Bere azkenengo egunetan zaindu eta bere ondoan egon diren Bergarako eta Arrasateko osasun publikoko zentroko Jesus, Maite, Mada eta Rosario langileei ere eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez.

Heriotza latza da beti, baina esan behar dugu momentu zail hauetan gure ondoan horren pertsona eta profesional zintzoak eta gertukoak izateak erraztu egin duela gure azken agurra eta aitaren azken bidaiarako bidea.

Aitak, ezkertiar eta abertzale peto-petoa izanda, beti zerbitzu publikoen alde jo izan du, eta azken momentuan ere horrelaxe izan da; eta esan dezakegu guztiz bete dela bere nahia, zerbitzu publikoetan lan egiten duten profesionalei esker.

Familiaren partetik, beraz, mila-mila esker.

150 milioi

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Pentsatuko duzue loteriaz ari naizela halako zenbaki potoloaz idaztean, baina ez, hozberoz nabil.

150 milioi graduko tenperatura lortu zuen Steven Cowley zientzialari britainiarrek bere laborategian; hau da, eguzkian

dagoen giroa baino hamar aldiz beroago. Berotasun horretan, atomoak elkartzea lortzen da energia askatuz eta hondakin gutxi sortuz; energia horri fusio energia deritza eta 2030erako erabilgarri edukiko dugula aurreikusten da.

Frantzian eraikitzen dabilta fusio energia sortzeko zentrala; proiektu horrek atomoak elkartzea baino gauza zailago bat lortu du: munduko gobernu garrantzitsuenak elkartzea.

Lurra planetan bizi den biztanleriaren erdiak baino gehiagok parte hartzen du fusio energiaren inguruan, eta horrek itxaropena sortzen dit gizakia egunen baten gauza izango dela elkartzeko Lurra planeta zaintzeko, bertan bizi garenok duintasunez bizitzeko, ondorengo belaunaldien errekurtsok urratu gabe.

Harrigarria da: gizakia gauza da eguzkian dagoen energia sortzeko, baina oraindik ez gara gauza energia hori energia kimiko bihurtzeko; hau da, janarian eta oxigenoan landareak egiten duena. Beraz, zuhaitzak zaintzen jarraitu behar dugu, zuhaitzak baitira guri gehien laguntzen diguten izaki bizidunak. Zure bizitzan zuhaitz bat sartzea aholkatzen dizut, ondorengo belaunaldiei egin diezaiekezun oparirik ederrena baita.

Libre izateko jaio haiz... Euskal Herria; libre izateko jaio gara... euskaldunok

Aitor Arantzabal, Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Ino Galparsoro
Debagoiena

Ezertan hasi aurretik, eskerrak ematea lauron izenean Libre dinamikan parte

hartu duzuen denoi, eta, bereziki, Libre dinamikako arduradunei.

Aurreko urtean Bergarako epaitegia inguratu genuen; ekitaldi hartan Inok Kafka ekarri zuen gogora: Joseph K prozesuko pertsonaiaren antzera sentitzen gara, bai. Ezker Abertzaleko kide eta beharginak izateagatik atxilotu eta espetxeratu gintuzten. Gure delitu larria bileretan, mobilizazioetan parte hartzea, prentsaurrekoak ematea, plenoetan egotea, batzarrak dinamizatzea... izan da. Zapatukoa moduko ekitaldietan parte hartzea da gure kondena.

Audientziako eremua ez da gurea, ez da eroso, ezta naturala ere. Guk laurok deklaratu dugu eta hamaika pasarte entzun ditugu, baita barregarriak ere, elkarri adarra majo jo diogu: bateko ibaia garbitzeko zerrendak, besteko politikaren yonkia... disfrutatu dugu, bai, bereziki, gura *aittona* eta eredu den Patxi Urrutiarekin, bere 70 urteekin duintasuna eta konpromisoa zer den erakutsi duelako.

Hasi da bai, prozesu berri baten aurrean gaude, 4/08 izenarekin batailatuta; bertan 35 pertsona epaituak izaten ari gara Auzitegi Nasionalean. Martxora arte iraungo duen epaiketa luzea. Zigor eskaera ere mardula da, 10 urteko espetxe zigorra eskatzen digute, talde terroristak portatideak izatearen akusaziopean. Esfortzua, beraz, handia izango da, baina ziur gaude zuen, guztion laguntzarekin aurre egitea lortuko dugula.

Ezker Abertzaleko kide ginen eta gara, nork bere eremuan bere ekarpena egiten jarraitzen dugu Euskal Herriko independentzia bilatze bidean, hauteskunde kanpaina gaude bete-betean; domekan botoa ematera deituak izan gara. Estatu mailako hauteskundeak dira, marko ezin hobea gure herriarentzat independentzia

nahi dugula aldarrikatzeko eta norabide horretan indarrak bildu eta Espainiarekin behin betiko apurtzea nahi dugula irudikatuzko. Arnaldo, Jose Luis eta beste batzuk hurrengo asterako deituak zeuden fiskaltzaren aldetik, bertan behera utzi dute, gezurrak erabilia; izan ere, egia bakarra zera da: hauteskunde kanpainen parte hartzea moztu dietela; bereziki, preso mantentzen duten Arnaldori. Doala hemendik gure besarkada goxoena berari eta beste preso politiko guztiei.

Militanteak gara, bai; horregatik, militantzia keinu bat eskatzera gatzokizue zuei guztioi: bete ditzagun boto-ontziak independentzia ekartzen lagunduko duten boto-txartelekin, bildu gaitzen independentziara; bildu gaitzen EH Bildura.

Gora, Euskal Herria libre, independente eta sozialista.
Gora, zuek. Esker mila.

Errealitatearekin bat izan

Marisol Andrade
Eskoriatza

Gabonak heldu dira gure etxean ateraino, barnean bihotzak zabaltu dira eta batzuk konturatu gara kokoteraino gaudela.

Mahaiak beteko dira; bai kontsumismoz zein hipokrisiaz, urtean zehar pila bat arazo, eta denok uste dugu konpondu behar dugula mundua gau batean, si akaso.

Aldamenekoa ezin ikusi, baina egun hauetan, solidaritatea bizi-bizirik. Kontrako sentimenduak agerian.

Denondako edukiko dugu lekua? Denondako egongo da janaria? Denondako lanpostuak? Denondako irteerak?

Izan ere, etxe barnean ondo begiratuz gero, dagoena miseria da.

Zenbat gaixo zein gaixotasun, zenbat preso zein kartzela, zenbat droga zein depresio familien artean, hezkuntzaren munduan, LOMCEko jabeak, gure euskararen zein askatasunaren gainean.

Sistema honen funtzionamenduak beti zapaltzen du gutxi duena; horrela ezin da jarraitu, ez dago eskubiderik!

Gabonetan gaude, eta, aldi berean, etxeoandreek lan gehiago; eta urteak pasatzen dira, baina euredako soldatarik ez.

Gauza bera antzinako lanpostuetarako; lurreko lan zein *gorputz* zerbitzuendako... gero eta lan gehiago, baina diru gutxiago. Seguritate sozialarena ez dugu komentatuko.

Aitona-amamak gehitzen dira, baina gure erizainak *kanpora* joaten dira, etxean ez ditugu-eta babesten. Beste ikasketa batzuetan, beste horrenbeste. Etxegabeteak, genero biolentzia, ingurumena, familien normalizazioa... zerrenda luzea da. Eta politikariak... hobe ez aipatzea.

Hauek gai hauek Gabonetan mahai gainera eramateko.

Bihotzez zein garunez, enpatizatzen. Horrela sortuko dira aleak, aldaketak egiteko; nork bere herrian, jasagarria izateko.

Inteligentzia emozionala praktikatzen, hori gure motor, gure eskuetan baitaude erantzun maitagarrienak, eta errealitatearekin bat datoz.

Gabonak heldu dira gure etxean ateraino, ea lortzen dugun hipokrisia gutxiago eta *enpatia* gehiago.

Bestalde, eskerrak asko abenduaren 19an Eskoriatzako Jose Inurtegi pilotalekura hurbilduko diren guztioi, *tximeleta gelako* umeei laguntzeko asmoz. Amuskako elkarteari, Eskoriatzako Udalarari, Luis Ezeiza eskolari eta, bereziki, herriko ume guztiei, hor egoteagatik.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak bame). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

NISSAN
Innovation that excites

NISSAN PULSAR BERRIA
BEHAR DUZUN TEKNOLOGIA,
BEHAR DUZUN UNEAN ZEHAZKI.

ARABAUTO
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>
Kontsumo mistoa 3,6-5,9 l/100 km. CO2 emisioak: 94-138 g/km.

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA. ZURE ESPERIENTZIA.

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

ESPAÑIARIAN EGINDAKOA
EURO NCAP 5 ESTRELA

HERRIAK

BERGARA

Dohaintzekin ondarea osatzen

Bergarako Udal Artxihoak eta Laboratorium museoak jasotzen dituzte herritarren dohaintza gehienak

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergarako Udalak herritarren eta elkarten hainbat dohaintza jasotzen ditu urtean zehar. Gehienak Udal Artxihoak eta Laboratorium museoak onartzen dituzte. "Dohaintza asko jasotzen ditugu, eta hori eskertzekoa da. Bergaran badagoela sentsibilitate ezberdin bat erakusten du horrek. Askotan etortzen zaigu jendea, zerbait bota aurretik artxi-borako interesgarria izan daitekeen edo ez galdetzera. Orain, jendeak identifikatzen du leku

bat dokumentu horiek gorde ahal izateko. Eta hori ere garrantzitsua da", azaldu du Bergarako Udal Artxihoako Arantzazu Oregik.

"Museoaren bildumarekin zerikusia duten piezak hartzen ditugu. Baloratu egiten dugu, txostena prestatu, eta onartzeko proposamena egiten diogu Udalari", azaldu du Rosa Errazkinek, museoeko teknikariak.

Bitxikieria ugari


Bergarako Udal Artxihoan dokumentu eta argazki ugari jaso

dituzte: Narbaiza ehungaietako eta UCEMeko dokumentuak, Arizondo aldizkariaren aleak, Toribio jauregiren argazkiak, Seminarioko artxihoak, Agirreolaren argazkiak...

Laboratoriumen oraindik ez dituzte dohaintza asko jaso, baina Errazkinek uste du pixkanaka jasoko dituztela: "Orain, museoaren berri duenean jendeak, pieza baten bat jasoko dugula uste dut, Seminarioan askoz ere bilduma handiagoa zegoela bada- kigu eta. Itxaropen hori badugu".



Vicente Jauregik Udal Artxihoari dohaintzan emandako argazkia. | TORIBIO JAUREGI



Felipe Uriartek Laboratoriumi emandako lurrin makinaren maketa. | GOIENA



Beira irudi estereoskopikoa (San Pedro elizatik prozesioa ateratzen).

EGILEA: EZEZAGUNA

VALLEKO KONDEAREN ARGAZKIAK Bergarako Udal Artxihoak jaso duen dohaintzarik berezien artean, Valleko Kondearen bildumako argazkiak daude. "Mila argazki baino gehiago ditugu, beira irudi estereoskopikoak barne. Kondea argazkizalea zen, eta, dirudienez, etxean laborategi bat zuen. Argazki hauek toki eta jende ezberdinetatik jaso ditugu", azaldu du Arantzazu Oregik.



UCEMeko dokumentazioa Bergarako Udal Artxihoan. | GOIENA



UNAI ITURRIOTZ

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

"Eraso matxista guztiak" buka daitezela ozen aldarrikatu dute

Arrasateko Mundu Martxak deitutako agerraldia izan da Emakume Txokoan

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Emakume Txokoaren aurkako eraso eta azkenaldian inguruan gertatutako eraso sexistak salatu zituzten eguaztenean, emakume horiei babes eta elkartasuna adieraztearekin batera. Arrasateko Mundu Martxako plataformak deitutako agerraldia izan zen, eta Debagoieneko feministek bat egin zuten horiekin.

Bilguneen "beharra"

Azaroaren 20an jasan zuen eraso Arrasateko Emakume Txokoak. Leihoa apurtu eta zenbait ondusun eramateaz gain, feminismoaren eta emakumeen aurkako mezuak agertu ziren. "Horrek kezka sorrarazi zigun, gure askatasunaren eta ahalduzaren aurkako ekintza izan zelako", adierazi zuten agerraldian. Eta, horren harira, Arrasateko Udalarri eskaera bat egin zioten: "Martxan jarri nahi dituen neurriak eta erabakiak zehazterakoan erabiltzaileon ikuspegia aintzat hartzea; bai txokoko segurtasun neurriei dagokionez, bai beste-lako erabaki garrantzitsuetan".

Emakumeen "bilgunearen alde" egin zuten, eta adierazi txokoa "emakumeendako etxe



Emakume Txokoan elkartutako kideak. | MAITE TXINTXURRETA

bat dela", hainbat belaunalditako eta hainbat herrialdetako emakumeak ezagutzeko lekua delako eta mugimendu eta sentsibilitate feministen bilgunea.

Aretxabaletan ere txoko bat abian jartzeko lanean dabilela mugimendu feminista aipatu zuten, baina Udal Gobernu berriak "eten" egin duela bideratuta zegoen egitasmoa. Eta Mundu Martxako plataformako kideek adierazi zuten bilguneak behar direla inoiz baino gehiago.

Debagoieneko erasoak

Azken hilabeteotan izandako eraso matxistak direla-eta kezka agertu zuten: "Debagoienean gertatu diren eta ezagutzera eman diren eraso matxista larrien inguruan kezka eta haserrea adierazi nahi dugu, eta emakume horiei gure babesik beroena eskaini". Eta aipatu zituzten Arrasaten, Zaldibar inguruan, azaroan, eraso jasandako neska eta Bergaran, gizon berarekiko salaketa jarria duten lau emakume.

Pasealekuko arbola hautatzeko azken txanpa

J.B. | ARRASATE

Arrasate pasealekuko obren ostean sortu den plazatxo berrian zein arbola jarri erabakitze aukera eman die Udalak herritarrei. Lau espezieren artean hautatu beharko dute: haritza, pagoa, ezkia edo astigarra. Parte har daiteke oraingo domekara arte eta botoa eman ahal da BAZen -domekan itxita egongo da- edo Udalaren webgunean. Bietan daude ikusgai espezie bakoitzaren adibideak -herrian bertan landatuta daudelako- eta fitxa teknikoak.



MIREIA LARRANAGA

Pozik herritarren erantzunarekin

Rosa Sarraoa eta Agurtzane Mondragon izan dira Arrasateko Udalarekin ere euskaraz kanpainako azken irabazleak: "Udalak ahalegin handiak egin ditu eta egiten ari da euskararen erabilera normalizatze eta lehenetsuna da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. Kanpainaren balorazioa ona da, baliabideen zein herritarren erantzunaren ikuspegitik", dio Udalak.

Kirol instalazioak erreserbatzeagatik ez da ordaindu beharko

Martitzeneko osoko bilkuran onartu zenez, Musakolako, Iturripeko edo Uarkapeko instalazioak erabiltzearen -denbora zehatz baterako alokatzeagatik, argia erabiltzeagatik...- ordaindu beharrekoa ez da ordaindu beharko aurrerantzean. Hori bai, hiru hilerako alokairu eskaerengatik ordaintzen jarraitu beharko dute, nahiz eta bazkide izan. Neurri horrekin, Udalak kasu egin die 117 erabiltzailek modu formalean egindako eskaerei; udalbatzak aho batez onartu zuten proposamena.

Askotariko ekintzak Iturbide egoitzan Gabonak ospatzeko

Urtero moduan, egitarau zabal antolatu dute Iturbiden Gabonak ospatzeko. Abendu hasieratik dabilta ospakizunetan eta oraindik honako hiru ekintza hauek geratzen zaizkie: astelehenean, abenduak 21, Udaleko ordezkariak pasatuko dira egoiliarrei opariak ematera, 13:00etan. Abenduaren 24an, Goikobalu abesbatzak urteroko kontzertua eskainiko du, 17:00etan hasita. Eta amaitzeko, urtarrilaren 5ean, Errege magoen bisita eta opari banaketa izango dute egoiliarrek, 17:00etan.

Gaueko guardia txanda guztiak, Fernandez farmaziak

Fernandez Corcuera farmaziako 2016ko guardiako txanda guztiak egingo ditu gauez. Eta urte osoan zehar funtzionatuko dute modu horretan. Hau da, 22:00etatik 09:00etara Fernandez Corcuera izango da zabalik egongo den farmazia bakarrik Arrasaten. Musakola auzoan dago kokatuta, hain justu, Maisu Aranbarri kaleko 1. zenbakian (943 79 22 26). Bestalde, Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak smartpho- neetarako aplikazioa jarri du deskargatzeko moduan, honako webgune honetan: www.cofgipuzkoa.com.

NIRE USTEZ



ENEKO FERNANDEZ

'Zuhaitzak'

Zuhaitzek basoa ikusten uzten ez dutenean. Zaborra 426 milioi euroko erraustegi baten desagerrarazteari *irtenbidea* deitzen diote eta Europako birziklatze mailarik altuenetan jarri gaituen sistemari, *arazo larria*. 5.000 milioi euroko abiadura handiko tren bat eraikitzeari *garapena* eta zuhaitz bat aukeratzeari, *parte-hartzea*.

Gerra Zibileko biktimak kontuan hartzen ez dituen txostenari *Memoria Historikoa* eta Udaleko batzorde informatzaileetan ahorik ez zabal-tzeari, herritarren alde *lan egitea*. Arrasate pasealekuan adostutako proiektu bat gauzatzeari *inposizioa* eta ia aldatetarik egin gabe bukatu eta argazkia ateratzeari, bizilagunei *entzutea*.

Kanpaina mediatiko bortitzek euren fruitua ematen dute eta mila aldiz errepikatutako gezurra egia bihur daiteke. Baina, azken finean, argazkien atzean lana beharko luke, arazoaren aurrean arduratu eta egitasmoetatik tiraka, herritarren parte hartzea. Gabonetako bonbilla liluragarri horiekin ez dute argituko Azoka berria egiteko kokaleku posibleen artean gaur egungoa ez egotea, hau da, udal teknika, herritar eta eragileek dagoeneko landu eta adostutako proiektua baztertu izana.

Itxuren, erosotasunaren eta titularren atzean miaztera gonbidatzen zaituztet, jarraitu dezagun kritiko izaten eta galdetu, adibidez, nork aukeratu duen Gorostizakoa izatea estali beharreko parkea eta ez beste bat.

"Titularren atzean miaztera gonbidatzen zaituztet"

SARRAILAGINTZA-LANAK,
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak



RAOS

Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK

Zorionak eta Urte berri on!!!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

harresi
ILE-APAINDEGIA

Gabon zoriontsuak guztioi!

Zerkaosteta 16 Behea
943 79 77 59
ARRASATE

Azoka lekuz aldatu gura du Udal Gobernuak

Beste herri batzuetako ereduak ari dira aztertzen; EH Bilduk dio prozesu parte hartzailea abiatu zela

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azoka Plaza egun dagoen lekutik aldatu nahi du Udal Gobernuak, eta, horretarako, Maria Ubarretxena alkateak martitzeko osoko bilkuran azaldu zuenez, beste herri batzuetako ereduak ari dira aztertzen: "Arrakastatsuen diren azokak eta arrakasta horren zergatiak aztertzen ari gara; amaitzean dugu txostena. Txosten hori bukatzean batzordeetara eramango dugu eta horixe izango da aurrerapausoa Azoka Plaza non eta zelan gauzatu erabakitzeko".

EH Bilduko Eneko Barberenak osoko bilkurako galdera eta eskaeren tartean atera zuen gaia: "Prentsan irakurri genuen Obra eta Zerbitzuetako batzordeburuak iragartzen zuela prozesu berri bat abiatuko dela azokaren espazioa eta proiektua definitzeko. Horren aurrean bi

gauza salatu ditugu: lehen, batzordetik ez dela pasatu prozesua berri bat abiatzearen puntua; bestetik, prozesu hori egin zen, proposatzen diren eragile berdinekin. Horrek ez du zentzurik".

Gardentasun Legea

Bestalde, hilabete honetan indarrean sartuko den Gardentasunaren Legearen harira Udalak prentsa ohar bidez iragarri du webgunean argitaratu dituela alkatearen eta zinegotzi guztien curriculumak eta laster emango duela aditzera alkatearen eta zinegotzien Ondasun Erregistroa. Beste zenbait neurri ere aurreikusten dituzte; besteak beste, diru laguntzen, higiezinaren eta udal langileen zerrendak eguneratu eta argitaratzea: "Asmoa da informazioa progresiboki webgunean txertatzea".



IMANOL SORIANO

Jostailuen trukea, abiada bizian

Txatxilipurdiren Jostailu Truke Merkatuan berehala agortu ziren jostailuak. Berez bi orduz egoten dira Azoka Plazako ateak zabalik umeei jostailuak truka ditzaten, baina minutu gutxitan "hegan" egin zuten gehienek: "Urtero izaten du harrera ona ekimenak. Umeak jostailuak aldatzeko deseatzten egoten dira", adierazi du Haurren Saileko Arantza Osorok.

'Bizitzeko herria' izango da Agenda 21 proiektuko ikasturterako gaia

J.B. | ARRASATE

Bizitzeko herria. Horixe izango da Arrasateko ikastetxe guztietako ikasleak protagonista dituen Eskola Agenda 21 proiektuaren 2015-2016 ikasturterako gaia: "Herri batek bizitzeko zer behar duen galdetu diegu ikasleei. Deneriko erantzunak jaso ditugu, baina askok erantzun digute natura, berdeguneak, zuhaitzak, jolasteko eta elkartzeko tokiak behar dituela bizitzeko herriak", adierazi dute Udako Ingurumen Eskolako arduradunek.

Horregatik, berdeguneei "arreta berezia" jarri diete eta horiek hobetzeko proposamenak egin

dituzte ikasleek. Ingurumen eskolako arabera, parkeak nola hobe daitezkeen azaltzeko maketak egin dituzte: "Arrasaten dauden inguru naturalak hobeto ezagutzeko pista jolasa egin dugu, eta ondoren, mapa batean adierazi dugu natura-gune horien gainean ikasitakoa. Udaltx inguruko eta hango zuhaitzak eta animaliak ezagutu ditugu", gaineratu dute. Hurrengo hiruhilekoan jolastokiek eta elikadurarekin zerikusia duten gaiak landuko dituzte. Ohitura denez, ikasturte amaieran udalbatzaren aurrean aurkeztuko dituzte proposamen guztiak.



Martitzeneko osoko bilkurako bozketa bat. | AMAIA TXINTXURRETA

Kirol jarduerak doan probatzeko aukera egongo da bihar

Kirol Zerbitzuak honako hiru jarduerak doan probatzeko aukera eskainiko du bihar: *k-strech* delakoa Uarkapen (10:00) eta gimnasia hipopresioa (11:00) eta yoga (12:00) Musakolan. Gainera, gimnasia aholkulari bat kontratatu dute makinaren erabilera, kirol plan pertsonalizatuak eta bestelako zerbitzuak doan eskaintzeko. Orduetegi honetan egingo du lan adituak: astelehen eta eguaztenetan, 16:00etatik 20:00etara; martitzenetan, 07:00etatik 11:00etara; eguaztenetan, 09:00etatik 13:00etara eta egubakoitzetan, 10:30etik 14:30era. Informazio gehiago: 943 77 16 77.

OHARRAK

AUTO ZIRKULAZIOARIK EZ BITERIN ETA GARIBAIN

Abenduaren 21eko 14:00etatik aurrera eta hilaren 23ra arte, autoen zirkulaziora itxita egongo da BiteriN. Garibai ere itxita egongo da hilaren 22an, egun osoan. Autobusa Zerrajera eraikinean geldituko da.

1975EAN JAIOTAKOAK

2016ko martxoaren 12an, 1975ean jaiotako mondragoe-tarrek kintada ospatuko dute. Otsailaren 21a baino lehenago 50 euro sartu beharko dira Laboral Kutxaren kontu honetan: 3035 0047 19 0471083544. Interesatuak izen-abizenak modu honetan idatzi behar dute: *75_Abizena_Izena*.

erreka

taberna - jatetxea

Ondo ibili santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate

Tel.: 943 53 32 72

erreka@errekajatetxea.eu

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zorientsuak!

Iturriotz 21 · Tel.: 943 79 03 84 · eyaec@telefonica.net

ARRASATE



FORD TRANSIT COURIER

Arrazoi askorengatik da Ford Transit Courier zure negozioaren oinarri: dituen emisio baxuengatik (99 g/km) eta erregai-kontsumo txikiagatik (3,8 l/100 km).
Urrun eramango zaitu.
5.900 eurotik aurrera



MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Ford Transit Courier gama, batez besteko kontsumo konbinatua: 3,8-5,3 l/100 km. CO2 emisioak: 99-120 g/km. EcoBoost motorrak %20 hobetzen ditu kontsumoak motor konbentzional batekin alderatuta. Ford Transit Courier Ambiente 1.0 EcoBoost 100 ZP autoarendako da prezioa. Hauek ez daude barne: BEZA, IEDMT (garraio bide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erkidego bakoitzaren arabera) eta garraioa. Eskaintzak barne hartzen du deskontua FCE Bank PLC SERekin finantzatzearren "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez, 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe dago eskaintza. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarrian agertzen diren modeloei ez dute zertan eskaintza izan. Ford.es.



Atxabalpeko zelai nagusia eta albokoa lotuta daude gaur egun, biak nahi denean erabiltzeko gertu. | JOKIN BEREZIARTUA

Munduko futbol liga onenari erantzuteko gertu dago Atxabalpe

Bigarren zelaia inauguratu dute Udalak eta Eibarrek; akordioa lau urterako da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mondra futbol taldeak 2007an bertan jokatzeari utzi eta 2014ra arte inongo erabilera barik egon ostean, Atxabalpe garai hartan erabiltzen zenean baino askoz itxura hobea du gaur egun. Munduko futbol ligarik onenean diharduen Eibar taldeak inbertsio handia egin du ohiko berdeguneaz gain, alboko zelaian ere belarra jartzeko. Martitzenean inauguratu zuten alboko bigarren zelai hori, hondarrezkoa zena.

Eibarrendako oso urrats garrantzitsua izan da: "Oso inportantea da guretzako. Lehen Mailan sendotzeko bidean beste urrats bat da. Bere garaian aurrerapauso garrantzitsua izan zen Atxabalpen lehen zelaia izatea, eta bigarren zelai honekin beste pauso bat emango dugu profesionalizazioarako bidean", dio Eibarko presidente Alex Arantzabalek. Eibarrek beharrezkoa zuen bigarren zelai bat, batez ere neguko hilabete "gogorrei" aurre egiteko.



Ubarretxena, Arantzabal eta Garai | J.B.

Mesedegarria bi aldeendako

Atxabalperen jabea den Arrasateko Udaleko alkate Maria Ubarretxenak ere adierazi du "pozgarria" dela akordioa, nahiz eta Atxabalpe herrigunetik nahiko urruti dagoen: "Pena da zelaia herritik gertuago ez egotea, umeak etor daitezten entrenamenduak ikustera. Izan ere, Lehen Mailako talde bat hemen entrenatzen izatea herriarendako ona da. Udala beti egongo da kirolarekin duen erantzukizunari eta kon-

promisoari balioa emateko gertu". Inaugurazioa gertutik jarraitu zuen egun kirol zinegotzia den Ander Garaik, Mondrako azken presidentea.

Arantzabalen arabera, "inbertsio handia" egin dute Atxabalpe egun dagoen moduan uzteko: "Akordatzen naiz lehen aldiz hona etorri ginenean zaldiak zeudela belarra jaten eta hauek guztiz utzitako instalazioak zirela". Horrez gain, Eibarko presidentek uste du "onuragarria" dela Arrasaterendako eta Debagoien osoarendako munduko futbol liga oneneko talde batek Atxabalpen entrenatzea.

Hilero 1.200 euro

Lau urterako akordioa sinatu dute Udalak eta Eibarrek, eta, bi aldeek hala erabakiz gero, lagapena luzatzeko aukera egongo da. Talde armaginak 1.200 euro ordaintzen dizkio Udalarari hilero Atxabalpeko instalazioen erabilera pribatuagatik.

Santamasetako tenis txapelketako finalak, etzi

J.B. | ARRASATE

Amaitzeaz da AKE elkartearen santamasetako tenis txapelketaren seigarren edizioa. Azaroko hirugarren aste bukarran hasi zen; helduen mailan 38 jokalaririk lehiatu dira; gaztetxo mailan, 15 jokalaririk. Finalak domekan jokatu dira. 10:00etan, helduen mailan, Eneko Fernandez arrasatearra eta Ruben Pinillos eibartarra hirugarren postuagatik lehiatu dira -bigarren postuan- eta 11:30ean gaztetxo mailako finala jokatu dute Igor Errasti arrasatearra eta Oinatz Orbegozo zarauztarra -bigarren postuan-. Helduen mailako txapelketa Sebastian Sierra arrasatearraren eta Aitor Magallanes aretxabaltarraren artean erabakiko da, 11:00etan -lehen postuan-.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Dribling - Olympiakojos FC	7-3
Betrayer - Monte Taberna	9-7
Abokajarro - Lasagabaster	3-4
Rayo Makabro - Aldatz	2-6
Sonografos - Elorra JMA	5-3

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Aldatz	10	4
2 Dribling	9	4
3 Monte Taberna	9	4
4 Sonografos	7	4
5 Lasagabaster	7	4
6 Abokajarro	6	4
7 Betrayer	6	4
8 Elorra JMA	4	4
9 Olympiakojos FC	0	4
10 Rayo Makabro	0	4

PARTIDUAK

ABENDUAK 19. ZAPATUA
10:30 Aldatz - Elorra JMA / Sonografos
11:30 Sonografos - Monte Tab. / Aldatz
12:30 Rayo Makabro - Olympiakojos FC / Monte Taberna

ABENDUAK 20. DOMEKA
11:00 Dribling - Lasagabaster / Abokajarro
12:00 Betrayer - Abokajarro / Dribling

Santamasetako pilota txapelketako finalak jokatu dira gaur Uarkapeko frontoian, 19:00etan

Santamasetako pilota txapelketa gaur amaituko da; izan ere, gaur jokatu dira aurrebenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailako finalak, Uarkape pilotalekuan (19:00). Aurten 80 bat gaztetxok hartu dute parte, eta, Arrasate Pilota Taldearendako barruko txapelketa izanik, harrobia lantzeko oso aproposa izaten da. Bestalde, Uarkape profesional mailako eskuz binakako txapelketako partidu baten lekuko izango da abenduaren 22an (18:00): Bengoetxea VI.ak eta Untoriak Irribarriaren eta Zubietaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Sarrerak salgai daude Buenena eta Monte tabernetan, 20 eurotan. Era berean, Arrasate Pilota Taldekoak hasiak dira urteroko zozketako txartelak saltzen; angulak izango dira sari nagusia. Zozketa otsailean egingo dute.

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
 Tel.: 943 79 52 50

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
 Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
 Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
 Kontxi Lazkano - Pedagogoa
 Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
 Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
 Estimulazio goiztiarra

Logopedia
 Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
 psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

arbolapeta



Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Gipuzkoako bi finalista egongo dira santamasetako bertso saioan

Maia eta Martinekin batera, Alberdi eta Lekue; hilaren 22an, Amaian (20:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urtero legez, goi mailako bertsolariak gonbidatu ditu AEDk santamasetako bertso saiorako. Abenduaren 22an izango da, Amaia antzokian, 20:30ean. Honako bertsolari hauek igoko dira oholtzara, Asier Iriondo gai jartzailearekin batera: Gipuzkoako Txapelketako finalerako sailkatu diren Jon Maia eta Alaia Martin, eta Uxue Alberdi eta Etxahun Lekue. Sarrerak Monte, Irati eta Jai Zale tabernetan eta AEDn daude salgai; saioa hasi aurretik ere erosi ahalko dira, Amaia

leihatilan. Sarreraren prezioa hamar euro da; AEDko eta Goiena Klubeko bazkideendako, zortzi euro.

"Saio borobila" espero dute

AEDren klasikoetako bat da santamasetako bertso saioa, euskara elkarteak antolatu zuen lehen ekintzetako bat izan zen-eta, duela 30 bat urte: "Arrasate ez da herri bereziki bertso zalea baina badaude egon oso bertso zale diren arrasatearrak eta guretako garrantzitsua da herrikide horiei urtean bitan gutxienez [bestea sanjuanetan egiten da] bertso

saio bat eskaintzea, puntako bertsolariak ekarri, ingurukoei aukera eman...", adierazi dute.

Aurten ere "saio borobila" espero dute: "Etorriko diren lau bertsolariak aintzat hartuta, saio borobila aurreikusten dugu, umoretsua, freskoa, intelgentea eta jai giroko egun baterako aproposa. Ziur Asier Iriondo ere ez dela atzean geratuko; ondo ezagutzen dugu, duela urte batzuk AEDko Bertso Eskolako irakasle izan zen eta. Beraz, gonbidatu jendea, bereziki gazteak, parrandan eten bat eginez, Amaia hurbiltzera".

Familia giroan gozatzeko 'Pinto Pinto' antzezlanaren bihar Amaian

J.B. | ARRASATE

Anita Maravillas antzerki taldeak *Pinto Pinto* umeendako antzezlanaren taularatuko du bihar, zapa-tua, Amaia antzokian (17:00). Sarrera bost euro izango da. *Pinto* txakurkumearen istorioa kontatzen du ikuskizunak: "*Pinto*-k jolastea maite du, baina badirudi norbaitek beldur diola eta ez duela harekin jolastu gura. *Pinto*-k adiskidetasunaren jokia zein zoragarria eta zen sinplea den gogoratuko digu", azaldu dute Anita Maravillas taldekoek.

Arropa garbitegi baten agertuko da *Pinto* eta bertako langileei munduarekiko duten ikuspe-

gia eraldatuko die txakur txikiaren agerraldiak. Bi langile horien eta *Pinto*-ren artean, lagunarteko istorio ederra sortuko da.

Txotxongiloa protagonista

Lau urtetik gorako umeei dago zuzenduta bereziki, baina helduek ere gustura ikusteko antzezlanaren izango da: "Umeei beti gurasoak, lagunak edo aitajaun zein amandreak etortzen dira eta euren ere eginda dago. Keinu ezberdinak egiten ditugu adin ezberdineko jendearentzat". Txotxongiloa da ikuskizunaren protagonista nagusia eta antzezlanak ez dauka testurik.



Ikuskizunaren une bat. | ANITA MARAVILLAS

Familian gozatzekoa den ikuskizun honek 50 minutu inguru irauten du. Sarrera gutxi batzuk saldu dira oraingoz.

Ikasleak eta Banda, gertu Gabonetako saioetarako

J.B. | ARRASATE

Arrasate Musikalek hiru kontzertu antolatu ditu aurten ere Gabonetarako. Martitzenean ikasleek kontzertua eskaini zuten Iturbide egoitzan; ume askok hartu zuten parte eta denetarik instrumentuak jo zituzten egoiliarren gozamenerako. Gaur izango da Gabonen harira ikasleek eskainiko duten bigarren kontzertua; Kultura-teko areto nagusian izango da, 18:30ean. Taldeka zein bakarka eta hainbat instrumenturen presentziarekin, Gabonetako abestiak joko dituzte adin ezberdinetako ikasleek.

Urtea agurtzeko emanaldia

Amaitzeko, Arrasate Musikaleko Bandak urtea agurtzeko Gabon zaharreko kontzertua eskainiko du abenduaren 31n Amaia antzokian (13:00). Mikel Markiegi zuzendariaren gidaritzapean, Ludwig van Beethoven-en *Egmoont*, Richard Addinsell-en *Warsaw Concerto*, Miguel Gonzalez Bastidaren *Ezpatza Dantza*, Johan de Meij-en *Aquarium* eta John Williams-en *Harry Potter* piezak interpretatuko dituzte. Aurretik, 11:00etan hasita, Banda kalejiran irtengo da herriko kaleak girotzeko. Bi emanaldiak doakoak dira.



Ikasleen Gabonetako kontzertua Kulturaten, artxiboko argazki baten. | GOIENA

Lukas Prest zuzenean gaur eta euskaltzaleen lehen mus txapelketa abenduaren 26an Jai Zale tabernan

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale tabernan (Olarke kalea 37) ez da ekintzarik faltako datozen egunotan. Gaur, egubakoitza, zuzeneko musika izango dute: punk, rock eta hardcore doinuen bueltan mugitzen den Eskoriatzako Lukas Prest taldea igoko da oholtzara, 18:30ean. Abenduaren 22an, santamas jaietako egun handian, ospakizun berezia egingo dute. Eta, abenduko egitaraua ixteko, euskaltzaleen lehen mus txapelketa antolatu dute hilaren 26rako, 16:00etan hasita.



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA



Euskal okela, bertan egindako txorizoa,
tripakiak eta solomoa

Olarke kalea 20
ARRASATE



ARPE

Ile apaindegiko artikulua

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAIKUNTZA

Zarugalde kalea 6 - 1
ARRASATE
Tel.: 943 08 27 39
607 95 79 11
www.asreformak.net

Ohiturei eutsiz, jan dezagun txistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!



Saioa Arkonada. | JOSETXO IMBULUZOQUETA



Argider Isasti. | ARGIDER ISASTI



Julen Umerez. | ALOÑA MENDI

Arkonadaren, Isastiren eta Umerezen artean aukeratu behar dute herritarrek

Urteko kirolari onenaren saria jasoko du batek hilaren 23an, Oñatiko Kirol Sariak 2015 ekitaldian

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko hiru kirolariren artean bat aukeratu beharko du herritarrek, bere ustetan herriko kirolari onenaren saria jasotzea merezi duena. Eta hiru aukera ditu: Saioa Arkonada, Argider Isasti eta Julen Umerez. Hilaren 22ra arte dago epea zabalik botoa emateko. Sari banaketaren ekitaldia 23an izango da, 19:00etan, udaletxe oso bilkuren aretoan.

Doan

Gabonen bueltan antolatu ohi izan du Udalak Oñatiko Kirol Sariak ekimena, eta aurten ere horrela izan da. 2015ean zehar nabarmendu diren kirolarien eta kirolaren inguruan lan egiten duten eragileen, teknikarien eta laguntzaileen lana eta esfortzua aitortu gura ditu Udalak aben-

duaren 23an egingo den ekitaldian. Bederatzi sari emango dituzte guztira; tartean, eta hirugarren urtez, herritarrek hautatutako urteko kirolari onenaren saria. Epaimahaiak hiru hautagai hauek proposatu ditu sari horretarako: Saioa Arkonada korrikalaria, Argider Isasti triatleta eta Julen Umerez txirrindularia. Hirurek egin dituzte sari hori irabazteko beste meritu urtean zehar, baina batek bakarrik jasoko du saria.

Abenduaren 22ra arte egongo da botoak emateko aukera Udalen webgunean, www.onati.eus atarian. Botoa ematen duten guztien artean, Zubikoa kiroldegiko ekintza batean doako erabilera zozkatuko da hilabete baterako.

Aurreko bi urteetan, Jokin Garai mendi lasterkariak eta Josune Odriozola igerilariak jaso dute sari hori.

Imanol Astudillo Euskadiko onena kumitean

O.E. | OÑATI

Imanol Astudillo oñatiarra Euskadiko txapeladuna da kumitean, 52 kilo azpiko kategorian. Pasa den domekan lortu zuen urrezko domina, Gasteizen jokaturako Euskadiko txapelketan. Oier Alberdik bronzeko eta 84 kilo azpikoan. Zapatuan, berriz, Gabonetako infantil mailako txapelketa jokatu zuten Donostian eta Aloña Mendiko karate saileko gaztetxoek sei domina ekarri zituzten.



Aloña Mendiko karateak. | ALOÑA MENDI

Espetxe pastorala materiala biltzen ari da presoentzat

O.E. | OÑATI

Parrokiako espetxe pastorala Martuteneko presoendako laguntza kanpaina egiten dihardu. Jaso gura duten materiala Garoa aretoan ari dira biltzen. Gaur, egubakoitza, da azken eguna.

Barruko arropa berria gizon nahiz emakumezkoendako, bainuko eta kirol oinetakoak 41-44 neurri artekoak, azazkalak moztekoak eta galtzerdiak dira gehien behar direnak. Baina, horrez gain, tabako gorria, metxeroak, turroi biguna eta kartazal nahiz seiluak ere jasoko dituzte. Garoa aretoa 18:00etatik 20:00etara eraman daitezke produktu horiek; orduetegi horretatik kanpo, Irizar estankoan, Sillero zapata denda eta Hirukar liburu denda jasotzen dute material hori.

Alacanteko Villena espetxera martxa egingo du bihar Ernaik, Joseba Arregiri elkartasuna adierazteko

Alacanteko Villena espetxean preso dagoen Joseba Arregi oñatiarra elkartasuna adierazteko irteera antolatu du biharko Oñatiko Ernaik. 03:00etan abiatuko dira eta txalaparta doinuak, bertsolarien saioak eta musika emanaldiak egingo dituzte han. Zapatuan gaztelekuan ateratako argazkia ere helaraziko diote Arregiri.



Joan den zapatuan gaztelekuan ateratako argazkia. | IMANOL SORIANO

%100eko hobariak 2016ko larreratzeko tasetan

O.E. | OÑATI

Datorren udaberrian larreratu behar duten animalia kopurua urtea bukatu aurretik jakinarazi behar diote Udalarri herriko abeltzainek. Aloñako eta Artiako herri lurretako larrerata bidaliko dituzten animalien datuak abenduaren 31 baino lehen eman beharko dituzte; bestela, ez dute larreratzeko baimenik izango. Emandako datu horiek Aldundiak egiaztatatu behar ditu, eta horren ondoren ordaindu beharko dituzte tasak. Udalak eta Alo-

bel Elkarteak deituriko auzolanetan parte hartzen duten abeltzainei %100eko hobaria aplikatuko zaie tasa horietan.

Larreratu dituzten zaldiak eta behiak identifikatzeko lepokoak erabiliko dituzte eta hazterien aurkako txertoa hartu beharko dute ardiek. Artalde mendira bota baino hilabete lehenagoko epean eman beharko zaie tratamendua animaliei eta albaitari batek sinatuta aurkeztu beharko dute osasun neurri hori hartu duten agiria.

Mari Domingi eta Bizarzuri Mizke gozoki dendan egongo dira gaur

Bizarzuri eta Mari Domingi Mizke gozoki dendara joango dira gaur, egubakoitza, 18:00etan. Olenzerendako gutunak jasotzeko joango dira eta 20:00ak bitartean denda egongo dira herriko umeen gutunak hartzen eta eurekin hitz egiten. Mizke gozoki dendak 30 urte bete ditu aurten, eta umeekin ospatu gura izan ditu, Gabon giroan.

Gabonetako kontzertua egingo du bihar Oñati abesbatzak

Oñati abesbatzak Gabonetan egin ohi duen kontzertua eskainiko du bihar, zapatua. Agustindarren elizan izango da, 20:00etan. Mirengu Plazaola eta Loli Ordoki izango dira emanaldiaren zuzendariak. Zuzendariak zein abesbatzako kideek organo jotzailearen laguntza izango dute kontzertuan.

Bihar sarituko dituzte Gabonetako erakuslehoak

Bihar, zapatua, emango dituzte herriko merkatarien Gabonetako erakuslehoen sariak. Guztira, Oñatiko 33 komertziok parte hartu dute aurtengo lehiaketan. Zazpi sari emango dira, horietako bat herritarrek aukeratutako lehenengoari emango zaio. Hor parte hartzen dutenen artean, gainera, 200 txantxi zozkatuko dira.

Txantxien truke-bulegoa egunero dago zabalik orain

Euroak txantxiengatik aldatzeko truke-bulegoaren ordutegia zabaldu egin du Udalak. Hala, udaletxe harreraren dagoen truke-postua egunero dago zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 20:00etara. Euroak txantxien truke aldatzerakoan, % 5eko irabazia lortzen du herritarrek; 100 euroekin, 105 txantxi.

Gabonetako jaiegunetan autobusik ez Arantzazura joateko

Gabonetako jaiegunetan ez da autobus zerbitzurik egongo Arantzazura joateko. Hau da, abenduaren 25ean eta urtarriaren 1ean ez da zerbitzu hori egongo. Aldiz, urtarriaren 6an ohiko ordutegiarekin ibiliko dira Oñati eta Arantzazu lotzen dituzten autobusak, baita Arrikruzetik pasatzen direnak ere.



Iazko Elkartasun Azokan bisitariak produktuak ikusten. | GOIENA

Elkartasun Azoka egingo du Elkar Hezi ikastetxeak bihar

Siriako errefuxiatuei bideratuko dizkiete lortzen dituzten irabaziak

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Elkar Hezi Taupadak hamabostaldiaren barruan, Elkartasun Azoka egingo dute bihar, 10:00etan hasita, herriko plazan. Hamabostaldiaren aurtengo gaia errefuxiatuak eta Eskola Agenda 21eko mugikortasuna eta osasuna izango da. Horregatik, aurtengo azo-

kan bildutako dirua Siriako errefuxiatuak diruz laguntzeko erabiliko da. Edozelan ere, hamabostaldi horren baitan, ekintzak egin dituzte egun hauean Siriako egoera ezagutarazteko asmoz: ipuin-kontaktak, komikiak eta *Walls* filmaren aurkezpena, besteak beste.

Askotariko tailer eta postuak

Gobernuz kanpoko hainbat erakunderen postuak izango dira biharko azokan; 18 inguru. Euren erakundeetan egiten dutena erakutsiko dute eta hainbat produktu jarriko dituzte salgai: artisautza, bidezko merkataritzako pro-

duktuak, elastikoak, bitxiak... Horretaz gainera, ikasle, irakasle eta gurasoek egindako gozogintza eta bitxigintza postuak ere egongo dira, eta, urtero bezala, txosna jarriko dute sagardoarekin, txorizoarekin eta saldarekin. Aipatzekoa da aurten ere batxilergoko 2. mailako ikasleak ibili direla azokako antolakuntza lanean, eskolako kultura prozesuarekin batera elkarlanean.

Ikastetxe kanpoko postuak ere jarriko dituzte. Esaterako, Acesmak eta Gurutze Gorriak jostailu bilketa egingo dute, eta azken horrek berpizte kardiopulmonar tailerra eskainiko du, 12:30ean hasita. Bestalde, hamabostaldiaren gaia kontuan izanda, errefuxiatuen gaineko erakusketa egongo da, eta, Eskola Agenda 21ek antolatuta, *Clown* ikuskizuna -3 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako ipuin-kontaktak- eta mugikortasun eta osasun tailerra. Tailer horretan ibilalditxoak egingo dute, 11:30ean hasita, ordubetez. Aurpegi margotze tailerra ere egongo da.

Olentzeroren bisita

Horrekin batera, datorren eguaztenean, hilaren 23an, Olentzeroren jaia ospatuko dute Elkar Hezi: Olentzero joango da Haurtzaindegira, Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzara, eta neska-mutikoei abestiak, marrazkiak eta eskutitzak eskainiko dizkio ikazkinari.

NIRE USTEZ

MIKEL
ARANBURU



Kirolaz harago

Goizeko seiak; iratzar-gailua zarataka hasi bezain pronto gora; aurreko egunean gertu utzitako arropak jantzi, motxila gainean hartu eta igerelekura. Elurra, euria, haizea... berdin zen. Etxetik kiroldegira bidean gaueko erreleboan lan egin zutenak agurtzen nituen. Aldageletara iritsi, gainerako igerilariak agurtu (berandu nenbilen egunetan izan ezik) eta uretara. Onartzen dut uretara sartzen gehien kostatzen zitzaionetako bat nintzela.

Horrela igaro genituen makina bat urte igeriketan genbiltzan igerilariok, baita gu baino lehenago aritu zirenek eta baita gaur egun dabiltzanek ere. Oker ez banago, egun, seietan sartzen dira uretan. Askok zorotzat hartzen gintuzten, baina gaur da eguna esfortzu hori egiteaz harro nagoela.

Larunbatean, igeriketa sailaren 30. urteurrena ospatzeko 100dik gora elkartu ginen, gazte eta heldu, aurretik igerilekuan metro gutxi batzuk egingo. Momentu hunkigarriena, zalantzarik gabe, bertaratutako guztiok altxatu eta denok ezagutzen dugun *Artza* txalotu genueneko.

Berak aitortu bezala, momentu onak pasa izan ditugu elkarrekin, baita txarrak ere; guztiok osatzen dugu Aloña... baina ez didazue ukatuko gogor lan egin eta jarraitzen duenaren beharra ezinbestekoa dela gutxienik orain arteko 30 urteak betetzeko. Eskerrik asko, *Artza!* (Laudorio-zalea ez den arren)

Erakustaldia egingo dute bihar iluntzean herriko gimnastak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko gimnasia erritmika taldeko kideek urteroko erakustaldia egingo dute bihar, zapatua, 18:30ean, Zubikoa kiroldegiko kantxan.

Guztira, 120 gimnasta inguru dira talde horretako kide eta guztiok parte hartuko dute biharko ekitaldian. Taldeka egingo dituzte ariketak, musika lagun.

Joan den domekan, abenduarien 13an, Donostian izan ziren taldeko hainbat kide, Gipuzkoa Basket taldearen saskibaloia partiduan. Atsedendian Ilunbeko kantxara atera ziren gimnasta oñatiarrak, erakustaldia egitera. Bestalde, sailaren 25. urteak prestatzen hasi dira dagoeneko. Almodena Cid Oñatira etorriko da datorren urtean.



Gimnasta oñatiarrak Ilunbeko kantxan domekan. | ALOÑA MENDI

Gaztelekuko bertso-paper lehiaketa martxan da

O.E. | OÑATI

Zazpigarren urtez antolatu dute gaztelekuko bertso-paper lehiaketa. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako eta DBHko eta Batxilergo mailetako gaztekoek zuzenduta dago.

Lehen Hezkuntzako ikasleei hiru gai hauek jarri zaizkie euren lanak egiteko: txikitako oroitzapenak, arratsalde bat Kuboan eta leihotik begira nago. Zortziko handian edo txikian bi bertso edo lau kopia osatu beharko dituzte eta bost onenak izango dira sarituak. Nagusien mailan, berriz, hiru onenak sarituko dituzte.

Horiek hiruna bertso osatu beharko dituzte neurri eta gai libreak.

Sari banaketa

Lehiaketan parte hartu gura duten gaztekoek urtarrilaren 15a aurretik entregatu beharko dituzte lanak. Sariak kultura produktutan gastatzeko txantxiak eta bertsoleharitzarekin lotutako opariak izango dira. Ohikoa den moduan, jaialdia egingo dute sari banaketa egunean. Urtarrilaren 22an izango da hori, gaztelekuan bertan, eta ekitaldira Gipuzkoako txapeliduna ekartzen ahaleginduko dira.

En Tol Sarmiento taldeak Oñatin hasiko du bira

O.E. | OÑATI

Ixilik, En Tol Sarmiento eta Ze Esatek! taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. Arabako Iekora herrian sortutako ETSk, gainera, Oñatin hasiko du *Zure mundua* disko berria aurkezteko bira. Ze Esatek! talde azpeitiarra *Inoiz egin dugun diskorik onena* lan berriarekin etorriko da. Eta bi talde horiekin batera joko du Oñatiko Ixilik taldeak, Euskal adicts maketa erakusteko. Kontzertua 22:30ean da. Sarrera, bost euro.

"Askok
zorotzat
hartzen
gintuzten"

ZELAIA

LIKIDAZIOA

DESKONTUAK % 70

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak

Euskadi Etorbidea 3 • Oñati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 08

Juanje Alberdik asteleheneko osoko bilkuran utziko du kargua

Elena Lete behin-behineko alkate izango da orduetik, izendapenaren zain

JULEN IRIONDO | BERGARA

Urteko azken ohiko osoko bilkura izango da astelehenekoa -19:30ean-, eta bertan esango dio agur Juanje Alberdik alkatezari. EAJk maiatzeko hauteskundeak irabazi eta Alberdik ekainean hartutako kargua utzi egingo du, duela hilabete iragarri bezala - orain bi aste iragarri zuten jeltzaleek haren ordezkia Elena Lete izango dela-.

Alberdik alkatezta ez ezik udalbatzako bere lekua ere utziko duenez, Espainiako Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatuko zaio maiatzeko bozketara aurkeztutako zerrendako hurrengo hautagaia izendatzea zinegotzi, Igor Oiarbide, alegia.

Horrekin batera, alkateordeen berrantolaketaren berri ere emango da osoko bilkuran. Elena Lete ez zen orain arte alkateorde, eta izendapen hori jasoko du -lehen alkateorde izango da-, alkate izendatua izan bitartean behin-behineko alkate gisa jardun ahal izan dezan -alkateari dagozkion erabakiak berak hartuko ditu hortik aurrera-.



Juanje Alberdi, ezkerrean, aurreko asteko ezohiko osoko bilkuran. | IMANOL SORIANO

Igor Oiarbidek Hauteskunde Batzorde Zentralaren kredentziala jasotzean, osoko bilkuran -ohikoa, edo ezohikoa deituta- hartuko du hark kargua eta baita Elena Letek alkatezta ere.

Alkatezaren eta ibilbide profesionalaren artean erabaki behar eraman dute Juanje Alberdi kargua uztera; Alberdi Oñatiko Ulma Handling Systems kooperatibako zuzendari nagusi izango da aurrerantzean.



Igor Oiarbide. | GOIENA

Agorrosingo igoera, aurrera

Aurreko egubakoitzeko ezohiko osoko bilkuran bozkatu zituzten Agorrosingo prezioen %20ko igoeraren kontra EH Bilduk jarritako alegazioak. Udal Gobernuaren osatzen duten alderdietako ordezkarien kontrako botoa jaso zuten alegazioek, eta ez zuten aurrera egin. 2016an, beraz, %20 igoko da Bergaran erroldatutakoek Agorrosingo abonuagatik eta ikastaroengatik ordaindu beharrekoa.

Alkateak adierazi zuen igoerarekin jasoko den dirua Agorrosin geratuko dela; Agurte Barrusok, berriz, Agorrosin autofinantzazioa %62-64koa izanda igoera hori ez dagoela justifikatuta.

54.200 euro garapen proiektuetara eta Saharara

J.I. | BERGARA

Gobernu kanpoko erakundeei bideratutako diru laguntzen aurtengo deialdian GKEek sentsibilizaziorako proiekturik aurkeztu ez dutela-eta, horietarako gordetako 2.710 euroak Saharan udazken honetan izandako uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko ematea erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrak, Bubishi elkarteak egindako eskaerari erantzunez horrela.

Urriaren 17an izan zituzten uholdeak Saharako kanpamenduetan, kalte handiak sortuz: familia askok zuten apurra galdu zuten, baita gordeta zituzten elikagai guztiak ere. Galera materialak ere handiak izan ziren.

Gainerakoan, garapen proiektuetarako 51.490 euro banatuko ditu Udalak GKEen artean; ondorengoak dira eskaria egin eta laguntza jasoko dutenak: Serso San Viator, Mundu Solidarioa Helburu, Tau Fundazioa, Oscar Romero, Bubishi eta Komite Internazionalistak. 7.000 eta 10.200 euro arteko kopuruak jasoko dituzte guztiak.



Bergarako udala

Ondo pasa Gabon jaietan!



ABENDUA

OSTIRALA 18

Gabonetako kontzertua
Musika Eskolaren eskutik
18:30 Udal Pilotalekuan

LARUNBATA 19

Napar Feria
San Antonio auzoan

'Laborategi jolasak'
Laboratorium museoa Manu Hernan dezekin.
12:00-14:00

Gabonetako kontzertua
20:30 Udal Pilotalekuan

OSTEGUNA 24

Oientzero eta Mari Domingi
11:30 Ikastetxeen kalejira San Martin plazaraino.
19:00 Kalejira Udal Biltegitik hasita. Plazan Oientzerok eta Mari Domingik haurren gutunak jasoko dituzte.

LARUNBATA 26

Hiruko saskibalo txapelketa
16:00-20:00 Udal Pilotalekuan

'Azken eguzkilorea' antzezlan
18:00 Zabalotegi aretoan

IGANDEA 27

Hiruko saskibalo txapelketa
10:00-14:00 / 16:00-20:00 Udal Pilotalekuan

'Ofelia, maite zaitut' antzezlan
18:00 Zabalotegi aretoan

ASTELEHENA 28

'Liburu magikoa', Oliver magoarekin
18:00 Zabalotegi aretoan

Gabonetako jolas parkea
11:00-13:00 / 17:00-20:00 Labegarietan

ASTEARTEA 29

'Zu eta ni sudurluze bi' antzezlan
18:00 Zabalotegi aretoan



Gabonetako jolas parkea
11:00-13:00 / 17:00-20:00 Labegarietan

ASTEAZKENA 30

Umeen pilota txapelketako finalak

Lauko hockey tornea
09:00-19:00 Labegarietan

OSTEGUNA 31

San Silvestre lasterketa

11:00 Umeen eta gurasoen parte hartze solidarioa
12:00 San Silvestre Trail Bergara, Peugeot Etormobil sarial saria

URTARRILA

LARUNBATA 2

Hiruko saskibalo txapelketa
10:00-14:00 / 16:00-20:00 Labegarietan

Gabonetako jolas parkea
11:00-13:00 / 17:00-20:00 Udal Pilotalekuan

IGANDEA 3

Hiruko saskibalo txapelketa
10:00-14:00 / 16:00-20:00 Labegarietan

Gabonetako jolas parkea
11:00-13:00 / 17:00-20:00 Udal Pilotalekuan

ASTELEHENA 4

Gabonetako jolas parkea
11:00-13:00 / 17:00-20:00 Udal Pilotalekuan



ASTEARTEA 5

Bizarzuriren haurren gutun bilketa.
17:00 Udaletxean.

Haurrentzat txokolate dastatzea (San Joxepe elkarteari esker)
17:00 Udaletxeko arkupeetan

Errege kabalgata
19:00 Udal Biltegitik hasita

IGANDEA 10

'Kontu-kantari' antzerki/kanta emanaldia
18:00 Zabalotegi aretoan

LEHIAKETAK

Gabon giroko marrazki lehiaketa (5 urteko haurrekin)
Antolatzailea: Bergarako Udal Liburutegia

Erakusleho lehiaketa
Abenduaren 10etik 22ra (biak barne)
Sari banaketa: abenduaren 23an, 20:00etan, osoko bilkuren aretoan

Gabonetako postalen XI. lehiaketa
Postalak aurkezteko: Gure Ametsa elkartearen
Abenduaren 18an, 19:00-21:00

Sari banaketa: Abenduaren 19an, 12:30ean, San Antonio plazaxoan.

Amodiozko gutunen 24. lehiaketa
Antolatzailea: Jardun.

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoan.

Simon Arrietaren pintura erakusketa
Azaroaren 20tik abenduaren 20ra

Beart elkartearen erakusketa, Simon Arrietaren omenez
Abenduaren 24tik 2016ko urtarrilaren 10era

Bestelako erakusketak:

Dixula:

Iñaki Badiola

Pol-Pol:

Bernat Alberdi (argazkiak)

Raizabal:

Itziar Albisua (zeramikak)

Hamaika:

Juan Martin Aristi (margoak)

Artesan:

Guillermo Azkarate/Agustin Amosarrain (argazkiak)

Nahikari:

Arizondo Argazki Taldea

Abenduaren 31ra arte

Bedelarren eskutik barraka
17:00-20:00 Fraiskozuri plazan

Abenduan ostiralero eta larubatero, Seminarioko patioan eta karpan atrakzioak, pailazoak globoflexia egiten, karaokea...

Plaza argiztatu nahi dute, presoak etxera ekartzeko

Kandelak piztuta Euskal Herriko maparen silueta erraldoia irudikatuko abenduaren 31n

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA
Hator, hator Euskal Herrira, etxera ekimena aurkeztu zuten martitzenean ehun herritarrek. Abenduaren 31n, 18:00etan, dis-

pertsioa salatzeneko San Martin plazan biltzera deitu dute jendea. Kandlekin Euskal Herriaren silueta erraldoia irudikatu nahi dute.



Martitzeneko agerraldia. | M.T.

Hiru helburu

"Batetik, euskal preso politikoek jasaten duten dispertsioa salatzea; bestetik, preso gaixoen kaleratzea eskatzea; eta azkenik, preso guztien etxeratzea, konponbidea eta bakea". Horiek dira, Iñaki Arietaleaniz-beaskoak azalduta, hilaren 31ko ekimenaren helburuak. Esan zuten, baita ere, ezin direla egon "Madril eta Paris noiz mugituko zain". Helburuak lortzeko "kolore guztietako herritarrak" mugitu behar direla azpimarratu zuten. "Izaera politikoa duen gatazkak konponbide politikoa behar du", gaineratu zuten. Era berean, dispertsioa "inoiz martxan jarri behar ez zen neurri krudela" dela adierazi zuten.

Parte hartzeko deia

Ekimen "labur, parte hartzaile, hunkigarri eta ikusgarria" egin nahi dute. Horretarako, gutxienez, 415 pertsona batu nahi dituzte: "415 euskal preso politiko daudenez, 415 pertsonaren atxikimendua lortu nahi dugu", azaldu zuten Pili Gartzia.

Bestalde, Bilbon urtarrilaren 9rako Sarek deitutako manifestazioan parte hartzera deitu dituzte herritarrak.

NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO



Sustraiak

Ni, Jaione, bigarren belaunaldiko etorkina naiz. Nire gurasoak Avilan eta Caceresen jaio ziren. Nire ama hizkuntza gaztelania da.

Urte asko eman ditut nire abizenek lotsatzen, nire sustraiak ezkatzen; izan ere, nik ez ditut zortzi abizen euskaldun; hobe esanda, bakar bat ere ez dut.

Txikitan bi taldetan banatu gintuzten ikastolan: etorkinen seme-alabak, batetik, eta bertakoak, bestetik. Nire lagunak euskaraz hitz egiten zuten beraien etxeetan. Nik ahizpa zaharrenarekin egiten nuen soilik; askotan, gurasoak

ez jabetzeko txutxu-mutxuak izaten ziren. Zailtasun handiagoak izan ditut euskararen erabilera egokia ikasten. Ergatiboa, Nor-Nori-Nork...

Txikikeriak diruditen arren, buruhausteak sortzen zizkidaten; sortzen zizkidaten, bai. Urteak pasa dira, eta, oraindik, uste baino euskaldun zahar gehiagok gurasoei harridura aurpegiarekin begiratzen diete alabek euskaraz ikasi eta lan egiten dutela esatean.

Eskerrak eman beharrean nago, eta ez, ordea, lotsatzera behartua. Gurasoek beraien garaian bizitza hobe baten bila Euskal Herrira etorri eta beraien alabak herrialde honetan sustraitzen lagatzeagatik. Mila esker!

Nahiz eta gurea zona euskalduna izan, gurasoen indarragatik eta ahaleginagatik izango ez balitz, ni ez nintzateke orain artikulua hau euskaraz idazten ariko.

Caritasi emateko jostailuak batuko ditu bihar Aranzadik plazan

Aste osoan egin bezala, gaur oraindik ikastolako idazkaritzan bertan jasoko dituzte jostailuak, 18:00ak arte. Bihar, zapatua, berriz, udaletxe aurrean jasoko dituzte, 11:00etatik 14:00etara. Jostailuok beste ume batzuek jasoko dituztenez -bailarakoek-, erabilitakoak izan arren, osorik eta egoera onean egon daitezten eskatzen dute.

Napar Feria bihar San Antonioko plazatxoan, 10:30etatik aurrera

Nafarroako produktuak erosteko aukera egongo da goiz osoan; eta, horrez gain, hau izango da egitaraua: 10:30ean, elkarleen arteko sukaldaritza lehiaketa; 11:00etan, txistulariak; 11:30ean, meza; 12:30ean, Gabonetako postalen lehiaketaren sari banaketa, poniak, zezentxoak eta jolasak eta pintxoak Gure Ametsaren tabernan; 13:00etan, Alai Taldea; eta goiz osoan, Angie DJa.

Igeriketa txapelketa dela-eta, Agorrosingo taberna irekita

Zapatuan eta domekan Gipuzkoako Igeriketa Kopako lehiak izango direla-eta, Agorrosingo taberna irekita egongo da. Aurreko maizterrek taberna utzita, aste batzuk daramatza itxita, eta behin-behineko irekiera honen ostean, maizter berriek hilaren 28an irekiko dute behin betiko -21etik 27ra, itxita egongo da-, eguneroko ohiko zerbitzua eskaintzeko.

Laborategiko jolasak, Manu Hernandez dibulgatzailearekin

Bihar, zapatua, izango da saioa, Laboratoriumen, 12:00etatik 14:00etara. Manu Hernandez irakasle eta zientzia dibulgatzaileak -Radio Euskadiko *La Mecanica del Caracol* irratzaioko kolaboratzailea, besteak beste- gidatuko du. Ume eta familiei ez ezik, edonori zuzendutakoa da, eta parte-hartzaileen arabera egokituko ditu esperimenduak.

OHARRAK

UDALAREN EGUTEGIA

Etxean jaso ez dutenek edo beste bat nahi dutenek Udaltzaingoa eskura dezakete. Baserri auzoetan auzo-alkateek banatuko dute; auzo-alkaterik ezean, Udaltzaingoa jaso beharko da.

GABONETAKO ARGIAK

Frontoi aurreko zazpi bizikletaren pedalei eraginez argiztatuko dira bihar arratsaldean herriko arbolak.

Artekale zirkulaziorako irekiko dute zenbait orduz, eta Bidekurutzeta itxi

J.I. | BERGARA
Artekale zabalik egongo da aurretantzean 09:00etatik 14:00etara -jaiegunetan ere bai-, eta egubakoitzetan 19:00etatik 22:00etara eta zapatuetan 14:00etatik 22:00etara ere bai. Bidekurutzeta, berriz, itxita egongo da ibilgailuentzat egubakoitzetan 19:00etatik 22:00etara eta zapatuetan 14:00etatik 22:00etara. Gehienezko abiadura

30 km/h izango da, eta oinezkoek izango dute lehentasuna.

Udalak azaldu du aldaketek, "hein handi batean", merkatariek eginiko eskarian dutela oinarria. Eskaria herriko alde zaharra biziberritzeko Udalaren asmoekin bat datorrela-eta, "jarduera ekonomikoa eta elkarbizitza sustatzeko aproposa" izan daitekeela-koan hartu dute erabakia.

PEUGEOTEKO TAILER OFIZIALA BERGARAN

ESKAITZA BEREZIA PEUGEOTEKO BEZEROENDAKO

PEUGEOT ETORMOBIL

30€ko BALIOA DU
Fakturaren datatik 13 hilabete baino lehenago kontsumitzeke.

OLIOA ETA OLIOAREN FILTROA ALDATZEA

69€ + 30 euroko deskontu-bonua

(BEZA BARNE) (BIGARREN ERREBISIOAN TRUKATZEKO)

Eskaintza baliagarria abenduaren 31 arte. Bonuaren iraingitze-data: fakturaren datatik 13 hilabetera.

SALMENTA OSTEKO ZERBITZUAK

- Zerbitzu ofizial integrala ordezkatuta dauden marka guztiendako.
- Mekanikari kualifikatuak prestakuntza espezializatu eta eguneratuarekin.
- Harreran eta bezeroen arretan ordutegi zabala partikularrendako eta enpresendako.
- Ordezkatze-autoen flota propioa daukagu.
- Auto-garbitoki automatikoa doan.
- Karrozeria-zerbitzuak.
- Multimarka zerbitzu azkarra.
- Lehentasunezko arreta profesionalendako eta enpresendako.
- Autoak jasotzea eta entregatzea.

OLABARRENA Z/G
20570 BERGARA
T.: 943 76 33 44
www.etormobil.com

AITONAK

TABERNA

(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak

Afariak

Ospakizunak

Kintadak

ETOR ZAITEZ!

08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486

Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

UGARTE

ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Iazko Gabonetako Kontzertua. | GOIENA

Bihar iluntzeko Gabonetako Kontzertuaren atariko, gaur Musika Eskolaren emanaldia

JULEN IRIONDO | BERGARA

Musika Eskolako 400 ikaslek hartuko dute parte gaur, egubakoitza -18:30ean-, Udal Pilotalekuan egingo den emanaldian. Hainbat taldetan banatuta jardungo dute ikasleek: Suzuki taldea, txistu taldea, dantza taldea, akordeoi orkestra, Big-Band, orkestra sinfonikoa, hasiberrien abesbatza, trikiti taldea, haurren abesbatza eta gazte banda. Askotariko kantutak jo eta abestuko dituzte,

eta amaieran denek batera jardungo dute bi piezatan.

Bihar, berriz, Musika Eskolaz gain, Aritzeta abesbatza, Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia, Orfeoi Gaztea eta Udal Musika Banda igoko dira frontoiko oholtzara -20:30ean-. Sarrerak www.bergara.eus helbidean eros daitezke, eta gaur, 17:00etatik 19:00etara, Udal Liburutegian, 8 eurotan. Gabonetako Kontzertuaren antolatzaileek eskatu dute frontoira denboraz joateko.

Domeka izango da 'Simon Arrieta 1915-1969' erakusketa ikusteko azken eguna, Aroztegin

Simon Arrietaren 30 olio-pintura, lau marrazki eta margotzeko erabiltzen zituen tresnak eta egin zituen erakusketetako dokumentazioa daude ikusgai Aroztegin; erretratuak -Bergaran eza-gunak diren pertsonenak gehienak-, herriko lau paisaia eta hiru natura hil jasotzen ditu, besteak beste. 18:00etatik 20:30era egongo da gaur ikusgai, bihar 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era, eta domekan goizez bakarrik. Miguel Angel Elkorobezibarren liburua ere eros daiteke bertan.

Abenduaren 26ko Bergarako Bertsolari Txapelketako finalerako boskotea, osatuta

J.I. | BERGARA

Asteburuan izan zen bigarren finalaurrekoa, eta Iñigo Artzelusek, Gari Lopez de Munainek eta Unai Arantzabalek lortu zuten hilaren 26ko finalerako txartela -23:00etan gaztetxean-, hurrenkera horretan sailkatuta. Jon Patxi Aiastui eta Eñaut Uriarte

finaletik kanpo geratu ziren Kortazarko saioan. Taberna bete eta giro ederra egon zen egubakoitzean. Lehen finalaurrekotik, Asier Arriaren Txie eta Enaitz Alustiza egongo dira finalean; iazko finaleko laukotea finalean izango da, beraz, aurten ere, eta horiei Arantzabal gehituko zaie.



BETI BUSTI

Piraguismoa, Eskola Jokoetan

Eskola Jokoen barruan, txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan Labegaraletan. Atletico San Sebastian eta Santiagotarra taldeetakoak lehiatu ziren, Beti Bustikoekin batera. Etxekoei dagokienez, Oier Villarrek eta Aitor Urtzelaik garaipena lortu zuten K-1ean, eta Xabat Akarregik eta Oier Villarrek C-2an ere bai. Alex Zabaletak bigarren egin zuen K-1ean.

Antzuolako pilotalekuan jokatu dituzte gaur iluntzean Gipuzkoako txapelketako pilota partiduak

Begarako Udal Pilotalekuan Gabonetako kontzertuak egingo direla-eta, asteroko hitzordua Antzuolara aldatu dute. Han, alebinen bigarren urteko finalerdia jokatu du Iker Etxanizek Andoaingo Gastelekuren kontra. Julen Gallastegik eta Markel Gartzia ere finalerdia jokatu dute, kadete mailan, Tolosaren aurka, Tolosan. Astelehenean eta martitzenean Gabon sariko partiduak jokatu dituzte, 17:15etik aurrera: gazteetan, Otermin eta Bergara; eta nagusietan, Eneko eta Ander Muguruza eta Iñarra eta Gallastegi.

Konponketaren zain, padel pista normaltasunez

J.I. | BERGARA

Padel zaleek oraintsura arte izan dute aukera datozen hila-beteetan pista erabiltzeko egun eta ordu finkoak hartzeko eskaera egiteko.

Itoginekin izandako arazoak, zerbitzuak normal jarraitzen du, beraz -libre geratutako orduak hartzeko aukera egoten da-. Aurreko euriteekin sortutako arazoari behin-behineko irtenbidea eman diote -silikonarekin-, baina Udalak behin betiko konponketa landuagoa eskatuko du, proiektua egin zuen arkitektoari kalte-ordaina eskatzeaz gain.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

SVC-Estrella Coja	4-9
Errefuxa-River City	4-4
Arrano Zabalik-Sanpe United	7-7
Vodka Juniors-HIS	6-5
Poteo Izarrak-Birgerias	9-4
America-Komando Piperrak	5-7

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	24	8
2 Errefuxa	18	8
3 River City	17	8
4 Komando Piperrak	15	8
5 Poteo Izarrak	11	8
6 Vodka Juniors	10	8
7 America	9	8
8 Sanpe United	8	7
9 Birgerias	7	7
10 HIS	6	8
11 Arrano Zabalik	5	8
12 SVC	3	8

PARTIDUAK

Azaroak 18, Egubakoitza
22:15 Poteo Izarrak-HIS / SVC
23:15 SVC-Sanpe U. / Poteo Izarrak

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Eskubaloi eta saskibaloi talde nagusiek etxean jokatu dute bihar

Saskibaloi taldea izango da jokatu aurrenekoa, 16:30ean; Bosteko A taldea izango da aurkaria Labegaraletan. Azkenak doaz bergararrak, eta bosgarren kontrarioak. Neurketa hau amaituta, 18:15ean eskubaloia- ren txanda izango da. Haritza Eibar (14 puntu) izango dute etxekoek (6 puntu) aurkari.

Hanka Labanka lehiari, eta hiruko eta lauko hockeya Gabonetan

Hanka Labankak ligaxka hasiko du bihar, Ribabellosako Dragons, Bilboko Metropolitano eta Torrelavegako Sobre Ruedas taldeekin. Bestetik, neska-mutiko eta gazteentzat hilaren 30ean egingo diren hiruko eta lauko txapelketetarako izena martitzenera arte eman daiteke, Labegaraletan eta Agorrosinen.

Areto txirrindularitza ikastaroa egingo dute bihar Agorrosinen

Bihar, Agorrosingo kiroldegian, areto txirrindularitza aditu direnek emandako ikastaroa izango da, 16:30etik 19:30era. Parte hartzeko izena eman behar da; Agorrosinen bertan egin daiteke, 3,5 euro ordainduta. Goizez, berriz, gimnasia susta-pen saio berezi bat izango da.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrek

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTAMASAK 2015



Komisiñoaren lan eskerga
'Sabiñe' txerria, jaietako ikur
Ganadua eta hegaztiak
Bertako produktuak
Goi mailako pilota txapelketa
Dantza-taldeak kalerik kale
Denboran bidaiatzen

ANDER LARRANAGA

 **UGARTE**

www.ugarte.eus



Komisiñoko zenbait kide aurtengo kartelarekin, azken bileretako baten ostean ateratako argazkian. | SANTAMAS KOMISIÑOIA

Komisiñoaren emaria, santamasesen oinarria

Jaia berreskuratzeko egin dute lan 1976an sortu zenetik; Udalaren laguntzarekin landu dute egitaraua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Jaiak herriaren herriaren sortzea, herriaren parte-hartzearekin eta borondatezko lanarekin". Horixe izan da, sortu zene-

tik, Santamas Komisiñoaren helburua eta ardatz nagusia. Gaur egun 30 bat lagunek osatzen dute, betiere inguruan dituzten hainbat *sateliteren* laguntza-

rekin. 40 urte egin behar da atzera Komisiñoaren sorrera ulertzeko: "1975ean lehen aha-legina egin zen eta Portaloian hainbat postu jarri ziren, baina

SANTAMAS JAIETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 19, ZAPATUA

13:00 Herriko Plazan, BOROBILEKO DANTZA SAIO parte-hartzailea, Lore Gazteak eta Txikitxu taldeen eskutik. Olentzeroren gutun banaketa Basandererekin. Eguraldi txarra eginez gero, Biterin izango da.

17:00 Amaia antzokian *Pintto Pintto* ANTZEZLANA, Anita Maravillas teatroak eskainia.

19:00 Herriko Plazan, santamasetako KUADRILLEN ARTEKO II. HERRI PROBAK. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri Plazan izango da.

ABENDUAK 20, DOMEKA

10:00 Corazon de Encina kultura zentroan 27. santamas XAKE txapelketa.

10:00 Santamasetako VI. tenis txapelketako gazte eta helduen finalak, Musakolako kiroldegian.

12:00 Biteri plazan, Kulkiren eskutik, *Industriaren kirol parkea* saioa. Umeek eta gazteek hainbat proba egingo dituzte.

ABENDUAK 21, ASTELEHENA

18:00 ERAKUSLEIHO LEHIAKETAren sari banaketa.

18:30 Suziri jaurtiketa.

19:00 Herriko Plazan, ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA.

19:00 Herriko Plazan, *Sabiñe* TXERRIAREN AURKEZPENA.

19:00 Herriko kaleetan, KANTU KALEJIRA Portaloiren eskutik.

20:00 Herriko Plazan, Haitzama taldearekin DANTZALDIA.

21:30 Herriko Plazan, ZESENSUZKOA.

ABENDUAK 22, MARTITZENA

09:00 Suziri jaurtiketa.

09:30 Herriko kaleetan, Udalaxpe txistulari taldearekin DIANA.

10:00 Laubiden, GANADU FERIA.

10:00 Laubiden, HEGAZTI ERAKUSKETA.

10:00 Seber Altube plazan FRUTA, BARAZKI ETA HERRIKO SALTOKIEN ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA.

10:30 Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean, ARTISAU LANGINTZEN JARDUERA FERIA. Beira-puztaile erakusketa egongo da.

10:30 San Frantzisko elizan BELENEN ERAKUSTALDIA.

11:00 Herriko Plazan, Aramaioko Sagardogileen SAGARDO DASTATZEA ETA TALOAK.

11:30 Herriko kaleetan zehar, KALEJIRA: Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitalariak, Udalaxpe txistulari taldea, Arrasateko gaiteroak, albokariak eta txalapartariak.

11:30 Herriko kaleetan zehar, IRUÑEKO SAN LORENTZO

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburueta menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69



DANTZANTEEN KOFRADIA.

11:30 Herriko kaleetan zehar, ITURENGO JOALDUNAK.

11:30 Herriko kaleetan zehar, Incansables txaranga.

11:30 Herriko Plazan, Arrostitz DANTZA taldearen EKITALDIA.

11:30 Zaldibarren, HERRI KIROLAK: Telleria harri-jasotzailea. Sorondo eta Gartzia emakume beratarak aizkoran eta trontzan. Mugertza eta Kañamares osaba-ilobak aizkoran. Peio Kañamares motozerrarekin.

12:00 Seber Altube plazan herriko saltoki, fruta eta barazki lehiaketaren SARI BANAKETA.

12:10 Herriko Plazan, ARRASATEKO TRIKITILARIEN SAIOA.

12:50 Herriko Plazan, Lore Gazteak taldearen ekitaldia.

13:00 Jokin Zaitegi plazan, urteetan santamasetan

etorritako artisauei OMENALDIA.

13:30 Herriko Plazan, San Lorentzoko Dantzanteen kofradia (Iruñea) eta Arrasateko Gaitero taldearen ekitaldia.

13:30 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA HERRIKOIA.

14:45 Musakolako kiroldegan, HERRI BAZKARIA.

18:00 Uarkapen profesional mailako PILOTA PARTIDUAK.

19:30 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA ETA LARRAIN DANTZA HERRIKOIA.

20:00 Herriko Plazan, TXERRI ZOZKETA.

20:00 Herriko plazan, DANTZALDIA Egan taldearekin.

20:30 Amaia antzokian, BERTSO SAIOA AEDK antolatuta. Bertsolariak: Jon Maia, Uxue Alberdi, Etxahun Lekue eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Asier iriondo.



Andoni Altuna (kultura taldeen izenean), Oihan Vitoria (Komisiñoaren izenean), Maria Ubarretxena (Arrasateko Alkatea) eta Juan Ramon Mendieta (Kultura Zinegotzia) . | JOKIN BEREZIARTUA

ofizialki Santamas Komisiñoa 1976an sortu zen. Garai hartan hainbat merkatar, tabernari, kirol eta kultura talde-gaiteroak AED, SUDC, Eskautak, Ekologia Taldea, Ikastola, Danok, Besaide, Lore Gazteak...-elkartu ziren euskal kultura, ohiturak, sustaiak eta ondarea berreskuratzeke eta plazaratzeko", gogoratu dute.

Jaia berreskuratu

Arbasoen bizimodua ezagutzera emateko, feria, artisautza, herri kirolak, bertsolaritza, antzinako langintzak eta folklorea hartu dituzte oinarri hasieratik. Eta lortu dute jaia berreskuratzea, gaur egun hainbat arrasatearren urteko jairik kutunena izateraino: "Komisiñoaren lorpen handiena izan da galbidean zegoen jai bat berreskuratzea borondatez egindako lanarekin. Herri parte-hartzailea sortu dugu, jaia antolatzeke beharrezkoa iruditzen zaigu-eta herriko eragileen parte-hartzea. Komisiñoa aipatzen denean herria osotasunean inpli-

katuta dagoela esan nahi dugu, gure helburua jaia herriarena izatea da eta". Azken 40 urteotan asko aldatu dira gauzak eta horiekin batera ere aldatu dira santamasak: "Urtetik urtera gauzak aldatzen edo hobetzen joan dira santamasen egitarauan, gizartea aldatzen joan den heinean, Komisiñoa eta festa egokitzen joan dira-eta behar berrietara".

Lan handia da halako egitarau luze bezain interesgarri bat antolatzea, urte osoko lana: "Balorazioa egiteaz bat hurrengo santamasei begira jartzen gara. Urtero ekarri nahi izaten ditugu berritasunak, eta, hori egiteko, alde zuzenetik lan handia egin beharra dago. Urria, azaroa eta abendua izaten dira hilabete lanpetuenak, baina hilero izaten dugu egitekoren bat", argitu dute.

Amaitzeko, Komisiñoak eskerak eman nahi izan dizkie jaia antolatzeke "borondatezke eta ezinbesteko" lana egin duten guztiei: "Eskerririk asko parte hartu dutenei ere, egon ezin direnak ahaztu barik", adierazi dute.

Udalaren esker ona

Aurtengo egitarauaren eta kartelaren Iban Galan *Desegin* artistarena izan da aurten ere, seigarren urtez jarraian-aurkezpenean Maria Ubarretxena alkateak esker on hitzak izan zituen Komisiñoarendako: "Komisiñoari eta bertan parte hartzen duten kultura taldeei zein eragileei eskerrak eman nahi dizkiet egin duten lanagatik, aurten ere arrasatearrendako horren bereziak eta gustukoak diren jaiak antolatzeagatik".

Aurrerantzean parte-hartze "aktiboagoa" izango du Udalak herriko jai guztietan, Ubarretxena iragarri zuenez: "Arrasatear guztien interesekoak izango diren jaiak antolatuko ditugu herriko eragile guztiekin elkarlanean".

Etkez etxe banatu den egitarauan jaien aurrekontua zehazten da ekintzez ekintza, Komisiñoaren zein Udalaren ardurapean dauden ekitaldiak berezitate. Bi eragileen gastuak batuta -diru sarrerak kontuan hartu barik-, 93.545 euroko partida bideratu da santamas jaietarako.



Lore Gazteak taldeko dantzarien erakustaldia Herriko Plazan, iaz. | GOIENA

Inspirazioak gida zaitzala

DS 4 berria

DS 4 berriaren barruan, orekara, edertasunera eta diseinura bidaia egingo duzu. Potentziaren eta dotoretasunaren arteko konbinazio perfektua ezagutuko duzu, eta detaile txikiez gozaten ikasi. Zure desioetan inspiratuta, DS 4 berriarekin gidatzearen benetako plazera bizi izango duzu.

DSk nahiago du TOTAL

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 3,7-5,9



DS AUTOMOBILES

SPIRIT OF AVANT-GARDE

www.driveDS.es

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Ondo ibili santamasetan!



Sabiñe txerria Udala auzoko Uxarte baserrian. | ANDER LARRAÑAGA

'Sabiñe' du izena aurtengo txerriak

Udala auzoko Uxartetik dator aurtengo santamas jaietako ikurra izango den animalia

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Aurten ere, ohi bezala, txerria santamasen parte izango da, eta kartelean, gainera, nabarmena da haren presentzia.

Sabiñe, hala du izena aurten aurkeztuko den txerriak, Udala auzoko Uxarte baserrikoa da eta itxura ederra du.

Aurkezpena

Sabiñe txerria abenduaren 21ean, astelehena, ezagutu ahal izango da Herriko Plazan, arratsaldeko zazpitan.

Baserri horretakoek diotenez, mestizoa da eta ez dago argi zein arrazaren arteko nahasketa den. Hala ere, euskal txerriaren odola badu; izan ere, bertako arrazaren ohiko orban beltzak ditu.

Uxarte baserriko Martin Uribarrenen hitzetan, *Sabiñe* "luzea, handia eta altua" da, eta 150 eta 200 kilo artean pisatzen duela azaldu du.

Itxura on hori lortzeko denetarik eman diote jaten txerriari; erremolatxa, artoa, garagar-irina, sagarrak, aza eta pentsu pixka bat eman dizkiote *Sabiñe*-ri kumea zenetik.

Uxarten dagoen zementuzko etxola bat da *Sabiñe*-ren txerrikorta, eta gustuko du bertako berotasunean geratzea. Beste txerri batekin bizi da eta ez du jende artean egoteko ohiturarik. Horregatik, Uribarrenek ez daki nola jokatuko duen txerriak plazan, jendez inguraturik. "Ez dakit lasai ibiliko den. Txerriak odola du eta ez da batere man-

tsoa, ia basatia dela esan liteke", dio Martin Uribarrenek, txerriaren jabeak. Hori dela eta, errespetuz tratatzea eskatu eta gomen datzen du Uribarrenek.

Zozketa

*Sabiñe*ren zozketa santamas egunean izango da, abenduaren 22an. Ekitaldiz beteriko jardunaldia izango da eta 20:00etan egingo da zozketa, txerri-dantza eta larrain-dantza herrikoa egin ostean, Herriko Plazan.

Zozketarako txartelak euro batean saltzen dira eta 500 euro irabazteko aukera egongo da. Saria dirutan emango da, debekaturik dago-eta animaliak zozketatzea.

Horregatik, ospakizuna amaitzean, *Sabiñe* Udala auzora itzuliko da, Uxarte baserrira. Uribarrenek dioenez, urtarrik aldera txarriboda egingo dute eta txorizo ugari egingo dituzte: "Horretarako hazi izan ditugu txerriak beti Uxarten".

DATUA

150

KILO

Sabiñe-k 150 kilotik gora pisatzen du eta orban beltzak ditu azalean; horiek oso ohikoak dira euskal txerrietan.

SANTAMASAK 2015 Arrasate

Bengoa

•

Ezkiña

•

Itzala

•

Monte

•

Okoretegi

•

Rumba

•

Txoko II

Girorik zoroena geurean!



Lau eta bi hankakoak batuko dira Laubiden

Ganadu arraza berriak ekarriko dituzte aurten Arrasatera; adibidez, piriniotar behi gorriak

ANDER LARRALAGA | ARRASATE

Animaliek santamasetako protagonista handienetakoak izaten jarraitzen dute. Goizetik bazkaldura arte, Arrasateko eta inguruko jendeak, familian zein laguntarian, baserritar jantzita, osteratxo egiten du feriarara ekarri dituzten animaliak ikusteko. Aurten ere hala izango da: Laubide plazak askotariko ganadua eta hegaztiak hartuko ditu, santamas egunean, goizeko hamarretatik aurrera.

Ganadua eta hegaztiak, batera

Aurreko urteetan bi zonatan banatzen bazituzten ere, aurten, santamasetako ganadu eta hegaztien feriak bateratu egingo dira espazio berean. Hori horrela, ganaduen erakusketa Laubide plazan mantenduko da, urtero legez, eta hegaztiarena, berriz, Garibai hiribidera aldatuko da, Forum Sport sarre-



Ganadu feria. | GOIENA



lazko hegazti erakusketa. | GOIENA

rako aterpera; horrenbestez, elkarren ondoan egongo dira bi feriak.

Ganaduari dagokionez, sei behi arraza desberdin ikusteko aukera egongo da aurten. Berrikuntzetako bat da, behietan, piriniotar arraza egongo dela, behi gorria, pirenaiak. Bestalde, pottokak, moxalak, behorrak, zezenak, idiak, astoak, ardiak... ere ikusgai izango dira.

Urtero bezala, askotariko hegaztiak egongo dira: arraza, forma, tamaina eta kolore askotariko oiloak, indioilarrak eta ahateak egongo dira, arrautzak ipintzen dituztenak asko. Horrekin batera, hegazti mota berriak ere ekarriko dituzte.

Esan bezala, aurten, guztiak, bi zein lau hankakoak, Laubiden egongo dira elkarrekin.

ALDEDI

Ondo pasau santamasak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Santamasak 2015



Preso eta
iheslariak
etxera
kopon!



Amaiur Arrasate
Osorik
Ekaitz Iluntz Taupa
Etxoste Irati Dat
Jai Zale

84 postu egongo dira bi gunetan banatuta

Ohiturari jarraituz, hiru lehiaketa antolatu dituzte: herriko saltokiena, barazkiena eta frutena

A. L. | ARRASATE

Santamasetako azoka baserriko produktuen gotorleku bilakatu da azken urteotan, bertako barazki, fruta, kontserba eta bestelakoek urtero jende mordoak erakartzen dute eta. Aurten ere baserriarrek eta elkarteek euren postuak jarriko dituzte erakusleho modura: guztira, 84k.

Biteri eta Seber Altube guneak

Bi gunetan banatuko dira postuak: Biteri plazan eta Seber Altuben. Biterin elikagaien 60 postu jarriko dituzte: gazta, txorizoa, pastelak eta kontserbak

egongo dira hor, besteak beste. Postu horien artean, batzuk Debagoienekoak izango dira: Gorrotxategiko gozogintza, Antzuolako eta Aramaioko gaztagileak, Egiaundi baserriko txakolina, Oñatiko ezti... Gaiantzekoak Euskal Herriko hainbat txokotatik eta Errioxatik etorriko dira. Aipatzekoa da gune horretan Harreman gobernuz kanpoko erakundea eta IMME elkarte (emakume musulmanen integrazioa Euskadin) ere egongo direla euren postuekin.

Seber Altuben baserriarrek egongo dira; 24tik hamabi Arra-

satekoak izango dira eta gainerakoak, inguruetakoa: Bergarakoak, Aramaiokoak, Gabiriakoak, Segurakoak, Gatzagakoak eta Aretxabaletakoak, esaterako. Baserrietan ekoiztutako frutak, barazkiak eta ogia ekarriko dituzte.

Hiru lehiaketa

Urtero legez, hiru lehiaketatan banatuta sariak banatuko dituzte: herriko postu onenari, barazki onenari eta fruta onenari.

Bestalde, barazki ekologikoei osatutako saltoki onena eta baserrian eskuz egindako ogi onena ere sarituko dituzte.

RAKEL PEREZ DE ARENAZA | ASKASIBAR BASERRIA

"Herrian oso produktu onak eta sasoikoak urte osoan daude, ez santamasetan bakarrik"

Arrasateko Askasibar baserrikoa da Rakel Perez de Arenaza eta urtero jartzen du postua santamasetan bere produktuak erakusteko. Izan ere, 2011n, 2012an eta 2013an herriko saltokirik onenaren saria eskuratu zuen; iaz, aldiz, barazki onenaren saria.

Elikadura ekologikoaren alde egin duzue.

Gaurko elikagaiei eta animaliei botatzen zaizkien gai kimikoak ikusita, gure bizitza aldatu behar genuela erabaki genuen. Beraz, baserria berriro ere martxan jarri



ANDER LARRANAGA

eta kimiko bako baratzea jarri genuen. Bestetik, oiloak ere aske ditugu oilarrekin; hori guztia zaporean antzematen da.

Horregatik sari guztiak.

Bai, eta asko asebetetzen nau horrek. Izan ere, astero azokan zein santamasetara erotaren ditudan produktuak aukeratu behar izaten ditut: kolorea, ehundura eta itxura

kontuan izan behar dira, eta egindako lan horren errekonozimendua izan da. Aurten ez dut uste saririk eskuratuko dugunik, Udalak azoka plazarako daukan proiektuarekin eta gai honen inguruan dagoen jendearekin izandako konfrontazioa dela eta. Edozelan ere, urtero legez, saiatuko naiz ahalik eta produktu onenak eramaten; postu polita ipiniko dut.

Garrantzitsua da zuekiko santamasetako azoka?

Asko gustatzen zaidan azoka da, baina baserriarrok astero gaude gure herriko azoketan eta hori ikusten da gure lana. Herrian oso produktu onak eta sasoikoak ditugu urte osoan zehar, ez santamasetan bakarrik.

ANE GOROSABEL | ELKORO BASERRIA

"Ez gara egun bakar batetik bizi: herriaren babesa ezinbestekoa dugu aurrera egiteko"

Familiaren Bergarako Elkoro baserrian landatzen hasi zen Ane Gorosabel arrasatearra, 2013an, eta, aurten santamasetako azokan dagoen bigarren urtea izango bada ere, iaz herriko saltokirik onenaren saria eron zuen.

Zer egiten duzu zuk?

Batez ere, barazkiak ekoizten ditut. Egia esan, lurra lantzen ikastea prozesu luzea da, kontuan izan beharreko hamaika faktore daude, eta nik neuk, oraindik, asko dut ikasteko. Baina hankasartzeen eta zailta-



ERIKA REVALO

sunen gaintetik, beti, sasoiaren sasoiko produktuak eskaintzen ditut, modu naturalean ekoiztuak direnak, mimoz zainduak eta mintegi ekologikoetan haziak. Askoren

ustetan, negu sasoiaren ez omen dugu bertako produktuz elikatzeko aukera zabal, baina uste okerra da. Ondo zainduz gero, gure lurra oso emankorra da, eta urte osoan

zehar bertako barazkiak elika gaitzeko.

Nola bizi duzu azoka?

Santamas eguna arrasateorrandako egun berezia da, giro polita sortzen da, eta, horregatik, aurtengo helburua postu atzean goiz atsegina pasatzea da, herriko herriko baserriarrek lana erakustea eta, posible bada, baserriera esku hutsik itzultzea. Bestalde, santamasek zentzua izateko, gure kulturaren parte izaten jarraitzeko, folklore hutsean ez geratzeko, kontuan eduki behar dugu artisauek eta baserriarrok urte osoan gure jarduna mantentzen saiatu behar dugula. Ez gara egun bakar batetik bizi: herriaren babesa ezinbestekoa dugu aurrera egiteko.



Artisaua egurra lantzen santamasetako azokan. | GOIENA

Artisau azoka, lehengo lanbideen erakusleiho

Aurten bi gunetan banatuko dituzte artisauak: Jokin Zaitegi plazan eta Biteri hiribidean, hain zuzen

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

1978. urteaz geroztik eta ohiturarekin jarraituz, mota askotariko langintzek lekua izango dute santamasetako azokan: abarkagintza, pilotagintza, larrugintza, hargintza, xisteragintza, kaikugintza, tailagintza, zeramika eta bitxigintza postuak egongo dira ikusgai, beste askoren artean. Artisauak, euren postuak erakusleiho moduan ipini eta egindako lanak salgai jartzeaz gainera, eurek ondoen dakiten hori zelan egiten duten erakutsiko dute: lanketa prozesu osoa egingo dute, postuetara hurbiltzen den jendeak ikus dezan.

Bi gunetan banatuta

Aurtengo berrikuntzetako bat da artisauen azoka bi gune desberdinetan banatuko dituztela: Jokin Zaitegi plazan eta Biteri hiribidean egongo dira.

Jokin Zaitegiko gunean langintza tradizionalak gailenduko dira, eta, horrekin batera, tailerak eta erakustaldiak ere egongo dira.

Biterikoa izango da nobedadea; hor egongo dira aurreko urteetan Forum Sporteko arku-

pean jarri izan diren postuak. Gune horretan Arrasateko artisauak egongo dira: urtetik urtera tokiko artisauen kopurua hazten joan dela ikusita, Komisiñokoek arrasatear horiendako zona berezi bat prestatu dute.

Beira airean puzten bakarra


Azken urteetan bezalaxe, artisauen testuinguruan langintza konkretu eta teknika jakin batzuk ezagutarazi eta balioan jarri gura izan dituzte Komisiñoko kideek. Eta horietako artisauetako bat Igor Obeso da. Hark, hondakinetak beira eta leiho moduko planoak erabiliz, moztuz, itsatsiz eta forma emanez askotariko objektuak egiten ditu: botilak, pitxarra, lanparak... Aipatzekoa da hori egiteko tradizioz ez dagoela eta Euskal Herrian beira airean puzten duen bakarra dela Obeso. "Labea 1.200 gradura jartzen dugu, eta, beira urtu ostean, kaña batzuen laguntzarekin guk gura dugun forma ematen diogu, egin nahi dugun objektuaren arabera. Eta hori da, hain justu ere, martitzenean Arrasaten erakutsiko duguna; gure lan prozesua", azaldu du Obesok.

Esan bezala, aurten ere artisautza tradizionalak eta aspaldiko lanbideek lekutxoia izango dute ferian: txiki, gazte zein helduen gustura, langintza teknika desberdinak gertutik ezagutzeko aukera egongo da abenduaren 22an urtero egiten den santamasetako azoka ezagunean.

Biteriko gunean artisau arrasatearrak egongo dira



carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak



Gabon zoriontsuak denoi!



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Eskuz binakako txapelketa, Uarkapera

Bengoetxea VI.a eta Untoria, Irribarriaren eta Zubietaren aurka santamasetako pilota txapelketan



Bengoetxea VI.a Bergarako pilotalekuan. | JOSETXO ARANTZABAL

A. L. | ARRASATE

Pilota partiduek beti izan dute lekua santamasetako egitarauan, eta aurtego jaialdiak beste pizgarri bat izango du. Izan ere, eskuz binakako txapelketakoa izango da jokatu duten partidu nagusia: 18:00etan hasita, Uarkape Udal Pilotalekuan Aritz Lasa eta Erostarbe Mendizabal III.aren eta Tolosaren aurka lehiatuko dira. Lehen partidu horrekin, pilotazaleak motorrak berotzen hasiko dira, eta ostean izango da plater nagusia. Izan ere, eskuz binakako txapelketa barruan jokatzeko ari diren Bengoetxea VI.ak eta Untoriak Irribarriaren eta Zubietaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Partidu nagusia

Abenduaren 4an hasi zuten eskuz binakako pilota txapelketa. Gaurtik martitzenera bitartean lehen itzuliko hirugarren jardunaldia jokatu dute, eta, horren barruan, hain justu, santamas jaien baitan, Asegarceko Bengoetxea VI.a eta Untoria Aspeko Irribarriaren eta Zubietaren aurka lehiatuko dira; duda barik, lehia polita izango da martitzenekoa. Arrasaten pilotazale mordo dago, eta, urtero moduan, Uarkapeko harmailak beteta egotea espero da.

Uarkapeko pilota partidueta-rako txartelak eskura daitezke dagoeneko; orain dela astebeite jarri zituzten sarrerak salgai. Arrasateko Monte eta Buenuena tabernetan daude eskuragarri, 20 eurotan.

Sarrerak 20 eurotan salgai Monten eta Buenuenan

Askotariko herri kirolak izango dira Zaldibarren

Aurten ere herri kirolek lekua izango dute santamasetan: martitzenean, 12:00etan hasita, askotariko proben erakustaldiak izango dira Zaldibarren, eguerdi parte animatzeko.

Batetik, zerrarekin antzinako oholak nola egiten ziren ikusteko aukera izango da. Bestalde, hiru aizkolariren arteko abiadura probak egongo dira: zutik eta lan luzean Kañamares eta Mugertza osaba-ilobek ikuskizuna eskainiko dute. Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia beratarrek aizkora erakustaldia egingo dute; horiek eroan zuten iaz Emakumezkoen Nafarroako Arpana Txapelketako txapela. Trontzan bi emakume bi gizonen aurka lehiatuko dira: emakumeak zutik eta gizonak etzanda, batetik, eta proba mistoan, bestetik. Horrekin batera, Telleria gaztea harriak jasotzen ibiliko da. Eta amaitzeko, Pello Kañamaresek motozerra erabilia irudiak egingo ditu. Duda barik, eskaintza zabala egongo da Zaldibarren.

Kontuak kontu, bistakoa da herri kiroleko aurpegi ezagun dezente jasoko dituela Arrasatek santamas jaietan, zale askoren pozerako.

Paraje eder baten kokatua

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina. Bazkaria hasteko beste modu berezi bat

♦ Menu bereziak aukeran: 18 €

♦ Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 043 71 18 81
Faxa: 043 71 18 82

Zorionak eta Urte berri on!

Ander Arizaleta eta Ainhoa Nafarrate | Dantzariak

"Txerri-dantzan ez daude nerbio horiek; urteroko dantza da"

- ▶ Bi dantza taldeek indarrak batzen dituzte jaietan
- ▶ Urtez urte Herriko Plaza txikiagoa geratzen zaie

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Arrasaten aspalditik daude bi dantza talde, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz, baina santamasetako dantzetan eta herri mailako beste ekitaldi askotan indarrak batu eta ikuskizun bateratua eskaintzen dute. Bi dantza taldeetako dantzari banarekin izan da GOIENA, santamasetako dantzen gainean gehiago jakiteko asmoz: Arrostaitzeko Ainhoa Nafarrate eta Lore Gazteakeko Ander Arizaleta txikitatik ibili dira abarkak astintzen, eta aurturten ere biak egongo dira santamasetako giroa alaitzen.

Bi dantza talde zarete, baina hala-koetan batera zoazte.

Ander Arizaleta: Herri berean bi dantza talde daude, baina ekitaldi guztietan batera hartzen dugu parte. Udalak eta elkarteek ere hala eskatzen digute; santamasetan, dantzari egunean, sanjua-

netan... edozein ekitaldi herrikoitan batera irteten gara beti.

Nola bizi dituzue santamasak?

Ainhoa Nafarrate: Dantzariok goizean irteten gara eta herria animatzen dugu dantza egiten, azoka ikusten dugu apur bat, disfrutatzen dugu jaiak ere, jendeak ere eskertzen du giro apur bat jartzea. Bestalde, Komisiñoekin elkarlanean gabiltzanez, ez gara gu bakarrak aterako garenak: gaiteroak, txistulariak, albotariak, txalapartariak, trikitilariak... Arrasateko jai gogokoenak dira, niretako. Herri-

"Dantza berez jakin badakigu eta ez da entsegu orokorrik behar"

bazkariko giroa ere oso polita da, ikurrin-dantza egiten dugu, trikitilariak ere parte hartzen dute... Egunean zehar egiten den jaiak da eta baserritar janzteko egun bakarra dugu. Gainera, dantzetan herritarrek parte hartzen dute plazan. Urtetik urtera txikiago geratzen ari zaigu plaza: oso emotiboa da horrenbeste jende dantzan ikustea.

A. A.: Bai, gu berdin. Gosaltzeko elkartzen gara, azoka ikusi... erritot bat bezala da guretako. Jaiaren parte bilakatzen gara, eta, gainera, gauera arte luzatzen da.

Urtero dantza bera egiten duzue. Nolakoak dira entseguak?

A. N.: Bi taldeek batera egiten dugun dantza txerri-dantza da eta duela urte asko egiten da; beraz, ez dugu batera entseatzeko. Dantza berez jakin badakigu guztiok eta ez da entsegu orokorrik behar.



Ainhoa Nafarrate eta Ander Arizaleta. | A.L.

A. A.: Gainera, goizean, gune desberdinetan banatzen gara alde zahar osoa hartzeko –Jokin Zaitegin, Monten eta plazan–, eta txandaka goaz, bai bi dantza taldeak, bai trikiti eskola ere.

Nerbiorik ez, beraz.

A. N.: Ez, santamasetan ez daude nerbio horiek, ez bada dantza berriren bat bereziki ikasi behar dugulako; urteroko dantza da. Aukeratzen ditugu betiko dantzak disfrutatu ahal izateko.

A. A.: Espazio txikia egoteak eragin dezake urduritasun apur bat, baina aparteko ezer. Ezbeharraren bat gertatzen bada, mutilei gertatzen zaigu, hanka larregi altxatuta galtza apurtu daitekeelako, edo, bestela, lurra irristakor egon daitekeelako. Ea eguraldi ona egiten duen, horrek asko baldintzatzen du-eta jai giroa.

"Ea eguraldi ona egiten duen, horrek asko baldintzatzen du-eta jai giroa"



Wir leben Autos.



Etorri Opel Astra berria ezagutzera!

Ondo pasa jaixak!

San Andres Auzoa 10-D
Arrasate

Tel.: 943 77 30 10

takoloautoak@hotmail.com



OPEL ASTRA

> KILOMETROAK ETA KILOMETROAK FIDAGARRITASUN OSOZ



1872. Santamasetako txerriaren zozketa ez da atzoko kontua. Irudiko txartelak XIX. mendera garamatza eta hor ikusten da txerriaren sinbologia zein lotuta dagoen baserriko kulturarekin. Velez de Mendizabalek azaldu duenez, bildutako dirua herriko ospitalera bideratzen zen.

1930. Ferixalekuari izena nondik datorkion ikusten da argazkian. Gezurra badirudi ere, Uarkape ingurua da hori, eta bertan egiten zen garai hartan azoka: baserritarren eta ganaduaren elkartokia zen santamas eguna.

Santamasak denboran bidaiatzen

Gorabehera asko izan ditu jai horrek, baina bistakoa da oraindik ere bizirik dirauela

A. L. | ARRASATE

Santo Tomasetako Feriak: hileroko bigarren eta laugarren asteetan (lehen) izaten ziren feria guztien erremate bezala. Ganadu-salerosketak, barazki-lehiaketak eta jaialdi herrikoiek (aizkolari, harri-jasotzaile eta bertsolariek) inguruetako baserritar asko erakartzen dute. Hitz horiekin aipatzen dira Mondragón izeneko liburuan santamasetako ezaugarri nagusiak (Juan Leibar eta Jose Letona, 1970).

Nolabait azaltzeko, santamas jaia baserritarren jaia dela esan daiteke, batez ere. Jatorrian, baserritar maizterrak ugazabari urteko errenta herrira eroaten zion eguna zen. Baserritarrak, euren alkandorarik dotoreena soinean jarrita, kapoi onenak ematen zizkion ugazabari, eta hark, ondoren, bazkaltzera gonbidatzen zuen maizterra.


Urteetan arrasatearrek eza-gutu dituzten santamasek ere jatorri bat dute, gauza guztiek bezala, eta jaien lehen hazia noiz landatu zen jakiteko mende batzuk egin behar da atzera. Tradizioaren eta eboluzioaren arteko gerra horretan oreka mantentzea eta oraindik bizirik irautea lortu dute santamasek urte askoan zehar, eta, gaur egun, Arrasateko historiara itsatsita jarraitzen dute, inoiz baino gehiago.

Historian ibilbidea

Jose Mari Velez de Mendizabalek egindako dokumentazio lanari esker, azokaren sustraiak zeintzuk diren argitu da: 1351ko irailaren 20an, Gaztela eta Leongo Pedro I.a erregeak *Krudela* izenez ezagunagoa, Valladoliden izenpeturiko idazki batean, Arrasateko azoka nagusia abenduaren 21ean, 22an eta 23an egiteko agin-

dua eman zuen. Garai hartan Arrasate hiri gaztea zen oraindik, 91 urte besterik ez zuen, baina merkataritza esparruan artetsua zen. Eta hori kontuan izanda, Alfontso X.ak herriaren sortze-agiria sinatu zuena, arrasatearrei pribilegioak eman zizkion merkataritza alorrean, batez ere kanporako merkataritza garatzeko asmoz.

Arrasate kokatuta dagoen leku estrategikoak herriko merkataritza jarduera ahalbidetu zuen, eta, horrekin batera, Pedro I.a erregeak santamasetako feriak instituzionalizatu eta ofizialdu egin zituen: izugarritzko garapena ekarri zuen horrek. Modu horretan hasi ziren baserritarrak azoka egunetara hurbiltzen euren produktuak saltzeko asmoz. Beraz, hiru azoka egunetik egun baka-rretera pasatu bada ere, horra hor lehen hazi hori: urte askoren



Kanpanzar obate

— harrobiak —

Ondo ibili santamasetan!

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

KANPANZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

KOBATE HARROBIA, S.L.

Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



Grupo Amantegi



ARRASATE PRESS

1987. Iturengo zantantzarek urte mordoia daramate santamasak alaitzen: esan daiteke jaiaren sinboloetako bat bilakatu direla. Orduan ere, herriko kaleetan zehar ibiltzen ziren joaldunak goizeko giroa alaitzen; argazkian, herritarrek herriko plazan agertzen dira, ikuskizunaz gozatzen, 1987ko abenduaren 22an.

ostean ondo ureztatutako kimu bilakatu dena gaur egun.

Azokaren kokapena

"Suposatzekoa da ez zirela erakitzen ari ziren harresietatik oso urrun egongo. Dena den, denboraz kontzejuak ferien arautegia osatu zuen eta –Jose Maria Uranga arrasatear historialariak dioenez– Meatzerrekako San Valerio basilizara aldatu ziren", azaltzen du Velez de Mendizabalek, santamasek historiari buruz egin zuen hausnarketan. 1727az geroztik azoka herriko harresietara ekarri zirela azaltzen du bertan Velez de Mendizabalek; Beheko Portalera ekarri zuten, hain zuzen

ere, eta horregatik da ezaguna leku hori Ferixaleku moduan. Edozelan ere, nahiz eta izen horrek bizirik iraun duen bere jatorriagatik, herriko beste leku batzuetan jartzen dute azoka orain.

Hutsunea frankismoan

Esan bezala, mendeetan ondo errotuta egon den azoka izan da

1988an jantzi ziren arrasatearrak baserritar, lehendabizikoz

santamasetakoa. Hala ere, erreportaje honetarako 50eko eta 60ko hamarkadetako santamasetako argazkien bila historialari eta aditu direnen ate mordoak jo ostean, ez da feriaren argazkirik aurkitu.

Azoka desagertzeko zorian

Juanito Leibarrek *Arrasate Press* hasiberriari azaldu zionez, 70eko hamarkada bukaeran santamasek eguna laneguna zen, eta, hori dela eta, sinesgaitza iruditu daitekeen arren, azoka desagertzeko zorian egon zen. Kurioso da jai horiek pairatzen ari ziren epe ahul hartan, 1976an zehazki, Santamasetako Komisiñoa sortu



GOIENA

2012. Duela hiru urteko argazki horrek erakusten du euskal folkloreaken izaera mantentzen jarraitzen dela santamasek jaietan. Askotariko dantza, herri kirol eta ikuskizunak egoten dira urtero.

zeneko datua. Hala ere, urte batzuk pasata, iraganean izan zuen indar hori berreskuratzen joan zen, azokaren espiritua berpiztuz, gaur egun arte.

Baserritar jantzeko ohitura

Gaur egun, abenduaren 22an Arrasate zapaltzen duen orok ikus dezake abarka, zapi eta txapelek betetzen dituztela kaleak: oso hedatuta dagoen tradizioa da. Baina baserritar jantzeko ohitura ez da oso aspaldikoa. 1988an egin zuen, lehendabizikoz, kuadrillen komisioko kalera base-

rritar jantzita irteteko deialdia; eta bistakoa da ohitura hori mantentzen jakin duela Arrasatek.

Sasoiari dagoen jai

Santamasek denboran zehar garaira moldatzen jakin izan dute eta baserritarren eta antzinako ofizioen lana herrira ekartzeko balio izan du horrek.

Horrekin batera, herri kirolekin, dantzekin eta folkloreakin, orokorrean, euskal tradizioa islatzen duen jai sasoian dagoela ikusten da 664 urteren ostean; izan ere, ez da ibilbide samurra izan duen jai.

Duda barik, arrasatearrendako urteko egunik garrantzitsuenetakoak dira datozenak; izan ere, egun gutxi geratzen dira, eta gogotsu daude euren abarkei hautsa kentzeko eta taloa eskuan dutela giro herrikoian santamasek jaiak ospatzeko.

70eko hamarkada bukaeran santamasek jaiak desagertzear egon ziren

Jose Aranzabal



Etxetresna elektrikoak
Etxerako osagarriak
–
Sukaldeko altzariak
Horma-armairuak
Gremioen koordinazioa



Emile Henry
FRANCE



ARRASATE

Doctor Bañez 2 • 943 79 18 92 • aranzabal.cocina@euskalnet.net - Iturriotz 15 • 943 79 15 16 • aranzabal@activahogar.com

BERGARA CHEF FINAL HANDIA



GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'
EGUAZTENA, ABENDUAK 23 | 22:00

BERGARA CHEF FINALEKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Beñat Abio eta Ariane Nafarrate
- Jose Mari Larrañaga eta Patxi Berraondo



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

- Larrañaga gozotegia
- Ogiberri okindegia
- Konde Panaderokua okindegia
- Gorla elkarte
- Maritxu Barrena
- Jose Mari Perez
- Koldo Lasa
- Jon Andoni Olabarria 'Budy'
- Inazio Beldarrain 'Azpeitxi'

Azoka:

- Ikuz labandegia
- Mertxe Oilaskoak-Urdaitegia



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Daniel Laskurain | Artista

"Artearen bidez sentimenduetan eragitea da nire helburua"

'Simón, dibujante callejero' nobela grafikoa kaleratu du artista bergararrak, Europan zehar dabilen marrazkilari bati buruzko istorioa kontatzen duena

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Daniel Laskurain (Bergara, 1966) artistak bere lehen nobela grafikoa kaleratu berri du, *Simón, dibujante callejero* izenekoa. Badi-ra 20 urte Iruñean bizi dela, eta marrazketa eskolak ematen ditu institutu batean. Hala ere, aste-bururo dator Bergarara, ez du bere herriarekiko lotura galdu. Joan den astean Elkar liburu-dendan izan zen liburua sinatzen.

Simón, dibujante callejero liburua kaleratu berri duzu. Nolako da liburu hori?

Testuak eta marrazkiak ditu, 45 inguru. Istorio bakoitza autonomoa da, baina guztiak erlazionatuta daude. Nobela grafiko moduko bat da. Istorioaren protagonista marrazkilari bat da, eta Europan zehar ibiltzen da topatzen duen jendea marrazten.

Testuak edo marrazkiek, zerk eman dizu lan handiagoa?

Biek. Batzuetan, testua marrazki batetik abiatuta sortu da: lehenengo, erretratua egin dut eta hortik testua idazten hasi naiz; eta beste batzuetan, alderantziz.

Beste batzuetan, biak batera egin ditut; adibidez, testuan sartu badut "gizonak sudur handia zuen", segidan sudur hori marrazten dut. Guztia batera egin dut, ez lehenengo bata eta gero bestea. Horregatik, nire burua ez dut ilustratzaile moduan ikusten. Nire arte proiektuaren zati bat dira marrazkiak.

Nolatan bururatu zitzaizun liburu bat idaztea?

Arte ederrak ikasi nituen, eta beti margolari eta marrazkilari izan naiz; baina beti idatzi izan dut; ipuin motzak, adibidez.

Lagun bati egin nion erretratu batetik sortu zen guztia. Gaizki atera zitzaidan, eta lagunak esaten zidan, "hori ez naiz ni". Arrazoi zuen, eta pentsatu nuen:


"Erretratu txar batetik sortu zen liburu egiteko proiektua"

"Ba, marraztutako hau ez bada bera, zein da?". Eta hortik istorio bat asmatzen hasi nintzen. Gero, nik asmatutako pertsona baten beste erretratu bat egin nuen, eta beste istorio bat idatzi. Proiektu hau horrela sortu zen, marrazki txar batetik.

Margolaria zarela diozu, baina eskultura ere landu duzu.

Bai. Liburuan gehiago sakontzeko, pertsonaien eskultura txikiak egiten hasi nintzen, eta orain horretan nabil. Hori da proiektuaren alderik originalena. Ikusi ditut liburuak marrazkiekin, baina oraindik ez dut ikusi liburu bat marrazki eta eskulturekin. **Zure arteak diziplina ugari uztartzen ditu. Nola deskribatuko zenuke zure lan egiteko era?**

Ez dakit... gauza originalak egitea gustatzen zait. Bestalde, eta liburu berri honetan ikus daiteke, zenbait kontzeptu txertatzen saiatzen naiz: maitasuna, bakardadea, laguntasuna, elkartasuna... Helburu nagusia jendea hunkitzea da. Nire erakusketa batera datorrena ez dadin sartu den moduan



Laskurain, pasa den egubakoitzeko liburu-sinatzean. | IMANOL SORIANO

atera, pertsonen sentimenduetan eragitea da nire helburua.

Zure artista ibilbidean hainbat sari irabazi dituzu, eta munduan zehar erakusketak izan dituzu.

Bai, nik bizitza osoa daramat honekin; nire aita margolaria izan zen. Urteak pasa ahala, gau-

zak pilatzen dira; batzuetan sariak, erakusketak... hori zahartzaroa da. [Barre]

Bergarako eskolako artistatzat daukazu zure burua?

Baietz esango nuke. Adibidez, nire liburuak ez du zerikusirik Simon Arrietarekin, baina protagonistaren izena haren omenez aukeratu nuen. Arrieta nire aitaren maisua izan zen. Bestalde, Arrieta asko baloratzen zuen marrazkia, eta horretan badugu zerikusirik. Zerbait badago Bergaran; Beartek ere lan handia egin du oinarritzko kultura bultzatzen, eskertzekoa da.

"Protagonistaren izena Simon Arrietaren omenez aukeratu nuen"

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA



BIKANTASUNAREN BIDEAN SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLAREN METODOLOGIA HAINBAT IKASTETXERENTZAT EREDU

Kalitatea hezkuntzan kontzeptuarekin guztiz konprometitu dagoen euskal ikastetxeen komunitatean sartu ginen duela ikasturte batzuk. Hari dagozkion ikuskaritzak gainditu eta ziurtagiri ofiziala eskuratu ostean, Teoriatik praktikara proiektua jarri genuen martxan. Hala, praktika onak hauteman eta aztertzeke ardura hartu genuen, beharrezkoa izanez gero, sakonago analizatu eta ikastetxe jakin baten ezaugarrietara moldatzeko aukera ere barne hartuta. Azken bi ikasturteetan zehar Haur Hezkuntzako geletan lantzen den Txokoen zirkulazioa-n oinarritutako metodologia aurkeztu eta azaldu diegu ikastetxe desberdinetako irakasleei. Hain aldekoa eta positiboa izan da esperientzien ebaluazioa, ezen aurten ere bisitak jasoko ditugun.

PARTEKATUZ IKASI

Orientabide programa bat da *Partekatuz ikasi*, eta prestakuntza zein berrikuntza-jardueretan –bisitak, batzarrak, materialen eskuratzeko, prestakuntza saioak, etab.– oinarritzen da. Eredugarriak diren praktika pedagogikoen berri izan eta horiek gauzatzeko lehen pausoak ematen laguntzea du xede Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimen honek.

Joan den ikasturtean Lekeitioko eskolak *solasaldi dialogikoen* esperientzia partekatu zuen gurekin; testu baten interpretazio desberdinen bidez ikasleengan hausnarketa eta elkarrizketa sustatzea dute helburu aipatu solasaldiek. Oso ondo baloratutako esperientzia izan zenez, aurtengo ikasturtean Lehen Hezkuntzako maila guztietan txertatu dugu.

TUTORIZAZIOTIK TUTORETZARA

Egun, tutorizazio lanetan dihardugu; Haur Hezkuntzako etapan autonomia lantzea ahalbidetzen digun *Txokoen zirkulazioa* partekatzen ari gara lau ikastetxerekin: Odon de Apraiz (Araba), Otxarkoaga (Bizkaia), Bakio (Bizkaia) eta Pagasarribide (Bizkaia). Besteak beste, ondorengoak dira landuko ditugun oinarritzko gaiak: testuinguru desberdinetan eskola-denboraren antolaketa, gelen kudeaketa, txokoen planifikazioa –batetik, ikasketa espontaneo eta esperimental bultzatzen dutenak; bestetik, ikasketa formal eta sistematikoa eskaintzen dutenak–, baliabideen antolaketa, edota irakasleen esku hartzea –behaketa, koordinazioa, etab.–.

Dagoeneko zenbait irakasleren bisitak izan ditugu eskolan eta, orokorrean, oso positiboak izan dira gure metodologiaren inguruko balorazioak; geletan nabari diren ordena naturala eta lan-giro atsegina, elkarreragin zuzenerako zein berezko adierazpenetarako eskaintzen duen aukera, mota askotako ikaskuntzak sustatzeko gaitasuna, ikasleen arteko elkartasuna, edota ikasleak gertutik jarraitzeko parada dira, besteak beste, aipatzen dituzten abantailak.



Demetrio Iriarteren posta-zigilua gutunetan itsasteko gertu dago

- ▶ 200 egin dituzte txistulariaren omenez eta Arkupen dauzkate salgai
- ▶ Basotxokoek ere izango dute gogoan elkarteko lehenengo lehendakaria

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gabonetako postalak Demetrio Iriarteren irudia duen zigiluarekin bidali ahal izango dituzte aretxabaletarrek. Hura jaio zeneko mendeurrenaren harira atera dituzte eta Arkupen dauzkate salgai 50 zentimoren truke.

Ohiko gutunendako

Aretxabaletako txistulari taldearen ekimena izan da posta-zigiluak egitea; hain zuzen joan den irailen hil zen Ramon Erañaren burutazioa. Oñatiko Zeka filatelia taldearen bitartez egin dituzte, Luis Maiztegiren gidaritzapean. Irudia, ostera, Jabier Erostarbe oñatiarrak egin du. "Postetxearen baimen guztiak ditu eta guk A tarifa aukeratu dugu, ohiko gutun eta postalak Espainiara bidaltzeko", jakinarazi du Jokin Antxiak, txistulariak, eta gaineratu: "200 egitea erabaki genuen jakin barik zelako harrera izango zuten. Orain uste dut herritarrek gustura hartuko dituztela, eta laster buka-

tuko direla". Astelehenean aurkeztu zituzten Iriarteren senideen aurrean, eta pozik agertu ziren.

'Bilobaren begietan' kontzertua

Iriarteren urteurrenaren ospakizunak abenduarekin batera bukatuko dituzte. Azken egunotan, baina, ekitaldi mordotxoak dituzte aurrez aurre. UDAkoek, esaterako, domekan, Hirugarren Mailako taldeak Santutxuren aurka duen partidua baino lehen, 16:15ean, Iriarte omenduko dute, UDAREN ereserkiaren konpositoria izan zelako. Txistulariekin eta dantzariekin ekitalditxoak egingo dute eta senideek kamiseta bat emango diete.

Abenduaren 23an, ostera, *Bilobaren begietan* izena duen kontzertua emango du haren biloba Aitor Ziardegik, beste hainbat musikari lagun hartuta: "Txistua beharrene beste instrumentu batzuen doinuak erabiliko dituzte, oboea, teklatura eta txeloa beste batzuen artean".



Jokin Antxia eta Iriarteren senideak zigiluak eskuetan dituztela. | MIRARI ALTUBE

Hilaren 23an, gainera, Iriarteren omenezko Interneteko ataria aurkeztuko dute. Aretxabaletako argazki taldeko kideek egin dute eta han zintzilikatuko dituzte danbolinteroaren gaineko kontu guztiak, partiturak, argazkiak eta bideoak, esaterako.

Basotxon ere omenaldia

Basotxo erretiratuen elkartekoek ere izango dute gogoan Iriarte. Datorren astelehenean, San Tomas eguna, omenaldi xume baina beroa eskainiko diote erretiratuen elkarteko lehenengo lehendakariari.

Goizean goizetik izango dute jai giroa elkartean. "11:00etan, Gabonetako 40 saski zozketatuko ditugu, urtero legez, bazkide guztion artean; saski dotoreak izango dira aurtengoak ere", dio Jose Inazio Isasmendik, presidentek.

Iriarteren omenezko ekitaldiak 17:00etan hasiko dituzte: "Gure lehenengo lehendakaria izan zen, eta egun horretan, abenduaren 21ean, hain zuzen, beteko zituen 100 urte", dio. Aitzakia horrekin, aurten 100 urte bete dituzten bazkide bi ere omenduko dituzte: Natividad Rodriguez eta Angeles Molina. "Iriarteren kintakoak biak, ohorezko bazkide izendatuko ditugu".

Ekitaldiaren berri eman: "Basotxoren lehen urteetako ibilbidearen berri emango dugu, aurkezpen txiki bat izango da. Ondoren, dantzarien txanda etorriko da; eta gero, herriko txistularien eta Basotxoko kantu taldearen emanaldia. Iriartek berak konposatutako lau bat pieza interpretatuko dituzte bien artean. Bukatzeko, Iriarteren senideei opariak banatuko dizkiegu, eta ostean, txorizo muturtxoak izango dugu guztiondako, trikitilariak girotuta".

Iriarterekin batera zuzendaritza batzordea osatu zutenak ere gogoan izango dituzte; hona: Juan Jose Galdos (lehendakariordea); Prudencio Eskibel (diruzaina); Francisco Alzola (idazkaria); Leonor Aranzabal (bokala); Calixto Eraña (bokala); Julian Uriarte (bokala); Salustiano Herrasti (bokala) eta Jose Mari Izagirre (bokala).

Izendatu dituzte auzoetako alkateak

M.A. | ARETXABALETA

Urri inguruan baserri auzoetan abian jarritako aukeraketa prozesua bukatu da eta izendatu dituzte horietako alkateak; bederatzik, guztira. Urtarrilean batzarrak egingo du Unai Elkoro alkateak elkar ezagutzeko.

Funtzionamendua adostu

"Lehen hartu-eman batzarrak abenduan egitekoa nintzen, baina agenda arazoak direla-eta ezin izango dut hori bete.

Hortaz, urtarrilean izan behar du", jakinarazi du Elkorok. Eta batzar horrek nondik nora joko duen argitu du: "Lehenengo helburua izango da lan dinamika bat ezartzea, urtean hiru edo lau aldiz elkartu eta nola funtzionatuko dugun zehaztea. Izan ere, orain artekoak kexu izan dira ez zieten kasurik egiten eta...". Eta gaineratu du: "Saiatuko gara hori konpontzen".

'Argitu erabakia' ekitaldia GEDk deituta

Urtarrilaren 3an kriseiluak bidaliko dituzte zerura kiroldegi aurreko zelaitik

M.A. | ARETXABALETA

Gure Esku Dago dinamikaren Aretxabaletako lantaldeak *Argitu erabakia* ekitaldia antolatu du urte berrirako. Urtarrilaren 3an, domeka, 18:30ean, izango da, eta kriseiluak bidaliko dituzte zerurantz kiroldegi aurreko zelaitik: "Kriseiluen bitartez

Aretxabaletako zerua argitzea da asmoa", jakinarazi dute lantalde horretako kideek, eta aretxabaletar guztiak gonbidatu dituzte hara.

Postuak kriseiluendako

Kriseiluak aurrez eskuratu behar dira, eta horretarako

postuak jarriko dituzte hainbat egunetan eta lekutan.

Abenduaren 24an (12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara) eta 26an (18:00etatik 20:30era) Herriko Plazan izango dituzte salgai. Eta abenduaren 31n (18:00etatik 20:00etara), Durana kalean.



"Zorionak eta segi!", esan diete 90 urteko bazkideei

Dantzarien agurra, elkarteko kantu taldearen emanalditxoak eta opariak izan zituzten joan den domekan, Basotxon, 90 urteko bazkideek. Zortzik jaso zuten omenaldia, baina bertan bost elkartu ziren, egoitza goraino beteta zegoela; honako hauek: Carmen Urrutia Ibabe, Gregoria Iñurrategi Etxebarria, Benito Domaica Sagastui, Apolonia Gartzia-Etxabe Ugarte eta Isabel Bengoa Ezkibel. "Zorionak eta segi aurrera!", esan zieten guztiei.

IMANOL SORIANO

AUZO ALKATEAK

ALKATEA	BASERRIA	AUZO
Aitor Apraiz Arenaza	Zuatzubiskar	Aozaratz
Iñaki Oraa Arenaza	Ametza Garai	Izurieta
Julian Llodio Ganboa	Arrikua	Oro
Ines Txintxurreta Iparragirre	Urtitxi	Goroeta
Igor Kortazar Arexolaleiba	Apotzagaetxebarri	Apotzagaetxebarri
Aitor Arantzabal Elortza	Zaloña Aldekoa	Galartza
Javier Zugasti Makazaga	Erderena	Arkarazo
Iñigo Gastañaga Balza de Vallejo	Andikua	Areantza
Dabid Agirre Unzueta	Larrino Garai	Larrino

Herritarrek egindako Gabon giroko azoka aste bukaeran

Gaur 18:00etan zabalduko dute musika eskolako ikasleen kontzertuarekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Neguko Azoka izenarekin lehenengoz egingo dute Aretxabaletan Gabon atariko azoka, eta gaurtik domeka eguerdira bitartean Herriko Plaza inguruak girotuko ditu. Hain zuzen, gaur piztuko dituzte argiak herriko kaleetan Gabon giro hori indartzeko asmoarekin. Azken urteotan baino toki gehiago argizatuko dituzte, gainera, udal ordezkarien esanetan.

Karpa berogailuarekin

"Azoka izango da herritarrek egindakoa herritarrendako. Aretxabaletan baditugu ekoizleak eta artisauak, baita merkataria ere, eta aukera bat merezi dute guztiek", jakinarazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. "Era berean, Gabonetako giro jatorra lortzea gurean da asmoa, beste herri askotan egingen duten legez".

Karpa handia jarriko dute plazan, 20 x 10 metrokoa, berogailu eta guzti. "Beharbada, txiki geratuko da, baina, lehenengoz jarriko dugunez, akatsetatik ikusiko dugu", dio.

Musika eskolako tonbola

Leizarra musika eskolakoekin egingo duten Gabonetako kontzertuak zabalduko du azoka, gaur, 18:00etan, eta 22:00ak arte izango ditu ateak zabalik; zapatuan goizez (10:00-14:00) eta arratsaldean (18:00-22:00) egongo da; eta domekan goizez bakarrik (10:00-14:00).

Musika eskolakoekin, gainera, tonbola jarriko dute *Ez dadila instrumentu faltagatik izan!* leloarekin. Etxean alboratutako instrumentuak jasoko dituzte gaur arratsaldean, erosteko aukerarik ez dutenei eskaintzeko. Eta tonbolan txartelak salduko dituzte bi eurotan. Diru hori izango da instrumentuak konpontzeko eta berriak erosteko.



Izaro Sanchez artisaua sanmigeletako azokan. | GOIENA

Joaldunak eta trikitilariak

Azoka girotzeko beste ekitaldi batzuk ere izango dira; bihar, esaterako, Simon Otxandategi taldeko joaldunak ibiliko dira

kalean gora eta behera, baita musika eskolako trikitilariak ere. Eta domekan egurrezko jolasak izango dituzte neska-mutikoen karpan bertan.

POSTUETAKO KIDEAK

MERKATARIAK

- ▶ Belar Meta.
- ▶ Amaia.
- ▶ Atai.
- ▶ Tinta Beltza.
- ▶ L-10 ile-apaindegia.
- ▶ Txilarra.
- ▶ Brasileña.
- ▶ Orly taberna.
- ▶ Txakoli taberna.

EKOIZLEAK

- ▶ Jose Lonbide.
- ▶ Mendibitzu baserria.
- ▶ Etxezuri baserria.
- ▶ Jakion.

ARTISAUAK

- ▶ Miriam Carretero.
- ▶ Izaro Sanchez.
- ▶ Ane Gonzalez.
- ▶ Mikel Unanue.
- ▶ Julen Landaluze.

HERRIKO TALDEAK

- ▶ Hiruatx.
- ▶ UDA.
- ▶ Zariaia.
- ▶ Okila.
- ▶ Leizarra musika eskola.

Beste talde edo norbanakoren bat gehiago izan daiteke.

Aretxarteren egutegia banatzeko gertu dago

Bizi, erosi, Atxabaltan izena duen egutegia gertu daukate banatzeko Aretxartereko kideek. Ane Idigoras eta Ivan Valle argazkilariek erretratu dotoreak atera dizkiete merkatariei: Arkupen kantuan, pokerrean jokatzeko, igerilekuan, Urkulun... Beste behin, lotsa barik jarri dira argazkilarien eskuetan, eta gaurtik herritarren etxeetan sartuko dira urte osorako.



AMAI TXINTXURRETA

Txaro Gallego aretxabaletarrak 'Suerte' bakarrizketa estreinatuko du gaur Arkupen

Urte askoan Madrilen bizi ostean Aretxabaletara itzuli den Txaro Gallego aktoreak *Suerte* antzezlanaren estreinatuko du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arkupen (sarrera lau euro da). Ikerketa-antzerkiaren barruan berak idatzi eta ekoiztutako bakarrizketa da. Poesia, ipuinak eta kantuak bateratuko ditu, eta gai askoren gainean jardungo du: amodioa, heriotza, bakardadea...

Apotzaga eta Gellao aldera mendi irteera egingo dute bihar, zapatua, Guraso Foroak deituta

Apotzaga eta Gellao auzoetako bideak eta txokoak ezagutzeko mendi buelta antolatuko du Guraso Foroak biharko, abenduak 19. 4 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten familiei egin diete dei, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik. Herriko Plazatik irtenko dira, 10:00etan, eta 13:00 inguruan itzuliko dira. Ikasturteko lehen irteera da eta hilabete guztietan egingo dituzte.

Gabonetako parkea izango dute 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoen abenduaren 22an eta 23an

Gura beste jolas egiteko aukera izango dute 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoen martitzenean eta eguaztenean, Ibarra kiroldegian. Ordutegia honako hau izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gabonetako parkean izango dituzte, besteak beste, hauexek: puzgarriak, eskulanak, mahai-futbola eta Wii eta XBOX jolasak. Bi egunetako sarrera-bonua 10 euro da.

Diskoien eta liburuen gomendioekin osatutako Neguko Gida gertu daukate liburutegian

Aretxabaletako liburutegiak Aramaio, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñatikoarekin elkarlanean egingen duen Neguko Gida gertu dago. Diskoien eta filmen gomendioak jaso dituzte han, umendako, gazteendako zein helduendako. Ikastetxeetan banatu dituzte gida horiek eta Udalaren (*Aretxabaleta.eus*) eta Arkuperen (*Arkupe.eu*) web atarrietan ere egin daiteke kontsulta.

2016ko Aratusteak iragarriko dituen kartel lehiaketa abian da

M.A. | ARETXABALETA

Azken urteotan legez, lehiaketa bidez aukeratuko du Udalak Aratusteak iragarriko dituen kartela. Lanak Arkupera eroan behar dira 2016ko urtarrilaren 14a baino lehen eta irabazleak 200 euroko jasoko ditu.

Urtarrilaren 18an erabakia

Lehiaketan edonork parte hartu ahal izango du eta lanak bi baldintza bete beharko ditu: neurria izan beharko da 50x70 zentimetrokoa, eta, digitalean eroanez gero, DIN-A3; eta testua izan beharko da honako hau: *Aratusteak, Aretxabaleta*

2016. Lanak egiteko erabilitako teknika, ostera, librea da.

Kartelarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko dute egileek ezizenarekin. Eta horren barruan norberaren datuak zehaztuko dira; honako hauek: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia.

Epaimahaia osatuko dute kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat lagunek. Eta erabakiaren berri urtarrilaren 18an emango dute. Kultura batzordeak egoki ikusiz gero, gainera, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatuko dute.

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Sahararrei elkartasuna adierazteko mozioa aho batez onartu dute

Saharari diru laguntza bideratzeko festa antolatu du gazte txokoak Zurrategi plazan, domekarako

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urteko azken ezohiko osoko bilkura martitzenean egin zuten. Bertan, sahararrei elkartasuna adierazteko mozioa aurkeztu zuen SOS Sahara taldeko Mikel Olabarria kideak. Aho batez onartu zuten alderdi guztiek mozioa. "Urrian gertatutako uholdeek 11.000 familia etxerik gabe utzi dituzte. 40.000 saharar inguru ezer gabe daude. Premia larrikoa da eurei lehenbailehen laguntza bideratzea. Kasu honetan, ekonomikoa; hala, bertako Ilargi Erdi Gorria GKEk kudeatuko luke berme osoz bidalitako diru laguntza. Izan ere, elkartasun karabanak bi hilabete beharko luke Saharara iristeko, eta, gainera, kostu ekonomikoa suposatuko luke. Horregatik, diru batzea egiteko erabakia hartu dugu", azaldu zuen Olabarriak.

Domekan egingo den elkartasun festaren bultzatzailea gazte txokoa da. Bertako dinamizatzaile Itsaso Garmendiak dio gaztetxoei Saharako errealitatea gerturatzeko ekintza dinamikoak egin dituztela: "Sahararrei laguntzeko aukera ezin hobea iruditu zaigu domekako elkartasun festa. Garrantzitsua ikusten dugu gaztetxoei bertako errealitatea ezagutzera. Hala, elkarrekin landu dugu gaia dokumental eta argazkien bitartez. Domekan pintxoak jarriko ditugu Zurrategi plazan Saharari laguntzeko; 18:00etan hasita egingo dugun festan musika eta haima jarriko ditugu. Batzen duguna Saharara bidaliko dugu".



Urrian izandako uholdeek kalte handiak eragin dituzte kanpalekuetan. | ANELKAR

Diru laguntzak

Sahararrei diru laguntza bideratzea ere aho batez onartu zuten osoko bilkuran batu ziren alderdiek. "Babes ekonomikoaz, elkartasuna adierazi gura genuen mozio honekin; baita ere Udalaren posizioamendu politikoa", azaldu zuen Olabarriak. "Udalak diruz lagundu du; baita Anelkarrek ere. Laguntza gehiago lortzeko, astelehenean, abenduak 21, Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertuan izango gara; Torresoroan, 18:30ean".

Bestalde, Saharako Ilargi Erdi Gorria erakundeak kontu korronte zenbakia zabaldu du herritarren elkartasuna jasotzeko asmoz: 0010 0411 03 1000001773 (Croissant Rouge Saharaoui).

Elkartasun karabana eta festa

Otsailaren 27an, Saharako errepublika aldarrikatu zela 40 urte beteko dira. Hala, datorren urtera begira kanpaina bat abiatzeko asmoa du SOS Saharak. "Bergara eta Antzuola artean zozketa bat atera gura dugu. Gainera, otsailaren 27a zapatua dela aprobetxatuta, jai berezi bat ere egingo dugu bailara osoko herritarrek gerturatzeko. Eta, nola ez, elikagaien elkartasun karabana ere antolatuko dugu Saharara bidaltzeko", aurreratu du Mikel Olabarriak.

Domekan, abenduak 20, baina, lehen elkartasun keinua egingo da gazte txokoaren eskutik Zurrategi plazan arratsaldeko seieta hasiko den festan.



Mari Domingi eta Olentzero plazako ekitaldian. | ANTZUOLA.COM

Olentzero eta Mari Domingi kantuan datoz

Abenduaren 24an, gaztetxoei gutunak eman eta eskariak egiteko aukera izango dute

M.A. | ANTZUOLA

Gabonak ate joka dauden honetan, ekintza ugariarekin gozatzeko aukera izango da ondorengo egunetan. Kirola, musika, Herriko Plazan egingo zaie ongiatorria Olentzero eta Mari Domingiri. Dantza egingo diete Oinarineko dantzariak eta bertsoak abestuko dituzte 6. mailako ikasleek. Mari Domingi egingo du berba *Horra Mari Domingi* abestiaren ostean eta zenbait herritarrek eskaerak egingo dizkiete bi protagonistei. Iratxoak ere etorriko dira Olentzero eta Mari Domingiri laguntzera eta beraiek jasoko dituzte antzuolar guztien eskutitzak. *Hator hator* kantua abestuz bukatuko da ekitaldia.

Badator Olentzero!

Olentzero eta Mari Domingiri ongiatorria egiteko eguna izango da abenduaren 24a. Hala, 11:00etan, Pausokak antolatuta, eskolako ume eta gurasoak Errekalden kantuan egiteko batuko dira (euria bada eskolako aterpean). Errekalden hasi eta herrian behera egingo dute kalejira, trikitalari eta txistulariek lagunduta. Herriko zenbait puntutan geldialdia egin eta kantuan egingo dute. Ondoren, luntxa *Ez dot moztuko bizzarra*-k antolatuta, Zurrategin.

Eta iluntzean, 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingi San Josepetik behera etorriko dira, argi-zuziek. San Josepetik plazara egingo dute kalejira txistulariekin batera. Aurten, Herriko Plazara zuzenean joan

beharrean, kantatu egingo dute herritarrekin batera bidean zehar. Ondoren, ekitaldi nagusia plazan egingo da. Izan ere, Herriko Plazan egingo zaie ongiatorria Olentzero eta Mari Domingiri. Dantza egingo diete Oinarineko dantzariak eta bertsoak abestuko dituzte 6. mailako ikasleek. Mari Domingi egingo du berba *Horra Mari Domingi* abestiaren ostean eta zenbait herritarrek eskaerak egingo dizkiete bi protagonistei. Iratxoak ere etorriko dira Olentzero eta Mari Domingiri laguntzera eta beraiek jasoko dituzte antzuolar guztien eskutitzak. *Hator hator* kantua abestuz bukatuko da ekitaldia.

Krosa eta ipuin saioa

Abenduaren 26an, Gabonetako krosa egingo da 17:00etan hasita. Eta abenduaren 29an, 4 eta 10 urte arteko txikitxoendako ipuin kontaketa saioa egingo du Dorleta Kortazarrek. *Ipinari tiraka* emanaldia 18:00etan Torresoroan izango da.

Urtarrilaren 4an, aldiz, haurrentzako jolas parkea jarriko dute eskolako patioan.

Zumba eta Ziklon Eguna ospatuko da urtarrilean herriko pilotalekuan, gimnasioak antolatuta

Bi *master class* izango dira urtarrilaren 19an. Batetik, dantza eta gimnasia uztartuko dituen *zumba* saioa izango da. Bestetik, bizikleta oinarri duen *ziklon* saioa. Bi kirol jardueretan izena eman gura dutenendako epea zabalik dago. Atsedetik izango ez duten bi kirol jarduerak Udal Gimnasioak antolatu ditu, kirola sustatzeko asmoz. Izena urtarrilaren 13ra arte eman daiteke

OHARRAK

KIRIKIXO TXIKI TXOKOA

Gaur, Kirikixo txiki txokoak Errekalde leko lokal berria inauguratuko du, 17:00etan.

ko 19:00etan jarriko duten postuan.

TXISTORRA -JANA

Abenduaren 22an txistor-jana erretiratuen elkarteak, 17:00etan.

KRISEILUAK

GEDk abenduaren 26an krisailuak zeruratuko ditu Zurrategin, 18:30ean. Krisailuak salgai jarriko dira abenduaren 17, 18, 19 eta 24an arratsalde-

KONTZERTUA

Musika eskolako ikasleen kontzertua Torresoroan, 18:30ean.

Led argi berriak jarri ditu Udalak Gabonak argiztatzeko

Asteon piztu dituzte Gabonetako argiak Antzuolan. Aurten, gainera, argi berriak estreinau ditu Udalak. Hain justu ere, led argitxoak daramatzaten sare itxurako argiztapenak dira. Udaletxeko balkoia apainduko dute; baita herriko zenbait puntu ere. Apaindu, eta energia aurreztuko dute.



MAIDER ARREGI

Flamenkoa gustuko duten herritarrek astero izaten dute hitzordua Sastiñan

Urriaz geroztik dantza ikastaroa eskaintzen dabil Malena Lobo; bi talde ditu, nagusiena eta umeena

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaioarrek gustuko dute flamenkoa. Nabari da hori Sastiñako flamenko ikastaroetan. Gustuko izateaz gain, gainera, artea badutela erakusten dute, astero, Malena Lobok (Valladolid) eskaintzen dituen ikastaroetan.

Urriari hasi zen Lobo dantzak erakusten: "Gogoia nuen flamenkoa erakusteko. Udalean proiektua aurkeztu nuen eta aurrera egiteko esan zidaten. Uste nuen baina jende gehiagori gustatzen zaio flamenkoa hemen!". Bi talde egin ditu: nagusiena bat, bederatzi lagunekin; eta umeena bestea, lau gaztetxorekin.

Koordinazioa lantzen

Lobok dio beroketa ariketak egiten dituztela lehenengo, eta ondoren hasten direla eskolarekin. Hasierako egunetan hankak eta eskuak nola koordinatu ikasi dute, eta, ondoren, dantzako pausoak ikasten joan dira. "Gaztetxoekin abesti ezagunak ipintzen ditut; adibidez, Enrique Iglesiasen *Bailando*". Umeekin, gainera, jokoak ere egiten ditu, ondo pasatuz hainbat trebetasun ikas dezaten gaztetxoek.

Fandangoa, bulerriak, alegriak, rumbak, sevillanak... horiek guztiak egiten dituzte eskoletan.

Osagarriak erabiltzen dituzte

Abanikoa, kriskitinak, mantoia... erabiltzen dituzte dantzetan. Horiek oso gustuko dituzte gaztetxoek; batez ere, abanikoa.



Gaztetxoak eta nagusiak Malena Lobo irakaslearekin. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Gustura ibiltzen gara flamenkoa ikasten", diote. Maitane Uribe eta Dori del Mazo nagusien taldean dabilta: "Beti gustatu izan zait flamenkoa, eta ikastaroa egongo zela jakitean ez nuen zalantzarik izan", dio Uribek.

Lobo irakaslea ere gustura dago taldearekin. Aramaioko jaietarako flamenko ikuskizuna prestatuko dutela dio. Norbaitek taldean parte hartzeko interesa izanez gero, idatzi maledanza@hotmail.com helbidera.

Gabon garaiko urteroko hitzordua bertsoarekin

KOMUNITATEA GOIENA | ABE
ARAMAIXOKO BERTSO ESKOLA | ARAMAIO

Historikoa esatea gehiegitxo izango da, agian, baina ibilbide luzea du gurean Gabonetako bertso saioak. Aurten, abenduaren 26an, zapatua, 22:30ean izango da saioa, eta laukote potentia dator, gainera.

Saio asko egiten dira Aramaion urtean zehar, hori ez dugu ukatuko. Gehienak bazkari eta afarien bueltan, tabernetan izaten dira, eta bakarra izaten dugu areto-formatukoa, urte osoan zehar. Horregatik, mimo handiz zaintzen dugu saioa, eta aurtengo lau gonbidatuak dira horren lekuko.

Lau bertsolari oholtzan

Lau bertsolari izango dira Gabonetako saioan kantuan. Andoni Egaña: nork ez du ezagutzen bertsolariaren azken hamarkadetakoa erreferentzia nagusia. Berak ere ederto ezagutzen du Aramaio, eta igarriko da hori.

Manex Agirre: hau ere nork ez du ezagutzen, gure herrian, behintzat. Aurten Arabako txapela jantzi berritan dator, gainera. Iñaki Viñaspre: San Martin Eskolan azken urteotan *Gu ere bertsoan* proiektuko irakasle dabil; beraz, txiki-nentzat gertukoa, eta bertsolari handia. Arabako txapelketako txapel-dunorde. Jexux Mari Irazu: iaz kamerarekin etorri zen, *Bertsoa.eus*-erako grabazio bila. Aurten, bertso-tara gonbidatu dugu. Ea zer kontatzen duen larrauldarrak.

Sarrera 5 euro

Gai-jartzaile lanetan Marta Ugarte gasteiztarra izango dugu. Bertso saioa 22:30etan puntuan hasiko da, eta sarrera honako hau izango da: 18 urtetik gorakoek 5 euro ordaindu beharko dute eta 18 urtetik beherakoek, 3 euro. Aramaioko kultura etxean izango da ikuskizuna. Etorri, eta gozatu!

Gabon kanten emanaldi bi aukeran asteburuan

Biharko emanaldian herritar askok abestuko dute parrokan: 19:00etan izango da

A.E. | ARAMAIO

Gabonei ongietorria abesten emango diote Aramaion. Bi emanaldi izango dituzte aste bukaeran: zapatuan, herrikoia; eta domekan, Bizente Goikoetxea abesbatzarena.

Bihar, zapatua, Gabon Kanten Topaketa egingo dute. Legutioko, Otxandioko eta Arrasateko lagunak bisita izango dute aramaioarrek. Izan ere, aurreko urteetan beste herrietan

abestu ondoren, aurten Aramaiori egokitu zaio topaketa antolatzea. 19:00etan izango da kantaldia, elizan. Lehengo Gabon kanten ezagutzera ematea da helburu nagusia.

Bizente Goikoetxea

Domekan, Bizente Goikoetxea abesbatzak eskainiko du emanaldia. 12:30ean *Gabonetako kontzertua* eskainiko du abesbatzak elizan.

Adinekoei erorikoak nola saihestu erakutsiko diete

Alaiak jubilatuen elkarteak antolatuta, nagusiei zuzendutako ikastaroa egingo dute kultura etxean: *Adineko pertsonak jaustea. Informazioa eta prebentzioa* izango da gaia. Hitzaldia gaur izango da, bariakua, Kultura etxean, 18:00etan. Fernando Gomez Busto medikua izango da hizlaria. Adineko pertsonak jaustea nahiko ohikoa da, eta, horregatik, hainbat aholku emango ditu eroriko horiek saihesteko. Gainera, eroriko gehienak etxean gertatzen dira. Hitzaldia joango diren parte-hartzaileen artean opari bat zozketatuko du Alaiak jubilatuen elkarteak.

Mundukidek erakusketa zabalduko du hilaren 25ean Sastiñan

Batu taupadara! erakusketa zabalduko du Mundukidek datorren astean. Mozambiken, Brasilen eta Kuban Mundukidek martxan dituen programen gaineko erakusketa izango da. Argazkiez gain, hainbat informazio jasoko duten panelak ere jarriko dituzte ikusgai. Erakusketa hilaren 25ean, 26an eta 27an egongo da ikusgai, 12:00etatik 14:00etara, Sastiñan. 15. urteurrena bete du Mundukidek aurten; fundazioaren lana, filosofia eta emaitzak gizar-teari hobeto ezagutarazteko ekitaldi ugari egin dituzte azkeneko hilabeteetan. Mundukidek 15 urte daramatza kooperazio ereduak sustatzen, eta hori erakutsi gura dute erakusketan.

Laboral Kutxaren eta Real Madrilen arteko lehia ikusteko, irteera

Zuiako Kuadrillak irteera antolatu du Laboral Kutxaren eta Real Madrilen arteko saskibaloi partidua ikustera joateko. Urtarrilaren 3an, 18:00etan, izango da norgehiagoka, Gasteizen. Partidua ikustera joan gura duenak izena eman beharko du abenduaren 24a baino lehen. Horretarako, kuadrillaren kontu korrante zenbakian -2095 3224 21 1091573864- ingesatu beharko du dirua: 4 eta 14 urte bitartekoek 10 euro eta 15 urtetik gorakoek 14 euro. Derrigorrezkoa da ordainagria udaletxera eramatea. Autobusa kiroldegitik irtengo da, 16:50ean.



ARANTZAZU EZKIBEL

Lapiko artean gustura ibili dira

Alaia Jubilatuen Elkarteak sukaldaritza ikastaroa egin dute asteen. Martitzenean, eguaztenean eta eguenean elkartu dira Andoni Iburguren sukaldariaren esanetara 13 lagun. Betiko sukaldaritza ukitu modernoarekin egiten ikasi dute: oilaskoa, enpanadilla, tiramisua, briochea, ogia... egin dute, besteak beste. Prestatuko platerak dastatzeko aukera izan dute, gainera.



San Martingo zelai ondoan egindako erretratua (2012); iaz zirkuitua lekuz aldatu zuten antolatzaileek. | GOIENA

ZIKLO-KROS ORDUTEGIA

10:00 Kadeteak.

11:00 Emakumezkoak eta juniorrak

12:00 Master kategoriakoak.

13:00 Elite eta 23 urtez azpikoak.

razi du, aste barruan, antolatzaile taldeko Ruper Arkauzek.

Joan den asteko Arrasateko lasterketarekin alderatuta, Oñatira domekan ze txirrindulari etorriko diren baieztatzerik ez badago ere, lasterketak beste protagonista batzuk izango ditu, seguru. Izan ere, aukera handiak daude joan den astean Valentzian jokatu zuten Espainiako Kopan egondako ziklista onenak Oñatin egoteko (Hernandez, Larrinaga eta konpainia).

Gainera, datorren astean jokatuko dute Euskadiko Txapelketa Legazpin, eta Oñatikoa lasterketa aproposa da hitzordu hori ondo prestatzeko.

Oñatiko sei ziklista

Bailarako hainbat ziklista izango dira lasterketan, baina oñatiarrak sei izango dira. Kadete mailan (10:00) Ander Blazquez eta Garazi Erostarbe lehiatuko dira. Junior mailan (11:00), berriz, Ekaitz Txintxurreta, Andoni Igartua eta Ander Gartzia izango dira Arrikruzteko ordezkariak, eta master 50 kategorian Andoni Gartzia lehiatuko da.

Bixente Etxeandiaren eta 'Txelis'-en omenezkoak

X.U. | ARETXABALETA

Urtero moduan, Mondrak eta UDAk harrobiko gaztetxoendako futbol torneoak antolatu dituzte Gabonetara begira. Abenduaren 27an (domeka), Txelis-en omenezko txapelketa bederatzita urte beteko ditu; hain zuzen, Mondrak 24 talde gonbidatu ditu, goiz eta arratsalde, Mojategin futboleant jokatzera.

UDAk, bestalde, futbol eskolan dabilen Debagoieneko taldeendako Gabonetako Bixente Etxeandia Txapelketa antolatu du. Ibarrako herdegunean izango dira partiduak, abenduaren 26tik urtarilaren 2ra arte.



Gola ospatzen. | GOIENA

Oñatiko ziklo-krosak beste protagonista batzuk izango ditu

Domekan egingo dute bailarako bigarren ziklo-kros lasterketa, Urrutxun

XABIER URZELAI | OÑATI

Bigarren astez jarraian ziklo-krosa izango da Debagoienean –Euskadiko Openaren barruan–, eta, Arrasaten gertatu moduan, domekan ere lokatz gutxi izango da

Aloña Mendiko lagunak Urrutxuko zelaietan prestatu duten zirkuituan –seigarren edizioa jada–: "Oñatikoa zirkuitu azkarra da, eta, eguraldi siku honekin lokatzik ez dagoenez, are eta azka-

rragoa izango da. Pena ere bada, ziklistei lokatza egotea gustatzen zaie eta. Zona berri bat izango du zirkuituak, tekniko samarra, eta zubi txiki bat jarri dugu ziklistak bertatik pasa daitezen", adie-

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x



Logelak

Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

sukia GEDI

FINANTZAKETA:





Aurkezpenaren ostean Ibarra parean egindako talde erretratua. | GOIENA

Debagoieneko selekzioa, Realarekin eta Athleticekin batera Gabonetan

Abenduaren 31n jokatuko dute senior mailako hiruko torneo; egun bat lehenago alebin, infantil eta kadete mailako txapelketak egingo dituzte

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Aurtengo Gabonetan ere emakumezko talderik onenak Ibarra futbol zelaietan batuko dira; izan ere, Debagoieneko selekzioarekin batera Arizmendikoek –antolatzailak– Reala eta Athletic txapelketara ekartzea lortu dute. Emakumezkoen zuzendutako futbol eskaintza, baina, ez da nagusien partidura mugatuko.

Hilaren 30ean gaztetxoak
Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa abenduaren 30ean hasiko dute, maila txikiak kategorietan. Hala, alebin, infantil eta kadete mailako talde mordo batuko da Ibarra, zortziko futboleko jokatzeko asmoz. Tartean egongo dira Debagoieneko Mondra, Bergara, Aloña Mendi eta Arizmendi, baina Gipuzkoatik beste talde asko etorriko dira; esaterako, Lazkao, Lagun Onak, Eibar, Anaitasuna, Mutriku eta Urki.

Eta abenduaren 31n senior mailako hiruko torneo izango

da. Eta hor lehiatuko dira ibarreko ordezkariak –taldean daude Bergarako, Aloña Mendiko, Mondra eta Arizmendiko jokalariek– Realaren eta Athleticekin kontra.

Txapelketaren nondik norakoak azaltzeko aurkezpena egin zuten martitzenean Aretxabaletan. Nekane Soria Realeko kontseilaria eta emakume sailaren arduraduna, Nerea Etxabe Aretxabaletako Udaleko zinegotzia, Elena Errasti Arizmendi Ikastolako

Bigarren Hezkuntzako zuzendaria eta Urtzi Amiano Arizmendi Kirol Elkarteko ordezkaria izan ziren txapelketa aurkezten.

Emakumeen presentzia indartu
Pentsaurrekoan egon ziren lagunek halako txapelketak antolatzea eskertu zuten, gizonezkoen presentzia gailentzen den futbola moduko kirol jardueran emakumeen parte-hartzea sustatzeko. "Emakumezkoen presentzia kirolean indarra hartzen dabil eta halako txapelketek horretan laguntzen dute, zalantza barik. Ikusi besterik ez dago telebistan emakumezkoen gero eta partidu gehiago ematen dabiltzala, eta ez bakarrik futboleko", azaldu zuen Realeko ordezkari Nekane Soria. Bestalde, Arizmendiko Elena Errastik gaineratu zuen Arizmendi Ikastolaren helburua dela pertsona euskaldun eta kooperatiboak hezteko, eta, hain zuzen, horretan kirolak ere zeresan handia duela.

ESANAK

"Emakumeen presentzia kirolean geroago eta nabariagoa da"

NEKANE SORIA | REALEKO ORDEZKARIA

Aretxabaleta eta Eskoriatza, bi puntuko aldea dutenen arteko derbi historikoa

Euskadiko Txapelketan indarrak neurtuko dituzte bi talde horiek

X.U. | ARETXABALETA
Aretz futboleko aspaldikoak dira Debagoieneko ordezkariak maila goreneko kategorietan lehiatzen zireneko sasoiak, baina Eskoriatzak urteak daramatza Euskadiko Txapelketari duintasunez eusten, eta aurten gonbidatu berri bat dute: Aretxabaleta. Hala, bi taldeen arteko derbi historikoa izango da zapatuan (17:30, Ibarra kiroldegia).

Eskoriatza aurretik
Ligako hamahirugarren jardunaldira arte itxaron behar izan dute zaleek bi talde horien arteko lehia ikusteko. Egia esateko, ligan ez dabilta ikusgarri, baina eskoriatzarrak dagoeneko seigarren daude sailkapenean, azken bost partiduetatik lau irabazita –joan den astean 3-6 galdu zuten hirugarren dagoen Muskizen kontra–.

Aretxabaleta, berriz, iritsi berria da kategorian horretara, eta ligako lehenengo hilabete eta erdian ondo igarri zuten hiru porrot eta bi berdinketa, baina badirudi poliki-poliki neurria hartu diotela kategoriari, eta bolada ederrean dira, azken hiru partiduetatik irabazi egin dituzte eta. Hala, bi taldeen artean bi puntuko aldea baino ez dago.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Aretxabaleta-Santutxu
Domeka. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Ordizia-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Altamira.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Antzuola-Urola
Zapatua. 16:00. Estala.
Mondra-Zestoa
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Illintxa
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 17:00. Errotazar.

LEHEN ERREGIONALA
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Arizmendi-Eibarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.

EMAKUMEZKO ERREGIONALA
Arizmendi-Alleru
Domeka. 12:00. Ibarra.
Touring-Mondra
Zapatua. 18:15. Errenteria.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Eskoriatza
Zapatua. 17:30. Ibarra.

GIPUZKOAKO LIGA

Pizza Per Tutti Mondrate (atse.)

SENIOR NESKAK

Inter Altzako-Eskoriatza
Zapatua. 19:45. Mons kiroldegia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP. (GIZONE.)
Urduliz-Izarraitz Aloña Mendi
Zapatuan. 18:00. Urduliz.
Basauri-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 18:15. Iturripe.

EUSKADIKO TXAP. (EMAK.)
Umieta-Aloña Mendi
Zapatuan. 17:30. Umieta.

GIPUZKOAKO SENIORRAK
Bergara-Haritza Eibar
Zapatuan. 18:15. Labegaraia.

SASKIBALOIA

EBA
Santurtzi-MU
Zapatuan. 18:45. Santurtzi.

EUSKAD. BIGARREN MAILA
Natra Oñati-Cafes Aitona Ask.
Zapatuan. 18:00. Zubikoa.

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Donosti Dolphins
Zapatua. 19:45. Iturripe.
Soraluce BKE-Bosteko A
Zapatua. 18:00. Labegaraia.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Cafes Aitona
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

TENISA

SANTAMAS TXAPELKETA
Domekan. 10:00. Oetan, Musakol.

PILOTA

SANTAMASETAKO FINALAK
Arrasateko pilota klubeko finalak.
Gaur. 19:00. Oetan Uarkapen.

ZIKLO-KROSA

OÑATIKO SARIA
Domekan. 10:00. Oetan hasita.

FERRUGBIA

GERNIKA-KANPANTZAR ART
Domekan. 11:30. Gernikan.

Irati Lazkano bergararra Euskadiko selekzioarekin gaur

Gaur, egubakoitza, hasi eta asteburuan zehar jokatu dute Gijonen Espainiako lurraldeko futbol txapelketa. Eta Eibarren jokatzeko dabilen Irati Lazkano bergararra Euskadiko 18 urtez azpikoaren selekzioaz jokatzeko aukeratu dute. Euskadik Asturiasekin kontra jokatu du gaur.

Gipuzkoako Kopa egongo da Bergaran jokoan asteburuan

Zapatuan eta domekan jokatu dute Kopa (goiz eta arratsalde), eta bailarako bi taldeak lehiatzeaz batera –Bergara eta Aloña Mendi– Gipuzkoako 15 talde izango dira ordezkariak (200 igerilari guztira). Hori dela eta, Agorrosingo erabiltzaileek asteburuan ezin dute igeri egin.





Oinkari dantza taldekoak itsasoa dantzaren bitartez irudikatzen. | HIKA TEATROA

Itsasoaren alderdi gazi-gozaak emakumeen begietatik

Publiko zabalarentzako gomendagarria da eta sarrerak hamar eurotan eskura daitezke leihatilan

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Antzerkia, dantza eta musika bateratzen ditu Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian 22:30ean egingo duten *Itsasoaren amazteak* ikuskizunak.

Hitzak eta dantzak bat eginda
Kostaldeko herri txiki batean kokatuta dago eta bizkaieraz dago kontatuta. Agurtzane Intxaurregak eta Miren Gojenolak antzeztutako bi saregileak dira protagonistak. Euren bizipenak eta sentipenak kontatzen dituzte itsasoaren alderdi gaziak eta gozoak batuta. Itsasontzi bateko patroiarren amaztea da Intxaurregak antzeztutakoa, eta senarra

itsasoan galdu zuen, berriz, Gojenolaren pertsonaiak.

Aktoreen hitzak hamazortzi dantzari gazteren dantzeekin jositako daude. Hori horrela, antzeztutako bi pertsonaien iragana irudikatzen dute dantzari horietako bik; beste batzuk, berriz, baporean lanean dauden itsasgizonak dantzaren bitartez aurkezten dituzte, eta beste batzuk osterera, adibidez, itsasoko olatuak dira.

Ikuskizun bisuala

Begietatik sartuta, bihotzeraino heltzen den horietakoa da. 2013an estreinatuta zuten eta harrera oso ona izan du kostaldeko eta barruko herrietan. Informazio zabalagoa gaurko Puntua aldizkarian.

Telebistako dokumentala zuzenean Golden Apple Quarteten eskutik

A. A. | ARRASATE

Aurten ez da Amaia antzokian gospel kontzerturik izango; haren tokian, Golden Apple Quartet laukoteak irailean estreinatuta zuen *Mundo Intrépido* musikala ikusteko aukera izango da abenduaren 23an, 20:00etan. Sarrerak dagoeneko antzokiko leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian eskura daitezke hamabi eurotan.

Munduan zehar bidaia

Telebistetan ohikoak diren naturari buruzko dokumentalen itxura du dagoeneko zilarrezko ezteiak beteta dituen taldearen azkeneko ikuskizunak. Betiko moduan, oraingoan ere, musika eta umorea dituzte kontaktuzunerako osagai bakarrak; ez dute teknologia berriak erabiltzeko beharrik ikusten ikusleak barrez lehertarazteko.

Musika bidelagun, munduan zehar bidaiatzeko proposamena egiten diete ikusleei. "Afrika basatia eta misteriotsuraino helduko gara; antzinako Txinan izango gara; Italia erromantikoan murgilduko gara eta ilargia zapalduko dugu. Gurekin bizi diren baina apenas ezagutzen ditugun animalia-espezie bateko lau lagun dira protagonistak. Lehorte gogorrari aurre egiteko agertoki berrien bila ari dira", azaldu dute musikariek.

Mikel Urrezti kide berria

Loyola Garmendiak, Eduardo Errodonosorok, Manuel Romanok eta Kike Otxoak osatu dute 25 urtean Golden Apple Quartet taldea. Ikuskizun berriarekin, baina, Mikel Urreztik beteko du aurrerantzean Kike Otxoak utzi duen hutsunea.



Aukian jarrita dagoen Mikel Urrezti da taldekide berria. | GOLDEN APPLE QUARTET

Datorren urteko Huhezinema abian da dagoeneko

A. A. | ARETXABALETA

Euskal Film Laburren Jaialdiaren bederatzigarren edizioa egingo du Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko fakultateak martxoaren 16tik 18ra bitartean.

Jaialdiaren hiru sailetan –sail ofiziala, Basque Culinary lehiaketa eta MUko ikasleen lehiaketa– parte hartzeko lanak otsailaren 10a bitartean bidal daitezke. *Huhezinema.com* atarian kontsulta daitezke sail bakoitzaren oinarriak.

Hainbat berrikuntza

Aurreko urteetan moduan, lanak Movibeta plataformaren bitartez aurkez daitezke, baina, oraingoan, Feshhome plataforma erabiltzeko aukera ere izango da.

Berrikuntza horretaz gain, beste hainbat ere izango dira: batetik, Ogeita4 Camera Solution enpresarekin lortutako akordioari esker, Goiena sariari hiru egunerako kamera materiala gehituko ditela antolatzaileek. Sari horrekin sortutako euskarazko film laburra Huhezinema 2017an aurkeztuko dute. Basque Culinary lehiaketan, ikasleez gain Euskal Herriko edozeinek parte hartzeko aukera izango duela ere berria da; eta baita ekoizpenerako edo banaketarako diru laguntza publikorik jaso ez duen lana saritzeko Vertigo saria berreskuratututela ere.

Pamiela argitaletxearen eskutik:

Umeentzako bost liburu sorta.



Goiena Klubeko bazkide bazara, animatu eta parte hartu zozketan!

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Pamiela] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Pamiela [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketak honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeak, haketu, zuzentzeko edo ezereztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



ARGIA

Egizu, egiozu astero berritzen den oparia.

ARGIA astero, hamabostero edo hilero jasotzeko aukera duzu.

EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

© 943 371 545 · harpide@argia.eus · www.argia.eus/harpidetza



Adarra joz hasi dute ezohiko osoko bilkura

Tobera antzerki satirikoaren bosgarren edizioa Eskoriatzako kiroldegian egingo da abenduaren 28an

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Toberaren bosgarren ediziorako motorrak berotzen hasi dira Eskoriatzan. Astelehenean ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean, Aretxabaletari aurre egiteko erabakia hartzeko. Iaz, Aretxabaletak ez zuen epaia bete, eta aurten, Aretxabaletak Eskoriatzari iazko Toberan legearen aurrean gezurretan aritu izana leporatu dio. Testigu faltua eraman izanaz, hain zuzen ere. Horren aurrean, Eskoriatzak Kurtzebarriko gurutzea lapurtu du, eta astelehenean egindako ezohiko osoko bilkura horretan erabaki zuen Aretxabaletari aurre egitea.

Eskoriatzako Auzoko taldeko partaideak izan ziren herriko alkate eta zinegotzi paperean, Mari Paz eta Joxepa atsoak izan ziren txutxu-mutxuka publikoan, eta hainbat herritar ere gerturatu zen.

Literalki, adarra joz hasi zen bilkura bitxia Eskoriatzan. Pregoiariak adarra jo ostean, Ahinara Ibarraundi abokatuak bere burua aurkeztu zuen abokatu moduan Eskoriatza defenditu eta Aretxabaletari aurre egiteko: "Nire burua aurkeztera nator herrixa defendatzeko. Aretxabaletako herrixek akusazio larrixe bota dusku. Testigu faltua erun geuela iaz? Akusazio



Ezohiko osoko bilkuran egindako antzezlanean batutakoak. | IDOIA DAVILA

tontuagorik...". Zinegotziek bozkatu egin zuten, eta aho batez erabaki zen Aretxabaletari aurka egitea.

Iaz antzezlanean parte hartu zuten Joxepa eta Mari Paz ere gerturatu ziren osoko bilkurara. Publikoan egon arren, ez ziren isilik geratu. Joxeparen esanetan: "Aurten biajian noie, eta ez naz egongo lotsabako horrei aurka egiteko. Baina Mari Carmen jungo da nire ordeztu Mari Pazekin batera egurra ematera", azaldu zuen.

Erabakia hartuta, Eskoriatzako ereserkiarekin eman zioten amaiera Toberaren gaineko ezohiko osoko bilkurari.

Toberarako sarrerak salgai

Sarrerak dagoeneko salgai daude *Bibe.me* webgunean, zortzi eurotutan, eta zenbait dendatan: Eskoriatzan, kiroldegian eta Hotela tabernan; Aretxabaletan, Belarretan; Arrasaten, Ttukunen; Oñatin, Txokolateixan; eta Bergaran, Pol Polen.

Abenduaren 28an izango da Tobera Eskoriatzako kiroldegian, Inuzente egunean, 19:30ean. Aretxabaletak Eskoriatza eroango du auzitara, iazko antzezlanari jarraipena emanda. Aitor Agiriano zuzendariaren esanetan: "Hainbat berezitasun egongo dira aurten, eta publikoak espero ere duen zerbait ere gertatuko da".



Belintxon eta Aginaga. | IMANOL SORIANO

Lezora joan da dantzari gazte onenen txapela

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Iker Belintxonek eta Maider Aginagak irabazi zuten domekan Bergarako Udaltaldearen egindako bikote gazteen 38. dantza solte txapelketa. 16 urtez azpiko 17 bikotek hartu zuten parte.

Bikote bergararra

Moises Azpiazu dantza taldeko Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bosgarren postuan sailkatu ziren. Horretaz gain, baina, Bergarako bikote onenaren

saria ere eskuratu dute. Parte hartu duen herriko bikote bakarra izan da, eta txalo zaparrada jaso dute.

Murgiondok azaldu duenez, fandangoa "ondo" egin dute, eta, arin-arina dantzatzen "akats batzuk" egin arren, garaikurra eskuratu ahal izan dute, eta "egindakoarekin gustura" azaldu dira. Herrian dantza egitearen berezitasunagatik galdetuta, Galarragak azaldu du publikoan lagunak ikusteak "animatu" egin dituela.

Asier Altuna bergararraren 'Amama' filmeko aktore nagusia, Iraia Elías, Goya sarietarako izendatu dute

Zarauztarra emakumezko aktore errebelazio sarirako hautatu dute, Asier Altuna bergararrak zuzendutako *Amama* film arrakastatsuan egindako lanagatik. Hala jakinarazi zuten astelehenean. Otsailaren 6an egingo dute sari banaketa ekitaldia, eta orduan jakinaraziko dute irabazlea. Hain zuzen ere, Antonia Guzman (*A cambio de nada*), Yordanka Ariosa (*El rey de La Habana*) eta Irene Escolar (*Un otoño sin Berlín*) dira beste hiru izendatuak atal horretan.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko abenduko zozketetako irabazleak



TELEBISTA
Jose Mari Zabaleta Inza (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA

Iñaki Belategi Orueta (Bergara)
Anabel Azkoaga Alonso (Aretxabaleta)
Beatriz Galdos Beloki (Eskoriatza)

HARREMAN DENDAKO OTARRA
Aiora Beristain Madariaga (Bergara)

SANTA ANA JATETXEAN BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Arantxa Zeziaga Mondragon (Aretxabaleta)

LARRINETXE JATETXEAN BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Eneritz Gonzalez Uribe (Arrasate)

MENDIOLA JATETXEAN BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Estitxu Uribeetxeberria Madinabeitia (Aretxabaleta)

BASKONIA - CEDEVITA ZAGREB PARTIDURAKO BINA SARRERA

Karnele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)
Gabino larza (Arrasate)
Olatz Arteaga Pagaldai (Bergara)
Maite Arana Osinaga (Arrasate)

ARCE + NI NAIZ HIP HOP KONTZERTURAKO BINA SARRERA

Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

EREIN DA JAN ELKARTEAREN BOST SASKI

Miren Anduaga Kortabarría (Antzuola)
Nerea Arregi Uribeetxeberria (Oñati)
Aitor Gutierrez Elkoro (Bergara)
Yolanda Sanchez Perez (Arrasate)
Esteban Otadui Iribecampas (Arrasate)

EUSKAL SELEKZIOAREN HIRU EKIPAMENDU

Jose Iñarra Alberdi (Oñati)
M. Antoni Beitia Urkola (Arrasate)
Igor Azkarate-Askasua Arana (Bergara)

LIBURUAK ETA DISKAK

Fermin Etxegoielen *Urpekariak*
Jokin Gantxegi Bergara (Bergara)

Klakson taldearen diska
Jose Mari Ugarte Aiausti (Oñati)

Eneko Barberenaren *Periko gazteekin hizketan*
Asier Alegria Romaratezabala (Eskoriatza)

Sorkun bakarariaren diska
Xabier Mugartza Aiausti (Oñati)

Julia Mongeren *Educación, memoria e historia*
Fernando Contreras Munilla (Bergara)

Korrontzi taldearen DVDa
Inazio Inza Leturiaga (Oñati)

Miguel Angel Elkoroberebarren *Simon Arrieta 1915-1969*

Floren Arana Barandiaran (Arrasate)

Uskiz taldearen diska
Aitor Umeretz Ezeolaza (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK**. Araotz Auzoa, Oñati, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko). **Harreman dendako otarrak** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak** (Otorduak eta sarrerak izan ezik). Zatoz, GOIENAREN egoitzara (**Abenduaren 21etik 23ra**). Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman behar da. GOIENA Otarola Lizentziaduna, Arrasate, 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ilargi Markuleta Kortajarena
Urtarrilaren 2an, 2 urte. Zorionak, bihotza, etxeko danon partetik. Bi urte dagoeneko, sorgintxo!



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama Marisa! Egun politxa pasatzia opa dotzugu. Patxo eta besarkada handi bat Alaineren eta Kenarren partetik.



ANTZUOLA
Irati Aranguren
Abenduaren 31n, 7 urte. Zorionak, Irati! 7 urte, maittia! Egun politxa pasatu eta patxo potolo-potoloa etxeko partetik! Bereziki Maialenen besarkada handi bat!



BERGARA
Elene Larrañaga Agirre
Abenduaren 28an, 9 urte. Zorionak, maitxia! Patxo potolo bat etxeko partetik eta ondo pasatu zure urtebetetzea.



OÑATI
Eneko Aranburu Onaindia
Abenduaren 27an, 10 urte. Zorionak, Eneko!



BERGARA
Ekhi Ormaetxea Cid
Abenduaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu. Muxu pilo bat zure familia osoaren partetik. Jarraitu hain jator eta alaia izaten.



BERGARA
Aner Arriola Gallastegi
Abenduaren 23an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Askok maite zaitugu eta bikain pasatu zure eguna! Patxo handi bat, Julenen eta Maeren partetik bereziki!



ESKORIATZA
Aitor Zubizarreta Fernandez
Abenduaren 22an, 10 urte. Zorionak, Aitor! Eskerrik asko 10 urte zoragarri hauengatik. Aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Ametz Zulueta Algorta
Abenduaren 22an, 7 urte. Geure Anbotoko Damari, zorionak eta musu handi bat!



ANTZUOLA
Maddi Iturbe Gabira
Abenduaren 21ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Noaren, amatxoren eta aitaxoren partetik.



BERGARA
Markel Arrieta
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak, artista! Egutero ematen diguzun bizi-pozagatik, patxo potolo-potolo bat etxeko danen partetik, bereziki Jonen. Muaka!



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Zorionak, Gari eta Oihan! Abenduaren 20an 5 urte beteko dituzue! Ondo ospatu zuen urtebetetze eguna lagun eta familia artean eta patxo handi bat etxeko guztien partetik! Bereziki Izarok!



ARRASATE
Euri Zubizarreta Rodriguez
Abenduaren 19an, urtebete. Zorionak, Euri! Urtetxo bat gure artean! Muxu handi bana etxeko partetik eta belarri tirakadaxo bat! Muatx!



ELGETA
Arantxa Arantzeta Arantzeta
Abenduaren 18an, 94. urtebetetzian, zure loiben partetik. Zorionak!



ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an, 12 urte. Zorionak! Jadanik 12 urte! Muxu eta besarkada handi-handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Haritzen eta zure lehengusu eta lehengusina guztien partetik. Oso ondo pasatu eta ospatu eguna!



OÑATI
Eider Galdos Pombar
Abenduaren 17an, 3 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo pila bat etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Mikel Tena Coma
Abenduaren 16an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat Julenen, Anderren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
Josefa Lizarralde Aiestui
Abenduaren 16an, 101 urte. Zorionak! Ondo-ondo ospatu eguna. Patxo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Bea Alcalde Bengoa
Abenduaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, amore! Zure lagunuen partetik, ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Aner Horrillo Zallo
Abenduaren 14an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat gurasoen, aitita-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada eta Angelesen partetik.



BERGARA
Mei Azkarate-Askasua
Abenduaren 13an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta jaso patxo handi bat etxeko eta, batez ere, zure ahizpa Laiaren eta Malenen partetik. Segi horrelako alaia izaten!



OÑATI
Irati Zumalde Altube
Abenduaren 12an, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako, familia guztien partetik.



BERGARA
Irati Castro Trompeta
Abenduaren 11n, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna. Familiaren, gurasoen eta Laiaren partetik. Patxo handi bat.



OÑATI
Peru Orueta
Abenduaren 11n, 4 urte. Zorionak, Peru! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta lau patxo potolo familia danaren eta, bereziki, Nataleren partetik. Zorionak, txapeldun!



ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, 7 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, familia osoaren eta, bereziki, Liberen partetik!



ARETXABALETA
Aner eta Unax Maria Tercero
Abenduaren 5ean, 5 urte. Zorionak, gure bihurritxo! Muxu pottolo-pottolo bat danon partetik! Askok maite zaituztegu! Mua!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROIGARRIA

**Mari Karmen
Zubizarreta Guridi**

*Zure etxea izan da denontzat abara,
laguntzeko beti prest zinen une oro.
Heriotzak gaitu samindu zeharo,
gogoratuko gara zutaz egunero.*

Eskerrik asko, Mari Karmen.

Tio Enrique, Arantxa, Uriel, Txomin, Nerea, Mailen eta Irati.
Oñatin, 2015eko abenduaren 18an.

OROIGARRIA

**Mari Carmen
Zubizarreta Guridi**

2015eko abenduaren 12an hil zen.

Tia maïttia.

Zure ilobak.
Oñatin, 2015eko abenduaren 18an.

OROIGARRIA

**Ines
Agirrebengoa Gabilondo**

2014ko abenduaren 20an hil zen, 93 urte zituela.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zure bilobak.
Arrasaten, 2015eko abenduaren 18an.

OROIGARRIA

**Francisco
Morales Gay**

(Eskolako Marga langilearen aita)



Abenduaren 16an hil da.

Luis Ezeiza Herri Eskolako Komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.



Eskoriatzan, 2015eko abenduaren 18an.

OROIGARRIA

**Inmaculada
Gantxegi Carballo**

(Eskolako gurasoa)

Abenduaren 12an hil zen.

*San Martin Agirre Herri Eskolako Komunitateak
bat egiten du familiaren saminarekin.*



Bergaran, 2015eko abenduaren 18an.

OROIGARRIA

**Maria Teresa
Irasuegui Larrañaga**

*Aramaioako herriak zure lana eta dedikazioa eskertuz.
Beti gogoan.*



Aramaion, 2015eko abenduaren 18an.

ESKER ONA

**Faustina
Arana Pagaldai**

(Matias Sagastaren alarguna)



2015eko abenduaren 10ean hil zen, 90 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko, sendikoen izenean.*

*Maitatua sabera, nintzelarik haurra
ez nekien nik zer zen, amaren beharra
bortu batean orain noiz bakar-bakarra,
amaz orhoit arduko heldu zait nigarra!*

Arrasaten, 2015eko abenduaren 18an.

ESKER ONA

**Sofia
Aranzabal Cacicedo**

(Victor Herranen alarguna)



Abenduaren 15ean hil zen, 97 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.*

Bergaran, 2015eko abenduaren 18an.

ESKER ONA

**Jesusa
Uribesalgo Zuazua**

(Bixente Unzurrunzaga Lizarralderen alarguna)



2015eko abenduaren 13an hil zen, 89 urte zituela.

*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.*

Oñatin, 2015eko abenduaren 18an.

URTEURRENA

**Maria
Unzueta Kortabarria**

(Esteban Zabaletaren alarguna)



2014ko abenduaren 9an hil zen, 86 urte zituela.

*Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
abenduaren 20an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.*

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko abenduaren 18an.

URTEURRENA

**Agueda
Gastañaga Garay**

(Ignacio Balzategiren alarguna)



2014ko abenduaren 24an hil zen, 86 urte zituela.

*Lehen urteurreneko
meza domekan izango
da, abenduaren 20an,
12:00etan, Bergarako Santa
Marina parrokian.*

*Malkoekin batera etorri zaizkit
oraimen guztiak burura,
bihotzeko min hau lasaitzeko
ituruz.
Zuk emandako guztia ezin da
bertso baten soilik alpa,
baina gure artean betiko egongo
zarela ezin daiteke uka.*

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko abenduaren 18an.

URTEURRENA

**Juan Maria
Benitez de la Cruz**

2014ko abenduaren 25ean hil zen, 55 urte zituela.

*Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
abenduaren 20an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.*

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko abenduaren 18an.

URTEURRENA

**Ana Maria
Cueva Valenzuela**

2014ko abenduaren 27an hil zen, 79 urte zituela.

*Lehen urteurreneko meza,
2015eko abenduaren 19an,
zapatuan, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren
parrokian izango da.*

*Jaan izanak ez du esan nahi
zuekin ez nagoela.
Bakarrik, nire gorputzak
ezin izan zuela ematen jarraitu
nire bihotzak
betiko emango dizuen.*

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko abenduaren 18an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Faustina Arana Pagaldai. Arrasaten, abenduaren 10ean. 90 urte.
Kristina Arregi Egidazu. Arrasaten, abenduaren 11n. 87 urte.
Casimira Constancia Moto Custodio. Arrasaten, abenduaren 12an. 94 urte.
Inma Gantxegi Carballo. Bergaran, abenduaren 12an. 42 urte.
Mari Karmen Zubizarreta Guridi. Oñatin, abenduaren 12an.
Gurutz Jausoro Ugarte. Oñatin, abenduaren 12an. 82 urte.
Jesusa Uribesalgo Zuazua. Oñatin, abenduaren 13an. 89 urte.
Eugenio Osa Alberdi. Bergaran, abenduaren 13an. 90 urte.
Juan Azkarate Agirrezabal. Bergaran, abenduaren 14an. 89 urte.
Sofia Azkarate Cacicedo. Bergaran, abenduaren 15ean. 97 urte.
Lourdes Orue Aduna. Arrasaten, abenduaren 15ean. 92 urte.
Jose Moreda Casado. Arrasaten, abenduaren 15ean. 66 urte.
Maria Teresa Irasuegi Larrañaga. Aramaion, abenduaren 16an.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Larrañaga
gozotegiko gorringo
turroia.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-12-18

BUKATZEKO

Amamaren txerria, azokarako gertu

- ▶ Uxarte baserriko Joxepa Ibarrondoren ilusioa zen etxean hazitako txerria santamasetan erakustea
- ▶ Joan den uztailean hil zen, 90 urte zituela, eta egunotan etxeok ondo gogoan dute hura

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

"A ze ilusioa zuen gure amamak etxean hazitako txerria santamasetan erakusteko", dio Amaia Uribarrenek, haren iloba gazteenak. Eta astelehenean eta martitzenean Arrasateko kaleetan izango da *Sabiñe*, santamas jaien erdi-erdian. "Gure amama ez dago, uztailean hil zen, baina benetan poztuko zen ikusiko balu".

Amamaren eskaera

Orain dela hiru urte hasi ziren txerriak hazten Udala auzoko Uxarte baserrian; hain zuzen, Joxepa Ibarrondo amamak eskatuta. "Jatekoa alferrik galtzen zela etxean esaten zuen, eta txerria hazi zitekeela harekin. Ordu tik, urtero ekartzen dugu". Txerria hazi ostean akabatu eta etxerako txorizoak eta gainerako jatekoak egiten dituzte: "Amamak egiten zuen txorizoen osagaien nahastea, berak zekien sasoi bateko errezeta. Eta ez zion beste inori uzten nahaste horretan eskua sartzen", dio Amaiak, umoretsu, amama Joxeparekin akordatuta.

90 urtera iritsita egon arren sasoi zuen Uxarteko alaba, eta birramama izatera ere iritsi



Amaia Uribarren eta Martin Sabiñe-ri jaten ematen. | MIRARI ALTUBE

zen: "Zoratzear zegoen Martin birbilobarekin; alargun geratu ostean bizipoza eman zion hark".

'Sabiñe' eta 'Linda'

Amamaren erretolikari kasu egin eta Santamas Komisiñokoei iaz egin zieten txerriaren eskain-

tza, baina ordurako hitzartuta zuten beste baserritar batekin. "Aurten, akordatu egin dira gurekin, eta eskerrak eman gura dizkiegu horregatik", dio.

Bi txerri hazi dituzte etxean: *Sabiñe* eta *Linda*. Biak ala biak gustura bizi dira Uxarten duten



Joxepa, Martinekin. | AMAIA URIBARREN

txabolan, eta, pisatu ez badituzte ere, seguru daude 150 kilotik gorakoak direla. Pisu handia bakarrik ez, gihartsuak ere badira: "Indar handia du *Sabiñe*-k eta beldur apur bat ere ematen digu, santamasetako zalapartaren erdian ez dakigu-eta zein jarrera hartuko duen", esan du, kezkatuta.

Hori iritsi bitartean, jaten ematen jarraitzen dute etxeok, bereziki ilusioz gainezka joaten den Martin birbilobak; pozik, gainera, guztiak, amama Joxeparen ilusioa betetzera doalako.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Hostoak

Hostoekin egin du amets. Zeruan jira-biraka zebiltzan. Zirimola ederra osatzen zuten. Kolore eta tamaina askotakoak, batera eta bestera hegan. Gorrixkak, marroiak, berdekarak. Txiki zein handi. Haizearekin jolasean. Eta bera saltoka eta korrika. Haiek harrapatu nahian. Baina ihes egiten zioten. Behin eta berriz.

Amets polita izan zitekeen. Baina ez. Amesgaiztoa zen. Izerditan esnatu da. Ernegatuta. Pedro kale garbitzailea da, eta kokoteraino dago hostoekin. Gaur ere hostoak biltzera joan beharko du, erratza eta pala hartuta. Hosto multzoa egitea lortu orduko, haize madarikatuak denak sakabnatzen dizkio. Ufada batekin, lan guztia pikutara. Eta gainera, arbolen jarioa etengabea da. Gorroto du urte sasoi hau.

Alfredo Laudioko enpresaburua da, eta harentzat, seguruenez, amets ederra izango litzateke Pedrorena. Zoragarria. Ondo baino hobeto asmatu du hostoei etekina ateratzen. Ez du ba Gernikako arbolaren perfumea sortu? Gernikako arbolaren hostoak beratuz egin ei du *Haziak* lurrina: *Gure lurraren esentzia*. "Euskal Herritik urrun dauden eta etxea oroitu nahi dutenentzat". Internetez saltzen du. Ikaragarri maite du urte sasoi hau.

EGUZKITAKO BETAURREKOAK

deskontua

30%

MODELO BERRIAK 2016

www.multiópticasgipuzkoa.com

Kontsulta lizazu zure optikan kanpainen ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuean erabili.

RALPH OAKLEY
Ray-Ban arnette
eta askoz gehiago...

Gabon hauetarako OPARI EZIN HOBEA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan